



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

2025eko

MEMORIA OROKORRA

AURKIDEA

1.	ETXEBIZITZA	2
1.1	Gazteak eta emantzipazioa. Emantzipa zer?	2
1.2	Nork-nori-zer. Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean.....	8
1.3	Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa	10
1.4	Gazte Foku: etxebizitza eta enplegua.....	12
1.5	Etxearen erraiak	12
1.6	Bilbo, unibertsitate-hiria	12
1.7	Harremanak eragileekin.....	12
2.	ENPLEGUA.....	15
2.1	Gazteak eta emantzipazioa.....	15
2.2	Gazte Ekintzaileak	15
2.3	GAZTELABEL zigilua.....	20
2.4	Gazteak eta lehen sektorea	23
2.5	Nazioarteko egunak: maiatzak 1 eta urriak 7	27
2.6	Etxebizitza eta enpleguaren gazte behatokia. Gazte Foku: etxebizitza eta enplegua...	30
2.7	Harremanak eragileekin.....	35
3.	HEZKUNTZA.....	40
3.1.	HEZKUNTZA FORMALA.....	40
3.1.1	Gelatik At – Hezkuntza Komunitatea.....	40
3.1.2	Euskadiko Eskola Kontseilua	44
3.1.3	Hausnarketa – Lab	45
3.1.4	Gizarte aldaketarako Herritartasuna.....	47
3.1.5	Hezkuntza eragileak	48
3.2	HEZKUNTZA EZ FORMALA.....	50
3.2.1	Gazte Boluntarioak.....	50

3.2.2 Euskadiko Gazteak Lankidetzan	52
3.2.3 Administrazioa eta beste eragileekin koordinazioa.....	53
3.2.4 Barrunba – Nahi Gabeko Bakardadea.....	55
3.3 HEZKUNTZA OROKORRA.....	57
3.3.1 Euskera	57
3.3.2 Hezkuntzako Nazioarteko Egunak.....	59
4. ASTIALDIA.....	62
4.1 Astialdiko ekintzen garapena eta zabalpena.....	62
4.2 Astialdi Foroa	65
4.3 Astialdiko Eskolen Foroa.....	73
4.4 Astialdiko formakuntzak: boluntariotza eta elkartegintza.....	75
4.5 Harremanak eragileekin	78
4.6. Gazteriaren elkargunea.....	84
5. PARTAIDETZA.....	86
5.1 2024-2030 Plan Estrategikoa eta Urteko Ekintza Plana.....	86
5.2 EGK-ko Formakuntza Plana.....	96
5.3 Gazteak eta ongizate emozionala	98
5.4 Gazteriaren Foru Transpirenaikoa.....	101
5.5 Material, Gela eta Aholkularitza Baliabideak.....	102
5.6 EGK Parte Hartze Espazioetan	104
6. BAKEA ETA BIZIKIDETZA.....	109
6.1 ETIKASI.....	109
6.2 AcercaTé.....	115
6.3 Memoria Ibilbidea	118
6.4 Nork-nori-zer. Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean	121
6.5 Nazioarteko egunak.....	123
6.6 EHU Uda Ikastaroa.....	126
6.7 Eskola Segregazioa	128
6.8 Eragileekin harremanak.....	130

6.9 Koordinazio orokorra.....	138
7. BERDINTASUNA.....	141
7.1 Gaur8 lantaldea	141
7.2 III. Berdintasun Plana.....	142
7.3 Gune Anitza.....	144
7.4 Hilerokoa eta menopausia	145
7.5 Osasun sexuala eta erreproduktiboa	147
7.6 Etxearen erraiak.....	150
7.7 Nazioarteko egunak	152
7.8 Harremana feminismoko eragileekin	154
8. KOMUNIKAZIOA.....	156
8.1 Komunikazio Plana	156
8.2 Webgunearen mantenua.....	160
8.3 Diseinatzaile Gazteen Lan Poltsa.....	162
8.4 Lan Arloak	163
9. PRESIDENTZIA.....	171
9.1 Barne Koordinazioa	172
9.2 Harreman instituzionalak.....	183
9.3 Eragin politikoa.....	189
9.4 EGKren 40. urteurrena.....	192
9.5 2030 Agenda	194

SARRERA

Txosten honetan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 2025ean Euskadin aurrera eraman dituen proiektuak aurkezten dira. Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren arteko elkarlanean diseinatu dira, eta aintzat hartu dira lan-arlo ezberdinen lantalde eta eragileek egindako ekarpenak. Proiektuon eta EGKren ekinbideen helburua da gazteriaren eta administrazioen arteko zubi-lana indartzea, gazteen beharrak eta proposamenak erakundeei eta gizarteari helarazteko.

Krisi egoeretan, gazteria kolektibo kolpatuenetarikoa izan ohi da, eta horrek ondorio latzak eragiten ditu gazteen bizitzetako esparru orotan. Testuinguru horretan, EGKren xede nagusienetarikoa gazteen bizi kalitate eta egoerak aztertzea da. Horrekin batera, sustatzen dituen parte hartze espazioei eta bertan ateratako ondorioei esker, proposamen eta ekarpen ezberdinak administrazioei helarazi eta gizartean zabaltzeko helburua du EGK-k.

Aurten, 2024-2030 Plan Estrategikoaren bigarren urtea izanik, EGK-k bertan zehaztutako ildo estrategikoak sendotzen jarraitu du, gazteriaren errealitatera egokituz eta bere eragin soziala eta politikoa indartuz.

EGK-k aurrera ateratzen dituen proiektu, ekitaldi eta txosten orotan gazteen ikuspegia txertatzen du, eta ildo horretan kokatzen diren ekimenetan ere lagundu egiten du, gazte-ikuspegia duen proiektu sendo bat eraikitzeko asmoz. Oro har, bada, 2025ean ere gazteen eskubideak bermatzeko eta haien ahotsa entzunarazteko egin du lan EGK-k.

Memoria honetan aipatzen diren proiektu guztiak gure [webgunean](#) edo gure [sare sozialetan](#) daude ikusgai.

1. ETXEBIZITZA



1.1 Gazteak eta emantzipazioa. Emantzipa zer?

Gazteen Euskal Behatokiak berriki argitaratu duen legez, 18 eta 29 urte arteko gazteen ustez lan-merkatuari (% 63) edo etxebizitzari loturikoak (% 36) dira Euskadiko arazo nagusiak. Emantzipazioari loturiko datuak erreparatuta, bada, ez da harritzekoa: izan ere, 2024ko datuen arabera 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 17,2 besterik ez zegoen emantzipatuta. Preseski, 18 eta 24 urte artekoen % 5,3 besterik ez zegoen emantzipatuta, eta 25 eta 29 urtekoen artean % 32,8.

Emantzipazioak eta, konkretuki, egungo egoerak, lotura hertsia du etxebizitza merkatuaren izaera iritsezinarekin, parke publikoaren urritasunaren eta lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuarekin. Adierazle argi dira, ildo horretan, gazteek etxebizitza eskuratzeko egin behar duten esfortzu ekonomikoari loturikoak: Gazteen Euskal Behatokiak argitaraturiko *Emantzipazioaren Giltzak Euskadin (2025)* txostenaren arabera, 30 urtetik beherako gazte batek bere soldata garbiaren % 59,4 bideratu behar du hileroko alokairu errentaren ordainketara, eta hipoteka kuotaren ordainketaren kasuan % 72,8koa da esfortzu ekonomikoa. Gaineratzekoa da, bada, soldata garbiaren % 30a hartu ohi dela salneurri ordaingarritzat, eta hortik gorakoak gainera esfortzu ekonomikoaren adierazle direla.

Beste era batera esatearren, gazte batek etxebizitza jabetzan eskuratzeko gehieneko salneurri onargarria 101.115€-koa da, etxebizitza libreen batez besteko prezioa baino 144.144€ gutxiago, alegia. Alokairuaren kasuan, gazte batek gehieneko ordain lezakeen errenta onargarria 414€-koa litzateke, egun sinatuta dauden alokairuen batez besteko errenta baino 405€ gutxiago.

Auziok jendartean duten garrantzia agerikoa da: are gehiago, nabarmentzekoak dira azken urteotan egoerari erantzute aldera hartu diren neurri ezberdinak. Tartean, aipagarri da Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Legearen ondotik hezurmamitutako 2030 Emantzipazio Estrategia. Ildo horretan, joan den urtean izandako berrikuntza nabarmenatarikoa izan zen Emantzipa dirulaguntza, zeinak 8.284 eskari jaso baitzituen (2024).

EGK-k, bada, ezinbestekotzat du egoeraren inguruko analisisietan gazteen ahotsa aintzat hartzea. Halaber, martxan diren eta martxan jar litezkeen neurrien inguruko eztabaidetan gazteen ikuspegia txertatzea ere beharrezkoa da. Zentzu horretan, orain arte egin legez, EGKrentzat lehentasun behinena izango da emantzipazioaren inguruko aldarrikapenak ondu eta erdiguneratzea.

Izan ere, EGK-k hamarkadak daramatza gazteen emantzipazioa aldarrikapenen lehen lerroan izaten, ekarpenak egiten eta hobekuntzak proposatzen. Helburuak gazteen kalitatezko enpleguak defendatzea eta etxebizitza duinetarako sarbidea bermatuta izatera heltzea dira, horrekin, bizi-proiektu autonomo baten oinarriak finkatzeko. Helburuoi lotuta sortu zen, bada, **Emantzipa...zer?** Hots, diskurtsoa landu eta etengabe berrikusi zein osatzeko aukera eman du honek, erakunde, talde politiko eta eragile ezberdinen aurrean garrantzizko eragile bilakatuta.

Honekin, bada, garrantzitsua da etxebizitza eta enplegu arloei eskainitako espaziook indartsu izan daitezen lan egiten jarraitzea, eta 2025ean ere lan-lerro honi erantzungo dio EGK-k. Hala ere, aurten bestelako asmo bat ere izango du EGK-k: emantzipazioaren inguruko ikuspuntua zabaltu eta, mezu ezkorren aurrean, gazteak ahalduzko balioko duten baliabide eta diskurtsoak sortzea, hain zuzen ere.

Aipatu legez enpleguari eta etxebizitzari loturikoak dira Euskadiko gazteen kezkarik handienak: alorroi loturiko mezu, albiste... ezkorrak eguneroko ogi bihurtu zaizkigu azken hilabeteotan. Honek, bada, etsipena zabal dezake gazteen artean. EGK-k, kontrara, ezinbesteko ikusten du errealitatearekiko leial den baina gazteak ahaldunduko dituen diskurtso bat ere mahaigaineratzea.

Proiektu hau Enplegu lan-arloarekin batera koordinatzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren ikuspuntu anitz batetik enplegu eta etxebizitzarekin lotura duten gaiak jorratzea, ekimenak eta neurriak aztertzea eta ondorioak ateratzea. Jomuga, hausnartutako ondorio horiek administrazioari helaraztea eta politika publikoetan eragitea da batetik, eta euskal gazteriaren artean zabaltzea, bestetik.

Halaber, emantzipazioaren inguruan den diskurtsoaren kutsu negatiboaren aurrean, gazteak ahaldunduko dituen diskurtso zabal eta aberatsagoa ontzea ere izango da helburu. Besteak beste, emantzipazioa zentzu orokorragoan kontzeptualizatu eta gazteak agente pasibo baino agente aktibotzat hartuta.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteei emantzipazioaren inguruan diren neurri eta eztabaiden berri ematea, forma berri eta dinamikoak arakatuta.
- Gazteak eta gazte-elkarteak enplegu eta etxebizitza arloaren gainean batuko dituen eztabaidaguneak sortzea.
- Enplegu eta etxebizitza gaitan aditu eta arituak diren gazteekin elkarlana sustatzea.
- Gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea, defendatzea eta alternatiba eta hobekuntza-proposamenak sortzea.
- Emantzipazioaren inguruko diskurtso ezkorra iraultzea. Emantzipazioaren ikuspegi zabalago bat ondu eta sozializatzea.

Garapena

Emantzipazio gida:

Enplegu eta Etxebizitza teknikariek Presidentziarekin egindako bilera batean, ohiko txostena egin baino beste eduki batzuk sortzea erabaki zen. Izan ere, beste erakundeek ohiko bitartekoak sortuta dituela-eta, egokiagotzat jo zen gazteengana gerturatzeko irisgarriagoa eta dinamikoagoa zen eduki mota sortzea.

Horrela, sare sozialetan zabalduko diren pilula informatiboak diseinatu dira. Pilula horiek honako gaiak izango dituzte hizpide: berrikuspen fiskala, alokairu laguntzak eta alokairu zein erosketarako abal-lerro berria.

Pilulen gidoiak idatzi ziren eta, horiek ekoizteko, Kamanga estudioarekin jarri ziren harremanetan Enplegu eta Etxebizitza teknikariak. Urriaren 7an bilera bat egin zuten Kamanga eta EGK-k, proiektuaren nondik norakoak azaldu eta sortu beharreko 3 bideoen inguruan hitz egiteko. Azaroaren 24an jaso zituen hiru bideoen lehen bertsioak EGK-k. Aldaketarako ekarpen eta proposamenak bildu eta helarazita, bideoen zabalpenaren diseinua abiarazi zen.

Proiektua indartzeko eta **Gazte Foku** proiektuarekin uztartuta, Enplegu eta Etxebizitza teknikariek hainbat jardunalditan hartu dute parte. Jardunaldiotan jasotako informazioa baliagarri izan zen gazteei zuzendutako edukiak sortzeko.

- Otsailaren 5ean GAZek antolatutako *Etxebizitza librea erostea* hitzaldian izan zen Etxebizitza teknikaria.
- Apirilaren 3an GAZek antolatutako *Alokairurako laguntzak* hitzaldian izan zen Etxebizitza teknikaria.
- Apirilaren 7an GAZek antolatutako *Alokairua: zalantzak argitzen* hitzaldian izan zen Etxebizitza teknikaria.
- Apirilaren 29an GAZek antolatutako *Errenta aitorenaren inguruko hitzaldia* saioan izan ziren Enplegu eta Etxebizitza teknikariak.
- Ekainaren 13an DENBBORA sareak antolatutako *Gazteak eta enplegua. Norberaren denbora vs lan egiteko bizitza* jardunaldian egon zen Enplegu teknikaria.
- Irailaren 15ean Uda Ikastaroetako (UIK) *TopaGune Ikastaroa: Gazteen emantzipazioa hiru zutabe hauetatik abiatuta: etxebizitza, formakuntza eta lana* ikastaroan izan ziren Enplegu eta Etxebizitza teknikariak.
- Urriaren 14an GAZek antolatutako *GazteAval ezagutu* hitzaldian izan zen Etxebizitza teknikaria.
- Azaroaren 19an Eusko Jaurlaritzak sustatutako *House Action* kongresuan izan zen Etxebizitza teknikaria.
- Azaroaren 21ean *Ekinbat!* Proiektuaren itxiera ekitaldian izan ziren Enplegu eta Etxebizitza teknikariak.

Emantzipazioa, ezkortasunetik ahalduztzera:

Emantzipazioaren inguruan gailen den diskurtso ezkoraren aurrean, gazteak prozesu horrekiko ahaldunduko dituen diskurtsoa sortzea izango du xede proiektuaren ardatz honek.

Proiektua Donostiako Udalarekin elkarlanean gauzatuko denez, bilerak egin ziren martxoaren 6an eta ekainaren 10ean.

Lehen bileran, proiektuaren nondik norakoak zehaztu eta egin beharreko lanak zehaztu ziren. Honen ostean, honako eginbeharrak burutu ziren:

- Lan saioa urriaren 2an izango dela zehaztu zen eta Kontadores espazioaren erreserba egin zen.
- Lan saioan, psikologia zerbitzuaren hitzartzeaz gain, katiluak margotzeko dinamika aurrera eramatea zehaztu zen.
- Saioaren dinamizaziorako psikologia zerbitzua lotu zen. Gunetuz Psikologo Euskaldunen Sarearen bidez, Agintzariko Eneko Mendiluze profesionalarekin egin zen harremana.
- Elkaratek elkar ezagutzeko eta saioaren xehetasunak hitzartzeko, Agintzariarekin bilera bat egin zuen EGK-k maiatzaren 21ean.

Bigarren bileran, Donostiako Udalari egindako aurrerapenen berri eman zion EGK-k, eta honakoak izan ziren hizpide:

- Komunikazioari dagokionez, diseinua irailean egitea zehaztu zen, eta nondik norako orokorrak zehaztu ziren. Zehazki, EGK-k saioaren kartel konkretua egingo duela zehaztu zen, eta Kontadoreseko egitarau orokorra zabaltzen duen kartela (zeinetan saioa txertatuko den) Kontadoreseko zerbitzuak egingo du. Zabalpena irailaren erdialdean hastea deliberatu zen.
- Izen emateari dagokionez, Kontadoresen erabili ohi dituzten baliabideak erabiliko direla zehaztu zen.
- Saioaren baloraziorako ere, Kontadoresen erabili ohi dituzten baliabideak erabiliko direla zehaztu zen.
- Horrez gain, saioaren definiziorako bestelako auzi batzuk izan ziren hizpide: saioaren hizkuntza, espazioaren antolaketa... eta uda ostean auziok zehazteko bilera bat egitea hitzartu zen.

Komunikaziorako bitartekoak sortzeko gazte diseinatzaile batekin harremanetan jarri ziren Enplegu eta Etxebizitza teknikariak irailaren 11n. Proiektuaren zabalpenerako beharrezko bitartekoak sortu ziren.

Saioa prestatze aldera, Enplegu eta Etxebizitza teknikaria Eneko Mendiluze profesionalarekin bildu ziren irailaren 16an eta 25ean. Bilera horietan saioaren nondik norakoak zehaztu ziren.

Irailaren 26an zabalpenari ekin zion EGK-k. Izen-emateen jarraipena egin zen, eta partaide kopuru urria zela-eta, Donostiako Udaleko teknikariekin batera, saioa atzeratzea erabaki zen. Gauzak horrela, urriaren 7an Donostiako Udaleko teknikariarekin bildu ziren Enplegu eta Etxebizitza teknikariak, lehen saiakeran izandako hutsuneak antzeman eta aurrera begirako eginbeharrak planifikatzeko.

Saioa abenduaren 16an egitea erabaki zen, eta horretarako beharrezko urratsak eman ditu EGK-k: Eneko Mendiluzerekin harremanetan izan, zabalpenerako bitartekoen diseinua eguneratu eta zabalpena diseinatu.

HausnarketaLab:

- Ekintza hau Hezkuntza lan-arloarekin batera garatzen da, beraz, memoriaren [3.1.3 Hausnarketa – Lab atalean](#) dago garatuta.

Ebaluazioa

- Proiektuen garapenerako, eta **GazteFoku** proiektuarekin uztartuta, Etxebizitza eta Enplegu teknikariek jasotako informazioa kalitatezkoa izan da. GAZ zerbitzuak zein Gazteen Euskal Behatokiak eskaintako ikastaro eta informazioak baliagarriak izan dira sortuko diren edukiak definitzeko.
- Zabalpenerako bitartekoak sortzeko prozesua aberasgarria izan da, ohiko formatuetatik harago gazteentzat erakargarriagoak eta irisgarriagoak izango diren bitartekoak diseinatu baitira. Eraitza oraindik fintzeko dagoenez eta zabalpena oraindik egin ez denez, ebaluazioa aurrerago egingo da.
- **Emantzipazioa, ezkotasunetik ahalduztzera** lan-saioaren antolaketa prozesua positiboa izan da, bertan sortutako harremanak aberasgarri izango baitira etorkizunean. Halaber, Eneko Mendiluzerekin batera diseinatutako edukia sakona eta aberasgarria izan da, gazteentzat lagungarri suerta daitekeela baloratzen da.
- Lehen saiakeran parte-hartzaile gutxi eman zuten izena. Data aldaketa, ordea, positiboki baloratzen da, arduraz jokatu baita eta komunikazio ekinbideak hobe diseinatu baitira.
- **HausnarketaLab**-i dagokionez, saioaren parte-hartzea ez da espero bezain altua izan. Gauzak horrela, Hezkuntza lan-arloan azaldu legez, egitura eta planteamendua berrikusiko dira.

1.2 Nork-nori-zer. Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean

EGK-k urteak daramatza gazteak Euskadin emantzipatzeko eta etxebizitza duin bat lortzeko dituzten zailtasunen errealitatea agerian jartzen eta egoera honen konponbidean ekarpenak egiten. Gazteez hitz egitean kolektibo homogeen bat irudikatzeko joera dagoen arren, ez da horrela; aitzitik, gazteria kolektibo heterogeneoa da, eta gazte izateaz gain beste hainbat faktorek (generoa, migrazio prozesu bat bizi izana, arrazializatu izatea...) zailtasun, oztopo eta diskriminazio erantsiak gehitzen dizkiete emantzipatze prozesuei.

Ilido horretan, 2021ean proiektu bereizi bat sortzeko beharra gailendu zen: **Nork-nori-zer** proiektua, alegia. Honekin, etxebizitza sarbidean ematen den xenofobia eta arrazakeria aztertzeari ekin zion EGK-k, fokua, zehazki, alokairurako sarbidean jarrita.

Proiektu hau Bakea eta Bizikidetza lan- arloarekin batera koordinatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEn alokairurako sarbidean ematen diren xenofobia eta arrazakeriaren inguruan egindako azterketaren emaitzak sozializatu eta gaiarekiko ardura zabaltzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Etxebizitzarako sarbidean ematen den arrazakeria eta xenofobiaren inguruan sortutako diskurtsoa zabaltzea.
- Eragileekin kontaktua egiten jarraitzea eta sarea mantentzea.
- Diskriminazioak salatzea eta ekarpenak proposatzea.

Garapena

Lehen sei hilekoan, zabalpenerako edukiak sortu ziren. Batetik, Quan Zhou ilustratzailearekin, komikiaren sortze prozesua amaitu zen. Horretarako, besteak beste, euskararako itzulpenak eta diseinuari ekarpenak egin zizkieten Bake eta Bizikidetza zein Etxebizitza teknikariak. Quan Zhouarekin izandako harremana oso jarraitua izan zen.

Horrez gain, Nerea Mauleon diseinatzailearekin batera, proiektuaren nondik norakoak biltzen dituen txostena maketatu zen. Txostenak honakoak bildu zituen: sarrera, etxebizitza eskubidearen

unibertsaltasuna, jatorri atzeritarreko biztanleen bizitegi egoera, problematikaren nondik norakoak, erroak, irtenbide posibleak eta iturriak.

Edukion prestaketa lanak amaituta, webgunearen diseinua egin zen WebStudio Marketing enpresarekin. Honakoak izan ziren, bada, webgunean bildutako edukiak:

- Proiektuaren inguruko txostena, egoeraren azterketa sakona jasotzen duena eta zenbait datu biltzen dituen.
- Arazoaren inguruko bideo labur bat, gaiaren garrantzia modu bisual eta ulerterrazean azaltzen duena, edonork ikus dezan.
- Quan Zhou ilustratzailearekin (@gazpachoagridulce) elkarlanean sortutako komiki ilustratua, zenbait gazte taldek etxebizitza eskuratzeko orduan jasaten dituzten diskriminazio egoerak erakusten dituen.

Eduki guztiak ekainaren 19an argitaratu ziren EGKren ohiko komunikazio bideak erabilita. Horrez gain, webgunea argitaratu eta zabaldu zen, eta Quan Zhou-rekin kolaborazioan egin zen instagrameko posta, zabalpena handitzeko.

Proiektuari jarraipena emate aldera, Bake eta Bizikidetza teknikaria, Etxebizitza teknikaria eta EGK-ko Presidentea hainbatetan bildu ziren. Bilera horietan erabakitakoari jarraikiz, uztailaren 2an Donostiako Udalarekin harremanetan jarri zen EGK, **Nork-nork-zer** proiektuaren jarraipenari lotuta proposamen bat egiteko. Udalak hala eskatuta, proposamena biltzen duen txosten bat osatu zuten Bake eta Bizikidetza teknikariak eta Etxebizitza teknikariak. Proposamenak Quan Zhou-k sortutako ilustrazioak ardatz hartuta aurkezpen eta erakusketa bat egitea zuen oinarri.

Horrekin, aipatutakoa antolatzekeko urratsak eman dira azken hilabeteotan. Donostiako Udaleko Gazteriako teknikariarekin eta Kontadores Zentroko teknikariarekin, Quan Zhou-rekin eta bestetuekin bilduta, ekitaldiaren nondik-norakoak zehaztu dira: espazioa, data, iraupena, formatua, edukia, auzi teknikoak... Ekitaldiaren prestaketa aurten egin den arren, ekitaldia 2026an egitea aurreikusten da.

Ebaluazioa

- Sortu eta zabaldutako edukien kalitatea oso ona izan da.
- Sortu eta zabaldutako edukien hedapen kuantitatiboa (oraingoz neurgarria dena, instagrameko post-a) oso ona izan da.

- Aurkezpen-saioa egiteko aukera mahaigaineratu eta diseinua egin da, proiektuari jarraipena emanez. Quan Zhou zein administrazioaren interesa bizia izan da eta ekitaldiaren eragina esanguratsua izatea aurreikusi da.
- Jendartearen eta administrazioen harrera oso beroa izan da.

1.3 Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa

Administrazioak gazteen emantzipaziora bideratutako neurri edota dirulaguntza ezberdinak ditu, eta batzuetan, administrazio maila ezberdinen laguntzak eskuragarri daude eskualde bererako. EGK-k 2020an eginiko Gazteen Etxebizitza Egoera Ezagutzen txostenean agerian geratu zen bezala, askotan gazteek euren udalak eta administrazioek eskaintzen dituzten aukerei buruzko informazio gutxi dute, edota ez dakite nora jo neurri hauen inguruko informazioa jasotzeko.

EGK-k gazteek administrazioak emantzipatzeko eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko mapa interaktibo bat sortu zuen 2019an. Tresna honen bidez gazteek bizi diren udalerrira klikatuz zein aukera dituen modu erraz batean ikusteko aukera izango dute. Mapa hau erabat osatu zen 2021 urtean eta, orduetik, urtero eguneratzen da.

Gazteentzat lagungarri izateaz harago, administrazioarentzat ere lagungarri izan daiteke: besteak beste, halako laguntzaren bat martxan jarri nahi duen udal batek ereduak non topa ditzakeen jakin dezan, praktika onuragarriak non ematen diren argitzea...

Zentzu horretan, 2025ean, mapan bildutako eta bestelako informazioa batuko duen txosten bat osatuko da. Bertan, Gipuzkoako herrietan gazteen emantzipazioarentzat lagungarri diren neurriak bilduko dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Sortutako mapa interaktiboa eguneratzea, eta Gipuzkoako herrietan diren gazteen emantzipazioa laguntzen duten neurriak txosten batean biltzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteek administrazioak hauentzat eskaintzen dituen emantzipatzeko neurriak eta dirulaguntzak ezagutzea eta berauek ezagutaraztea.
- Euskal gazteriaren eta administrazioaren arteko zubi lana egitea.

- Administrazio eta gazteen artean dagoen harresiari irtenbidea ematea.
- Administrazioaren neurri eta programak gazteen artean ezagutzera ematea.
- Tokiko administrazioekin harremana sendotzea.
- Tokiko administrazioei gazteen emantzipazioa laguntzeko neurrien ereduak ematea.

Garapena

2025eko, emantzipazio mapa interaktiboa eguneratu da, administrazio ezberdinek martxan jarritako deialdiak erreparatuta eta udaletxeekin harremanetan jarrita.

Aurtengoan ere Gaztelagun eta Emantzipa laguntzak eskuragarri izango dituzke EAE osoko gazteek.

Horrez gain, hauexek dira, EGK-k jakin ahal izan duenez, gaur gaurkoz gazteek etxebizitza alokatzeko diru-laguntzak eskaintzen dituzten udalerri edo/eta hiriak:

- Araban: Zuian izan dira laguntzak.
- Bizkaian: Amorebieta-Etxano, Barakaldo, Berriz, Derio, Durango, Elorrio, Galdakao, Getxo, Iurretan, Larrabetzu, Lekeitio, Mañaria, Sopela, eta Zamudion izan dira laguntzak irekita.
- Gipuzkoan: Andoain, Arrasate, Azpeitia, Beasain, Deba, Getaria, Hernani, Irura, Oñati, Tolosa, Usurbil, Zumaia eta Zumarragan izan dira laguntzak irekita.

Gipuzkoako txostenari dagokionez, Gipuzkoako gazteen emantzipazio egoera eta Gipuzkoako etxebizitza merkatuaren nondik norakoak biltzeaz gain, aipatutako herrietako diru-laguntzen inguruko informazio bilketa egin da, orain txostenaren idazketa amaitzen ari da eta maketazioa bukatu eta gero, administrazioari helaraziko zaio emaitza.

Ebaluazioa

- Positiboa da gazteei zuzendutako alokairurako laguntza zuzenak ematea, etxebizitzarako sarbidearen arazoa arintze aldera. Halere, ezinbestekoa da etxebizitza parke publikoaren handitze esanguratsua sustatzea.
- Udalerrri batzuekin laguntzen inguruko informazioa eskuratzeko harremanetan jartzea zail suertatu bada ere, kasu batzuetan harreman hau bereziki positiboa izan da: udalerriak laguntza horiek aztertzeraz ere bultzatu baititu.

- Udal batzuek, bestelako instituzioen aldetik laguntzak hobetu direla-eta, udal-laguntzak eskaintzeari utzi diote. Gauzak horrela, aztertzekoa litzateke administrazio maila ezberdinen laguntzen arteko harremana.
- Udal bakoitzak laguntzak une ezberdinean argitaratzen dituenaz, EGK-k zailtasunak ditu maparen funtzionamendua zehazteko. Une jakin batean irekita dauden deialdiak biltzeaz gain, interesgarri irizten dio EGK-k martxan jartzea aurreikusten den laguntzak ere mapan biltzea. Horrek, bada, maparen eguneratzea zailtzen du.
- Datozen hilabeteetan trantsizioa nola gauzatuko den aurreikusten hastea ezinbestekoa izango da, behin-behineko egungo egoerak maparen zabalpena mugatzen baitu, honen abantailak itzalpean utzita.

1.4 Gazte Foku: etxebizitza eta enplegua

Proiektu hau Enplegu lan-arloarekin batera koordinatzen da. Horrenbestez, memoriaren [2.6. Gazte Foku: etxebizitza eta enplegua](#) atalean dago azalduta.

1.5 Etxearen erraiak

Proiektu hau Berdintasun lan-arloarekin batera koordinatzen da. Horrenbestez, memoriaren [6.6. Etxearen erraiak](#) atalean dago azalduta.

1.6 Bilbo, unibertsitate-hiria

Proiektu hau Hezkuntza lan-arloarekin batera koordinatzen da. Horrenbestez, memoriaren [3.1.1 Gelatik At – Hezkuntza Komunitatea](#) atalean dago azalduta.

1.7 Harremanak eragileekin

Emantzipazio alorrean eragile askok eta anitzek dute zeresana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile horiekin guztiekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoekin, gazteen iritzia transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta Etxebizitza arloan lan egiten duten elkarteen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren ikuspuntu bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuek proiektuetan, horretarako, EGK erreferente bihurtuta.
- EGK-ko proiektuetan gazte berrien parte hartzea lortzea.
- EGK-ko elkarteen artean etxebizitza lantzen dutenekin harremana sendotzea

Garapena

2025ean, Etxebizitza lan-lerroaren baitako proiektuen garapenak ahalbidetu egin du hainbat eta hainbat agenterekin harremanak estutzea.

Batetik, Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroaren *Lankidetza eta finantzaketa publiko-pribatuko ereduaren berrikuntza* lantaldean parte hartu izanak instituzio eskudunokin harremana estutzeko aukera eman du.

Bestalde, GAZekin eta Gazteen Euskal Behatokiarekin ohiko harremanari eutsi zaio, antolatutako jardunaldietan parte hartuta edota informazio trukaketa sustatuta.

REAS eta Koobizitzarekin ere harremana estutu ahal izan da, haiek antolatutako jardunaldi batean EGK-k parte hartzeaz gain, informazio trukaketa eta elkarlanerako borondatea gailendu baitira.

UrbanBat kooperatibarekin ere harremana sortu da, eta horrek bide eman dio gazteen ahotsa entzunarazteko EGK erreferentziazkotzat hartzeari.

Sorginlore eta Batzen-ekin egindako bilerek bide eman diote aurrera begirako elkarlana mahaigaineratzeari.

Amaitzeko, proiektuen garapenerako egin diren harremanak ere aberasgarriak izan dira. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da Quan Zhou ilustratzailearekin egindako harremana, zeinak oihartzuna eman dion EGKri, eta proiektua nabarmen aberastu duen.

Ebaluazioa

- Egindako harremanak eta harremanon fruituak positiboak izan dira. Elkarlanerako bideak zabaldu dira.
- kontaktu berriei dagokienez, UrbanBat-en inguruko ezagutza EGK-k izan bazuen arren, 2025ean harremana estutu egin da. Sorginlore eta Batzen-ekin sortutako harremana ere oso positiboki baloratzen da, aurrerantzean probetxugarri izan baitaiteke.
- EGK-k, emantzipazioari eta etxebizitzari loturiko gaitan, gazteen ahotsa zabaltzeko erreferentzia irabazi duela baloratzen da.

2. ENPLEGUA



2.1 Gazteak eta emantzipazioa

Etxebizitza arloarekin batera koordinatzen da, [plangintzaren 1.1. Gazteak eta emantzipazioa atalean](#) dago azalduta.

2.2 Gazte Ekintzaileak

Lan merkatuan enplegarritasunak gora egiten du modu positiboan zenbat eta formakuntza maila altuagoa izan. Ikerketetan hori adierazten bada ere, ez da gazteen egoeran bermatzen. Prestakuntza gehien duen gazteen belaunaldia izanda ere, hau ez da lan merkatuan islatzen. Aldiz, lan prekarioetan murgilduta daude; soldata baxuak, lanaldi partzialak, aldi baterako kontratuak ... Prekarietate horri beste hainbat zailtasun gehitu behar zaizkio ere; lan kontratu bat lortu ahal izateko bete beharreko baldintza altuak (esperientziaren eskakizunei lotuak).

Egoera honen aurrean, gazteriaren erdiak ekintzaile izateko asmoa adierazten badu ere, %5 baino ez da modu autonomoan lan egiten hasten. Zergatik dago hain alde zabala ekintzaile izateko asmoa dutenen eta benetan ekintzaile izatea lortzen duten gazteen artean? Zeintzuk dira bidean aurkitzen dituzten oztopoak? Nola egin ahal diete aurre?

2023ko urtean ekintzailetza gaztearen errealitatea ezagutzeko eta gizarteratzeko ahaleginak burutu ziren EGKn. 2024ean, antzemandako aukera, behar edo eskaerei erantzuna bilatu nahian jarraitu zen aurrera **Gazte Ekintzaileak** proiektuarekin hainbat entitate eta elkarte ezagutuz. Bertan Mondragon Unibertsitatearekin harremana egin ostean eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkar lanean, Gazte Ekintzaileen topaketa antolatzeke asmoa zabaldu zen. Horrela, otsailaren 12an gazte ekintzaileen topaketa burutu zen. Honekin, ekintzaile diren eta horretarako bidean dauden gazteen iritzia jasotzea lortu zen.

Beraz, ezinbestekoa ikusi da gazteek ekintzailetzaren inguruko beharrezko formakuntza eta informazioa jasotzeko eta zentzu honetan benetako aukerak eskaintzeko topaketan jasotako informazioarekin gazteak ekintzailetzarekin duten lotura, kezka, beldur eta indarguneak azaleratzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Ekintzaile diren eta euren kabuz lan egiteko bidea hartzen duten gazteen egoera aztertzen duen txostena ezagutaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ekintzailetza sustatzeko eta mantentzeko gazteei zuzendutako administrazioen laguntzen berri ematea.
- EGKn gaiaren inguruko diskurtsoa eratzea gazteei gaiarekiko aholkularitza eskaini ahal izateko.
- Gazteen artean ekintzailetzaren inguruko sarea eta coworking espazioak sortuz aipatutako ondorioak ateratzea
- Txostenaren ondorioak bide ezberdinetatik zabaltzea.

Garapena

2024ko lehen seihilekoan, **Gazte Ekintzaileak** proiektuaren garapena hainbat jardura eta bileren bidez gauzatu dira. Urtarrilaren 17an, Mondragon Unibertsitateko (MU) eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) ordezkariak (presidentzia eta enplegu teknikariak) bildu ziren ELEGIN euskara zerbitzua eskaintzen duten bi neska gazte ekintzaileekin. Bilera horretan, MU eta EGK-k jardunaldian izango zuten papera azaldu zieten ELEGINeko ordezkariak, jardunaldiaren antolakuntza eta garapenari buruzko informazioa partekatuz.

Otsailaren 7an, Mondragon Unibertsitateko eta EGK-ko ordezkariak bilera egin zuten DEMA Enplegu eta Ekintzailetza Foru Agentziako ordezkariarekin. Topaketa horretan, otsaileko jardunaldia behar bezala prestatzeko eta eragile guztien arteko koordinazioa bermatzeko pausoak zehaztu ziren, jardunaldiaren edukia eta helburuak partekatuz.

Otsailaren 12an, Gazte Ekintzaileak jardunaldia aurrera eramane zen, eta bertan ekintzaile diren eta ekintzaile izateko bidean dauden gazteen iritziak eta esperientziak jasotzea lortu zen. Jardunaldian bildutako ekarpenak oso baliagarriak izan ziren gazte ekintzaileen errealitatea hobeto ulertzeko.

Martxoaren zehar, Mondragon Unibertsitateko eta EGK-ko ordezkarien arteko koordinazio bilerak egin dira, jardunaldian jasotako informazioarekin txosten bat sortzeko asmoz. Bilera horietan, txostena nora bideratu eta MU eta EGKren artean hitzarmen bat egiteko aukera aztertu zen. Maiatzaren 12an, EGK-k txostena jaso zuen, eta hainbat zuzenketa egin zizkion jasotako edukiei. Ekainaren 10ean, beste koordinazio bilera bat egin zen zuzenketak Mondragon Unibertsitateari plazaratzeko eta beharrezko aldaketak adosteko; gainera, informearen maketazio eta itzulpen prozesuaren ingurukoak ere landu ziren.

Laburbilduz, lehen seihilekoan zehar, **Gazte Ekintzaileak** proiektuaren garapena elkarlan estuan oinarritu da, eta urrats bakoitzean jasotako ekarpen eta proposamenak txostenean islatzeko ahalegina egin da. Horrela, gazte ekintzaileen errealitatea eta beharrak modu egokian jaso eta gizarteratzeko pauso sendoak eman dira.

2025eko bigarren seihilekoan, Gazte Ekintzaileak proiektuaren garapena etengabeko elkarlanean eta ezagutza-trukean oinarritu zen. Lehen seihilekoan egindako jardueren eta bileraren ostean, EGKren jardura nagusiak gazte ekintzaileei zuzendutako informazio bilketa eta sozializazioa izan ziren.

Ekainaren 30ean, Enplegu teknikariak Bizkaiko Ekintzailetza eskolaren aurkezpenean parte hartu zuen. Jardunaldia DEMA Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko erakundeak antolatu zuen eta bertan, ekintzailetza eskolaren inguruko informazio guztia eman zuten, hala nola, ekintzaileentzako formakuntzak, irakasleen aurkezpena, eskolaren funtzionamendua etab.

Jardura garrantzitsuen 12an Bilbo AsFabrik-en egin genuen Gazte Ekintzaileen Topaketaren inguruko txostenaren sozializazioa izan zen. Bertan, bertaratutako gazteen jarrera-aldaketen eta ekintzailetzaren inguruko ikuspegiaren eraldaketaren analisia egin zen, parte-hartzaileen inkestetan jasotako datuetan oinarrituta. Inkesta horiek emaitza argiak utzi zituzten: ekintzailetzarako interesa nabarmen handitu zen topaketaren ostean, eta gazteek ekintzailetza etorkizunerako aukera gisa hartzeko joera sendotu zen. Gainera, norberak ekiteko duen gaitasunarekiko konfiantza, eta ekintzailetza-ekosistemako baliabideen ezagutza nabarmen

hobetu ziren. Bereziki azpimarratzekoa da, DEMA-Sarekin bezalako erakunde laguntzaileen ezagutza eta konfiantza asko handitu zela parte-hartzaileen artean.



Azaroaren 29an, txostena amaitu ostean, egindako lanaren emaitzak argitaratu eta zabaldu ziren EGKren sare sozial nagusietan (Instagram, Twitter...), eta baita webgunean eta gazte sareen bitartez ere. Dokumentua bera gazteentzat errazagoa eta erakargarriagoa izan zedin, hainbat infografia, laburpen grafiko eta eduki bisualekin egituratu zen. Horrela, edukiak proiektuko eragileekin ere partekatu ziren, eta sozializazio lana ez zen sareetara bakarrik mugatu: erakunde aliatuekin eta gazte-taldeekin bideratu zen, ekintzaitzaren bokazioa sustatzeko.

Horrez gain, ekintza osagarri batzuk ere nabarmendu behar dira. Horrela, **Gazte Ekintzaileak** proiektuak bere eragin soziala eta zabalkundea handiagotzeko ekin zion, ekintzaitza-prozesuaren erdigunean gazteria kokatuz eta erreferente eta baliabideak eskura jarritz. Jardunaldiaren azterna, egindako txostena eta sozializazio aktiboak proiektuaren inpaktua sendotu dute, eta etorkizuneko ekintzaitza-sarearen oinarriak trinkotzeko urrats berri gisa balio izan du.

Azkenik, pasarte guzti hauen emaitza gisa, parte-hartzaileek jasotako prestakuntza, aholkularitza eta baliabide guztiak eguneroko praktiketan aplikatzeko ahalmena lortu zuten. Horrela, ekintzaitzaren bidean konfiantza handiagoa izan dute, eta bide berriak irekitzen ditu ekosistema ekintzailearen trinkotzea eta erreferentzialtasuna bultzatzeko, aliantza publiko, unibertsitario eta sozialak indartuz. **Gazte Ekintzaileak** proiektuak, beraz, eredia indartu eta balioa gehitu dio gazteen artean ekintzaitzari, eta lurralde, sektore eta profil desberdinen artean elkarlan berriak sortzeko eta gazteen parte-hartzea areagotzeko bidean lagundu du.

Ebaluazioa

- Gaiaren lanketa sakona egin zen, bai jardunaldiaren garapenari esker bai proiektu osatuari buruz egin zen txostena medio. Azterketa sakonak ahalbidetu zuen gazte ekintzailtzaren gaur egungo errealitatea eta erronkak modu zorrotz eta zehatzean ezagutzea.
- Proiektuan zehar, hainbat erakunde eta ekintzailtza-sustatzeko eragilerekin harremanak berrartu eta sakondu ziren, besteak beste, DEMArekin eta Mondragon Unibertsitatearekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren bitartez. Honek aukera eman zuen ekintzailtza bultzatzeko sareak indartzeko eta gazteen proiektu ekintzaileentzako baliabide eta laguntza-ibilbide berriak zabaltzeko.
- Txostenaren bitartez, jardunaldian parte hartu zuten gazteen jarrera-aldaketak, ekintzailtza-prozesuei buruzko iritziak, eta baliabideen ezagutzaren hobekuntzak zehaztu ziren. Analisi kuantitatibo eta kualitatiboaren bidez, gazteek ekintzailtza aukera erreal gisa ikusten hasi zirela frogatu ahal izan zen, eta erreferente zein laguntza-sarearekiko konfiantza indartu zela ikusirik. Gainera, azterketak erakutsi zuen ekitaldira joandako gazteek bere praktika eta prestakuntzan jasotako ezagutza aplikatu dutela, eta honek ekintzailtza sarearen trinkotzea sustatu du.
- Txostenak aukera eman zuen lurraldeko gaiari buruzko ezagutza kolektiboa handitzeko eta proiektuaren inpaktua sozializatzeko, EGKren sare sozial eta komunikazio-kanal guztien bidez. Dokumentua infografia eta laburpen grafikoekin lagunduta argitaratu zen, gazteei erraztasun eta ikusgarritasun handiagoa emanez, eta politika publikoetan erreferentzia gisa erabili da erakunde laguntzaileekin izandako harremanak sendotzeko.
- Ondorio gisa, proiektuak gizartean ekintzailtza gazteen artean bultzatzeko tresna eraginkorra izan dela, lanerako eta autoenplegurako aukerak indartu dituela eta aliantza publiko, sozial eta akademikoak trinkotzeko bide berriak ireki dituela nabarmendu da. Txostenaren lantzeak eta sozializazioak ekintzailtza sare dinamikoago, erakargarriago eta gazteentzat eskuragarriago bihurtu du, etorkizunerako erronkei aurre egiteko oinarria finkatuz.

2.3 GAZTELABEL zigilua

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan, "Gazte Label" ziurtagiria sortzeko proiektua berrartu eta sustatzeko asmoa izan du. Zigilu honek lanerako ingurune egokiak eta gazteen inklusioa bermatzen duten enpresak aitortzea du helburu. Enplegu arloko jardunbide egokiak bultzatuz, gazteen lan-baldintzak hobetuz eta kontratazio inklusiboa sustatuz.

Gazteen langabezia-tasa eta prekarietatea dugun erronka nagusietako bat dira, eta "Gazte Label" ekimenaren bidez, lan merkatuan gazteen inklusioa sustatzeko neurri zehatzak ezarri nahi dira. Horrela, enpresei gazteekin lotutako politika zehatzak garatzeko baliabideak eskaini, eta lan-baldintza duinak bermatzen dituzten enpresak saritu nahi dira.

Proiektu hau aurreko urteetako esperientzian oinarritzen da, 2015-2019 aldian garatutako lehen fasean jasotako ikasketak eta gomendioak kontuan hartuz. Orduko ebaluazioek erakutsi zuten administrazio publiko zein gazteen interes handia bazegoela hauentzako lan-ingurune hobek sortzeko, baina tresna praktikoen beharra ere nabarmendu zen. Horregatik, fase berri honetan, enpresentzako tresna erabilgarriak eskaini nahi izan dira, gazteen laneratzearen inguruko neurri eraginkorrak ezarri ahal izateko.

Helburua lan-munduan belaunaldi berrien beharrak hobeto ulertzea eta enpresen eta gazteen arteko elkarlana sustatzea izan da. Halaber, proiektua etengabeko ebaluazio-prozesu baten bidez neurtu da, ekimenaren eragina aztertuz eta hobekuntza-aukerak identifikatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen enplegurako aukerak eta lan-baldintzak hobetzea, enpresei jardunbide egokiak ezartzeko irizpideak eskainiz eta horiek aitortuz **GAZTELABEL** zigiluaren bitartez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Laneratze politiketan berrikuntza eta inklusioa sustatzea.
- Enpresa-sarean gazteentzako lan-aukerak eta baldintza duinak bermatzen dituzten praktiken identifikazioa eta aitortza sustatzea.
- Aniztasun eta inklusioaren aldeko neurriak hartzen dituzten enpresak saritzea.

- Gazteen parte-hartzea bultzatzea enpresetako lan-baldintzak hobetzeko.

Garapena

Lehenengo sei hilekoan, **Gazte Label** zigiluaren proiektua berraktibatzen eta eguneratzeko beharrezko pauso guztiak aurrera eramane ziren. Proiektu hau 2015-2019 urte bitartean aurrera eramane zen zigiluaren esperientzia kontuan hartuta, orduko politika publikoen azterketa egiten zuen tresna izanik, oraingoan enpresentzako berariazko zigilu bihurtu da. Horretarako, Enplegu teknikaria, Presidentzia eta Partaidetza teknikariarekin bildu zen kontraste lanak egiteko eta proiektuaren norabidea adosteko.

Alde batetik, zigiluaren aurrekarien analisi sakona egin zen. Aurretiaz nola lortu zen zigilu hau martxan jartzea eta lau urtez mantentzea, eta orduko ikasketak eta gomendioak kontuan hartuta diseinuari ekin zitzaion. Analisi honek aurreko faseko indarguneak eta hobetu beharreko puntuak identifikatzeko aukera eman zuen, eta horrela, fase berriari ekiteko oinarri sendoak ekarri ziren.

Bestalde, zigiluaren irizpideen diseinuari ekin zitzaion, eta lan honetan ere Enplegu teknikaria Presidentzia eta Partaidetza teknikariarekin elkarlanean aritu ziren. Irizpideak diseinatzerakoan, gazteei lan-munduan eragiten dieten zailtasun eta eskubideei eman zitzaion lehentasuna. Horrela, 19 irizpidez osatutako azterketa moduko bat sortu zen, irizpide bakoitzak puntuazioa du eta lortutako puntuaketa orokorraren arabera emaitza bat ateratzen da, enpresek zigiluaren baldintzak betetzen dituzten ala ez neurtzeko.

Horrez gain, zigilua lortzeko irizpideak jasotzen dituen esku orria diseinatu zen enpresentzat, eta ebaluazioa egiteko bestelako txostenak ere sortu ziren. Batetik, enpresen lehenengo ebaluazioa egiteko txostena prestatu zen, eta bestetik, ebaluazio jarraituan erabiliko den txosten eredu landu zen. Dokumentu hauek guztiak prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatzeko prestatu ziren.

Azkenik, lehen sei hilekoan proiektuaren oinarriak finkatu eta tresnak prestatu ondoren, bigarren sei hilekoan enpresen identifikazioarekin eta haiekin harremanetan jartzeko lanekin jarraitu zen. Helburua gazteen lan-baldintzak hobetzen dituzten enpresak identifikatzea eta saritzea, eta Gazte Label zigiluaren bidez lan-merkatuan gazteen inklusioa eta jardunbide egokiak bultzatzea zen.

Bigarren sei hilekoan, **Gazte Label** proiektuaren garapenean aurrerapauso berriak ematea aurreikusi bazen ere, aurreikusitako jarduerak ezin izan dira gauzatu enpresa sarearen

identifikazioa burutzea ezinezkoa izan delako. Bizkaiko Foru Aldundiarekin kontaktua eta lehenengo koordinazio saiakera egin zen arren hasiera batean, ezin izan da enprekin lan egiteko oinarritzko sarea zehaztu, eta horrek proiektuaren jarraipena baldintzatu du.

Fase honetan egitea aurreikusten zen lana honakoa zen: hasierako diagnostikoa osatzea, metodologiaren balidazioa kontraste bileretan lantzea, eta pilotatze faseari ekitea enpresa batean zigilua probatzeko asmoz. Hala ere, ezin izan denez enpresa hautaketa egin, jarduera hauek bertan behera utzi behar izan ziren, proiektua geldituta geratuz diagnostiko eta enpresa identifikazio fasearen artean.

Aurrez prestatutako lan metodologikoari eutsi zitzaion, eta dokumentazioa eta diseinua eguneratuta mantendu ziren etorkizunean berraktibatzeko. Aldi berean, Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinazio kanala ez zen mantendu proiektuaren etorkizuneko bideragarritasuna aztertzeko, baita elkarlan aukerak baloratzeko ere beraz horrek proiektuaren jarraipenean pausoak ezin emana ekarri zuen.

Laburbilduz, bigarren seihilekoan aurreikusitako jarduera nagusiak (erakundeekin kontrastea, enpresen identifikazioa eta pilotatze fasea) ez ziren gauzatu aipatutako arrazoiengatik. Hala ere, lehenengo seihilekoan egindako oinarri-lanei esker, **Gazte Label** proiektua etorkizun hurbilean berraktibatzeko baldintza egokiak mantentzen dira.

Ebaluazioa

- Zigilua plazaratzeko zailtasunak direla medio honen diseinua egiteaz gain ezin izan da aurrera eraman urte hasieran jarri genituen aurrera pausoak.
- Nahiz eta diseinuaren fasea arrakastaz burutu, hurrengo faseetara igarotzeko ezinbestekoa zen enpresa identifikazioa ez da burutu.
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin hasiera batean kontaktua izan den arren elkarlan hori ez da etorkizunean mantendu.
- Ondorioz, proiektuaren aurrerapena geldituta geratu da diseinu fasean, zigilua praktikan frogatzeko eta balidatzeko aukerarik gabe.
- Hala ere, diseinuan bildutako metodologia, irizpide eta dokumentazio teknikoa eguneratuta mantendu dira etorkizunean proiektua berraktibatzeko.

2.4 Gazteak eta lehen sektorea

Euskadin, lehen sektorearen etorkizunak etengabeko erronkei aurre egiten die, eta horietako bat gazteen parte-hartzea da. azken urteetan gai honek berriz ere garrantzia hartu du, bai gizartean, bai erakunde publikoetan. Gizartearen eta erakundearen arreta areagotu egin da, eta gaur egun hainbat politiketan agertzen da lehen sektorearen eta gazteen arteko lotura indartzea. Gobernu mailan, hainbat estrategietan belaunaldi-txandaketa bultzatzeko ekimenak azpimarratzen ari dira, hau da, lehen sektoreko langile gazteak beharrezkoak direla aitortzen da, sektorearen iraunkortasuna eta etorkizuna bermatzeko.

Izan ere, azken urteotan ikusi da, lehen sektoreak, bereziki familia nekazaritzak, landa-eremuetan bizi den biztanleriaren zati garrantzitsua eta gizartearen elikaduraren oinarria osatzen dutela, baina aldi berean sektorea kudeatzeko zailtasunak eta belaunaldi-txandaketan izandako hutsuneak agerian utzi dituzte. Gaur egun, sektorearen etorkizunak gazteen ekarpena behar du, eta hori nabaritzen da politika publikoetan, zeinetan gazteak lehen sektorean lan egitea sustatzen duten planak eta laguntzak jasotzen dituzten.

Proiektu honek helburu du, gazteen eta lehen sektorearen arteko zubiak eraikitzea eta sektorean interesa duten gazteekin elkarlanean aritzea, baina baita ere erakunde publikoek sektore honi ematen dioten laguntza eta baliabideak aztertzea eta horien eragina baloratzea. Gaur egun, landa eremuen eta hiriguneen arteko desoreka gero eta handiagoa da, eta lehen sektoreko gazteen egoera eta aukerak hobeto ezagutzea ezinbestekoa da. Horregatik, helburu nagusia gazteen parte-hartzea sustatzea eta lehen sektoreari buruzko politiken inguruan intzidentzia politikoa egitea izan da.

Datuetan oinarrituta, 2021eko Euskal Nekazaritzako Inkestako datuek argi erakusten dute lehen sektorean lan egiten dutenen % 20 baino gutxiago direla gazteak, eta horrek alarman jartzen du sektorearen etorkizuna.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapeneko Estrategiak aipatzen du gazteen sarrera eta egonkortasun falta lehen sektorean lurraldean erronka nagusietako bat dela. Gainera, azken aldian, lehen sektorea eta gazteen sarrera indartzeko ekimenak eta aliantzak gero eta gehiago izango direla erakusten duen adibide argi bat izan da, 2025eko urtarilaren 30ean, Elorrión sinatutako hitzarmen berria. Hitzarmen horren bidez, Unión de Pequeños Agricultores y Ganaderos (UPA) eta Euskal Nekazarien Batasuna (ENBA) elkarrekin arituko dira, lehen

sektorearen familia-nekazaritzaren eta gazteen sarreraren aldeko ekimenak bultzatuz, erakunde publikoek belaunaldi aldaketaren inguruan gero eta arreta handiagoa jartzen duten testuinguruan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteek lehen sektorea ezagutu eta horretan lan egiteko aukerak aztertzea, baita sektorean dauden eragileekin lankidetzan jardutea, gazteen parte-hartzea sustatzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lehen sektorean lan egiten duten gazteen egoera eta aukerak aztertzea.
- Lehen sektorean lan egiteko politikak, laguntzak eta baliabideak ezagutzea.
- Gazteen eta eragileen artean elkartrukeak sustatzea.
- Genero ikuspegia lantzea.
- Belaunaldi-txandaketa sustatzea.

Garapena

2025eko lehen sei hilekoan, **Gazteak eta lehen sektorea** proiektuaren garapena hainbat bilera, jardunaldi eta ekintza komunikatiboren bidez bideratu zen. Otsailaren 10ean, Enplegu teknikaria CRAFek (Foro Rural Mundial) deitutako bilera batean izan zen, non lehen sektorea eta nekazaritzari lotutako entitate nagusiek parte hartu zuten, hala nola ENBA, EHNE eta HAZI, besteak beste. Bertan, 2025ean egingo ziren ekintzak koordinatzeko aukera aztertu zen, eta gazteen parte-hartzea eta belaunaldi-txandaketa indartzeko beharra nabarmendu zen.

Martxoaren 17an, HAZI eta EGK-ko Enplegu teknikaria koordinazio bileran elkartu ziren, bi erakundeen arteko harremana sendotzeko eta etorkizunean elkarrekin egin zitezkeen ekintzak aztertzeko. Bileran horretan, HAZI-k Nirea proiektua azaldu zuen, eta HAZI Euskadik Enplegu teknikaria HAZI Arabarekin harremanetan jarri zuen, Gasteizen ekintzaren bat antolatzeko aukera aztertzeko. Apirilaren 7an, HAZI Araba eta EGK-ko ordezkariak bildu ziren ekintza bateratu bat aurrera eramateko asmoz, baina HAZI Arabak hainbat ekarpen egin zizkion proposamenari eta zalantza batzuk sortu ziren ekintza nola gauzatu erabakitzeko.

Maiatzaren 7an, Enplegu teknikariak Behatuzek antolatutako "Lurralde kohesioa eta belaunaldi arteko elkartasuna landa garapenari begira" jardunaldian parte hartu zuen, lehen sektoreko gazteen egoera eta erronkak beste eragileekin partekatzeko eta ezagutza trukatzuz. Ondoren barne koordinazio bilerak egin ziren Enplegu teknikaria eta Presidentziaren artean, proiektuari egindako ekarpenak kontuan hartuta, ekintzen diseinua birmoldatzeko.



Bestalde, lehen sei hilekoan zehar, bi publikazio partekatu ziren EGKren Instagram bidez: bata, Rural Youth Europe erakundearen galdetegia, landa-eremuko politika eta gazteriaren ingurukoa (landa-politikak eta gazteria gaiari buruzko inkesta), eta bestea, CRAFek egindako publikazioa, non Euskadiko eta gazteen datuak uztartuz, gazteek ustategietan duten presentzia aztertu zen. Ekintza hauen bidez, gazteen eta lehen sektorearen arteko zubiak eraikitzen eta sektorearen etorkizunerako gazteen parte-hartzea sustatzen lagundu zen.

2025eko bigarren sei hilekoan, **"Gazteak eta lehen sektorea"** proiektuak jarraipena izan zuen, harreman-sareak zabaltzeko, sektoreko eragileekin loturak sendotzeko eta gazteen ikusgarritasuna handitzeko helburuekin. Lehen sei hilekoan hasitako lan-ildoari jarraituz, hainbat bilera, topaketa eta sentsibilizazio ekintza gauzatu ziren.

Ekainaren hasieran, Lurrikaraba proiektuko ardunadurarekin bilera egin zuten Enplegu teknikariak eta Presidentziak. Topaketa horretan beraien lan-ildoak eta landa-eremuko gazteen egoeraren inguruko ikuspegia ezagutzeaz gain, EGKren jarduna aurkeztu zen. Sinergiak sortzeko aukerak landu eta Arabako gazteriaren errealitatean sakontzeko balio izan zuen.

Uztailan, sektoreko bi eragile garrantzitsuekin hartu-emana izan zen: EHNE eta ENBA sindikatuekin koordinazio bilerak egin ziren, gazteen egoerari buruzko

diagnosi bateratua egiteko asmoz. Bi bileretan gazteentzako aukerak, zailtasunak eta belaunaldi-erreleboaren erronkak jorratu ziren, etorkizuneko elkarlan aukerak identifikatuz.

Hilabete berean, EGK-ko Enplegu teknikaria lehen sektorean erreleboa sustatzeko tresnei buruzko udako ikastaro batean parte hartu zuen. Jardunaldi horretan tresna praktikoa ezberdinak aurkeztu ziren, eta gaur egun programa horiek baliatzen ari diren baserriarren esperientziak entzun ziren, belaunaldi-txandaketa errealearen adibide gisa.

Sentsibilizazio kanpaina: “Erreleborik gabe, ez dago landa-etorkizunik” gauzatu zen. Urte amaieran, proiektuaren ekintza nagusietako bat izan zen sentsibilizazio kanpaina. Hasieran CRAFek aipatutako beharretatik abiatu eta EGK-k gizartean ikusgarritasuna eta kontzientziario maila handitzeko diseinatu zuen. Kanpainaren mezu nagusia hauxe izan zen: “Lehen sektoreak ez du soilik Euskadi elikatzen: bizirik mantentzen du. Landa-eremuko gazteek eusten diote. Baina laguntza gehiago behar dute.

Kanpainaren tonua aldarrikatzailea, emozionala eta komunitarioa izan zen, gazteen ahotsa lehen pertsonan jarri eta beren lana balioan jartzeko asmoz. Diseinuan baserri inguruaren irudiak erabili ziren, ikus-entzunezko formatuan eta sare sozialetarako pentsatutako mezu laburrekin: “Erreleborik gabe, ez dago landa-etorkizunik.”

Kanpaina hau EGKren sare sozialen bidez partekatu zen, eta gazteek lehen sektorean duten balio soziala eta estrategikoa azpimarratu zituen. Mezu bisualen eta eduki instituzionalen konbinazioak komunitate-sentimendua eta gizarte-erantzukizunaren dimentsioa indartu zituen.

Ebaluazioa

- Entitate ezberdinekin harremanak sendotu dira (CRAF, Lurrikaraba, EHNE eta ENBA), eta horri esker lehen sektoreko gazteen egoerari buruzko analisi kualitatiboago bat egitea lortu da.
- Bilera eta topaketa horietan gazteen behar eta erronkei buruzko ikuspegi praktikoa jaso da, etorkizuneko elkarlan aukerak identifikatuz.
- Udako ikastaroan parte hartzeak aukera eman du erreleboa sustatzeko tresnak ezagutzeko eta gaur egun praktikan dauden esperientzien berri izateko.
- Sentsibilizazio kanpaina modu eraginkorrean garatu da, mezua gizartean zabaltzeko eta gazteek lehen sektorean duten balioa azpimarratzeko.

- Kanpainaren ikus-entzunezko baliabideek eta sare sozialen bidezko zabalkundeak eragin positiboa izan dute proiektuaren ikusgarritasunean.
- Aurrera begira, lortutako sareak mantentzea eta gazteentzako politika eta baliabideei buruzko jarraipen-lana sendotzea proposatzen da.

2.5 Nazioarteko egunak: maiatzak 1 eta urriak 7

EGK-k bere diskurtsoa gizarteratzeko eta aldarrikapenak zabaltzeko urtean zehar ematen diren nazioarteko egunez baliatzen da. 2025 urtean egutegia osatzen jarraituko du eta data esanguratsuetan dagokion manifestua eta komunikazio kanpaina eraman ditu aurrera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

2025 urtean zehar enpleguarekin zerikusia duten **nazioarteko egunak** markatzea eta egun horietaz baliatu EGKren manifestu edo diskurtsoa plazaratzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Nazioarteko egunean garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGKn partaidetza bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.
- Gazteriarekin zein gaiarekin harremana daukaten elkarte ezberdinekin kontaktuan jartzea beharraren arabera.

Garapena

Lehenik eta behin, Enplegu teknikaria hainbat gazterekin harremanetan jarri da euren lan-egoerari eta pertzepzioei buruzko informazioa jasotzeko. Gazteen artean lan-prekaritateari, kontratuen ezegonkortasunari eta soldata eskasei buruzko kezkak nabarmendu dira jasotako testigantzak aztertuta, besteak beste, gazte askok hilero soldata bera ez jasotzea, bi lanpostu izatera behartuta

egotea, kontratuen berritzean ziurgabetasuna izatea, lanaldi partzialak eta emantzipaziorako zailtasunak izatea.

Egoera hauen berri emateko eta aldarrikapena indartzeko, WhatsApp bidezko konbertsazio baten formatua duen bideo bat sortu da eta bideoan gazteek lan-eskubideen urraketak salatzen dituzte, adibidez, aldi baterako kontratuak azken unean edo berritzen ez direnak, emantzipatzeko ere justu-justu iristen den soldata, lanaldi partzialak eta erdi eraikitako bizitzak.

Bideoa eta mezua EGKren sare sozialetan, webgunean eta elkarte ezberdinen artean zabaldu ziren. Helburua gazteen artean kontzientzia piztea eta gizartean eragin positiboa lortzea izan da, gainera, EGK-k harremanak estutu ditu gazteekin eta enpleguaren inguruko elkarteekin elkarlana eta parte-hartzea sustatzeko urte erdian zehar egindako lanari esker. EGK-k gazteen lan-eskubideen aldeko diskurtsoa indartu du **eta nazioarteko egunak** aprobetxatu ditu aldarrikapenak gizarteratzeko komunikazio kanpainaren bidez gazteen ahotsa entzunarazi da eta prekaritatearen aurkako borroka agerian jarri da.



Beste helburu nagusietako bat gazteen lan eskubideen aldeko aldarrikapena egitea zen. Horregatik, urriaren 7an, Lan Egokiaren Nazioarteko Eguna dela eta, triptiko berezi bat argitaratu nahi izan zen. Ekimen honen bidez, gazteek lan arloan dituzten kezkei erantzuteaz gain, lan baldintza duinak aldarrikatu eta, aldi berean, intzidentzia politikoa egin, gizartean eta eragile politikoen artean gai honen garrantzia azpimarratzeko.

Urteko lehen seihilekoan hasitako lanari jarraipena eman zitzaion: triptikoaren edukiaren diseinua, informazioaren egituraketa eta mezuaren fokua zehaztu ziren, gazteen testigantzak eta lan-prekarietatearen errealitatea oinarri hartuta. Bigarren seihilekoan, urrats praktiko eta ikusgarriak eman ziren komunikazio proiektu honen garapenean.

Lehenik eta behin, triptikoaren diseinua eta maketazioa egin ziren gazte diseinatzaile baten eskutik, EGKren irudi korporatiboarekin eta gazte publikoari egokitutako estilo bisualarekin bat etorritz. Edukia eta diseinua uztartu ziren dokumentu erakargarri, ulerterraza eta informazioz betea sortzeko.

Bigarrenik, edukia egituratu zen bi praktika moten arteko konparaketa argia eginez: formakuntza duala eta praktikaldi arrunta. Triptikoan bi modalitateen oinarritzko alderdiak (ordainsaria, lanaldia, atsedenaldia, gizarte segurantzaz, segurtasuna eta hezkuntzarekin bateragarritasuna) modu zehatzean deskribatu ziren. Helburua ikasle eta gazte langileei euren eskubideak ezagutaraztea eta praktiken kalitatearen garrantzia azpimarratzea izan zen.

Lan-prozesu honetan, eduki juridikoa eta informazio teknikoa kontrastatu ziren hezkuntza- eta lan-eremuko lege testuekin, zehaztasuna eta egiazkotasuna bermatzeko. Aldi berean, gazteen testigantzetatik jasotako esperientzia eta kezka nagusiak txertatu ziren, ikuspegi hurbila emateko.

Euskaraz eta gaztelaniaz sortutako triptiko hau zabalkunde zabaleko ekintzen bidez plazaratu zen: sare sozialetan, EGKren webgunean eta Euskadiko hiru lurraldeetako unibertsitateetan jarri zen informazio guneetan. Zabalkunde lan horren bidez, milaka gaztek izan zuten euren praktikaren egoera eta eskubideei buruzko informazioa jasotzeko aukera, eta EGK-k gazteen artean lan-prekarietatearen aurkako mezua hedatzeko espazio berriak lortu zituen.



Helburu nagusia, gazteen lan-baldintzen inguruan hausnarketa soziala sustatzea izan zen, baita lan duinaren aldeko aldarria berriz ere agerian jartzea ere. Urriaren 7ko kanpainaren bidez, gazteek pairatzen duten lan egoera normalizatu behar ez den egoera gisa aurkeztu zen, baita aldaketarako abiapuntu gisa. Laburbilduz, ekimen honek EGKren helburu estrategikoak indartu ditu: gazteen lan-eskubideak defendatzea, lan duinaren kultura zabaltzea eta lan-prekarietatearen aurkako gizarte eztabaida sustatzea.

Ebaluazioa

- Proiektuaren garapenean nazioarteko egunek erreferentzia gisa balio izan dute, EGKren diskurtsoa eta aldarrikapenak testuinguru egokietan zabaltzeko tresna modura erabilita.
- Gazteen testigantzak jasoz, lan-prekarietatearen egoeraren inguruko ikuspegi kualitatiboa lortu da: kontratuen ezegonkortasuna, lanaldi partzialak eta emantzipazioarako zailtasunak agerian geratu dira.
- Whats App elkarrizketa-formatua duen bideoa komunikazio eraginkorra izan da gazteengana hurbiltzeko eta lan-eskubideen urraketari buruzko mezua modu hurbilean zabaltzeko.
- Bideoaren zabalkundeak –sare sozialen, webgunearen eta elkarte ezberdinen bitartez– gazteriaren artean eztabaida eta parte-hartzea sustatu ditu.
- “Lan Egokiaren Nazioarteko Eguna” dela eta, triptiko berezi baten sorrera estrategia komunikatibo egokia izan da, lan duinaren kontzeptua indartzeko eta enplegu-arazoak ikusgai egiteko. Formakuntza dualaren eta praktikaldien arteko konparaketa argiak balio handia izan du gazteentzat informazio praktikoa emateko eta eskubideei buruzko ezagutza zabaltzeko.
- Kanpainaren mezu nagusiak –lan duinaren aldeko aldarria eta prekarietatearen salaketa– gazteen artean aktibismo soziala eta kontzientzia kritikoa piztu ditu.
- Lan honen bidez, EGKren helburu estrategikoak indartu dira: gazteen lan-eskubideen defentsa, lan duinaren kultura zabaltzea eta lan-prekarietatearen aurkako gizarte-eztabaida sustatzea.

2.6 Etxebizitza eta enpleguaren gazte behatokia. Gazte Foku: etxebizitza eta enplegua

Arestian ere aipatu den legez, Gazteen Euskal Behatokiak berriki argitaratu du 18 eta 29 urte arteko gazteen ustez lan-merkatuari (% 63) edo etxebizitzari loturikoak (% 36) direla Euskadiko arazo nagusiak. Egunkari eta eztabaida publikoetan ere antzematen da hori: nonahiko dira etxebizitzari, emantzipazioari eta gisakoei loturikoak.

Testuinguru horretan, Enplegu eta Etxebizitza teknikarien arteko lankidetzaren bidez, **Gazte Foku** izeneko espazio berria sortu da. Espazio honen lan nagusia bi ardatz nagusitan oinarritu da: batetik, enplegu eta etxebizitzaren gaien gaurkotasunaren jarraipen zorrotza egitea eta, bestetik, politika publikoetan eragiteko intzidentzia politikorako estrategiak diseinatzea.

Gaurkotasunaren jarraipenari dagokionez, behatoki ezberdinek xedatutako datuak biltzeaz gain, jendartean eta instituzioetan sortzen diren eztabaiden jarraipena ere egin da horiekiko EGK-k duen kokapena zehaztuta. Halaber, beharrezko formakuntzak ere jaso dira. Horrekin, bada, intzidentzia publiko eta politikorako estrategiak diseinatu ahal izango dira: xede nagusitzat gazteen lan- eta bizi-baldintzak hobetzea izango duen lerro indartsu bat osatuta.

Azken horretarako, gazteen parte-hartzea sustatuko duten ekimenak gauzatzea ezinbesteko izan da: besteak beste, komunikazio-kanpaina ezberdinen bidez. Honekin, egoera sozial, ekonomiko eta politikoari buruzko informazioa zabalduko da.

Proiektu hau Presidentzia, Etxebizitza eta Enplegu arloen artean landu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen enplegu eta etxebizitza arloko egoera aztertzea, ezagutza partekatzea eta politika publikoetan eragiteko estrategiak garatzea, gazteen bizi-baldintzak hobetzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egungo egoerari buruzko informazio berria jasotzea, aktualitatearen jarraipena egiteko.
- Politika publikoetan eragiteko proposamenak garatzea.
- Gazteen enplegu eta etxebizitza datuen eguneraketa eta analisia egitea.
- Kanpaina komunikatiboak egitea, gazteen egoera zabaltzeko.
- Formakuntza saioak jasotzea, egungo egoera hobeto ulertu eta eraginkorrago jarduteko.

Garapena

2025ean egin den lana oinarri sendoa izan da **Gazte Foku** espazio berria martxan jartzeko. Aktualitatearen jarraipena, datuen eguneratzea, koordinazioa eta formakuntza lanak uztartuz, aurrerantzean gazteen enplegu eta etxebizitza egoera hobetzeko estrategiak diseinatzeko oinarriak finkatu ahal izan dira.

Aktualitatearen jarraipenari dagokionez, Enplegu eta Etxebizitza teknikariek gazteen enplegu eta etxebizitzari lotutako berri garrantzitsuenen erregistroa egin dute. Excel formatua erabilia, datu

eta informazioak era egoki eta antolatuan bildu dira. Honekin, bermatu egin da informazioa eguneratuta eta eskuragarri izatea.

Datuen eguneratzeari dagokionez, Enplegu eta Etxebizitza teknikariek aztertu egin dituzte Gazteen Euskal Behatokiak eta bestelako erakundeek (Eustat, Etxebizitzaren Euskal Behatokia) argitaratutako datuak, eta EGK-k datuen bilketarako zituen dokumentuak eguneratu eta antolatu dira. Halaber, Gazteen Euskal Behatokiarekin harremana ere izan du EGK-k, datu bilketa eta analisiari dagokionez iradokizunak egin eta elkarlana sustatuta.

Politika publikoetan zein jendartean eragiteari dagokionez, hainbat espaziotan hartu du parte EGK-k.

- Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroaren *Lankidetzeta eta finantzaketa publiko-pribatuko ereduaren berrikuntza* lantaldean parte hartu da.
- Euskadiko Kooperatiben Kontseiluak antolatutako lan saioetan parte hartu dute Etxebizitza eta Enplegu teknikariak. Guztira 3 lan saio izan dira eta eta bakoitzean honelako gaiak aztertu dira: *Biztanleriaren zahartzea, Migrazioa eta Aniztasuna, Talentuaren eskasia, Balio Sozial berriak, Energia eta azkenik Etxebizitza*, gai guztiak noski kooperatibismoaren baitan aztertuta. Halaber, urriaren 1ean ospatutako itxiera saioan ere izan ziren Enplegu eta Etxebizitza teknikariak.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak antolatutako *Etxebizitzaren erronka: konponbideak eraikitzen ikuspegi multidimentsionaletik* jardunaldian parte hartu zen ekainaren 2an.
- Koobizitzak antolatutako *Gazteak, kooperatibak eta emantzipazioa* jardunaldian parte hartu zen ekainaren 5ean.
- NovaGob eta COTEC fundazioek antolatutako *Labvivienda* Etxebizitzarako berrikuntza laborategian parte hartu zen ekainaren 12an.
- UrbanBat kooperatibak antolatutako [*Nien tu casa, ni en la mía*](#) podcast saioan parte hartu zen ekainaren 27an.
- Irailaren 9an Eusko Legebiltzarrean izan ziren EGK-ko Presidenteak eta Etxebizitza teknikaria, Premiazko Neurriei buruzko Legearen inguruan adierazpenak egiteko.
- Azaroaren 19an, Eusko Jaurlaritzak sustatutako *House Action* kongresuan izan zen Etxebizitza teknikaria.
- Enpleguaren Kongresua: EGK-k aktiboki parte hartu zuen Enpleguaren VIII. Kongresuan. Jardunaldien testuinguruan, erakundearen presidentziak itxierako mahai-inguruan esku

hartu zuen, gazteen enpleguari lotutako kezka nagusiak mahai-gainean jarritz. Horrekin batera, gazteen lan-baldintzak hobetzeko eta lan-merkatuan dituzten erronkei modu eraginkorrarekin erantzuteko proposamen zehatzak aurkeztu zituen. Kongresu honetan izandako parte-hartzeak aukera eman zuen gazteen ahotsa eta ikuspegia politiken diseinuan eta enpleguaren etorkizunari buruzko eztabaidan kokatzeko.

- Barakaldoko Enplegu planaren diseinua: azaroak 5 eta azaroak 26: Lehenengo saioan, Formatu presentzial eta gidatuan, udalerriko eta maila supralokalean lan egiten duten erakundeekin batera, planaren oinarri izango diren ildo estrategikoak lantzen hasi zen. Saioak parte-hartzaileen arteko lankidetzak eta harremanak indartzeko aukera ere eman zuen.

Bigarren saioan, berriz, aurreko saioan identifikatutako erronketan sakondu zen, taldeka egindako lanaren bidez. Saion zehar, bi erronka nagusiren inguruko jardura desberdinak burutu ziren: aurretik existitzen diren dinamikak mapatzea eta canvas kolaboratiboen bidez proposamenak garatzea. Amaieran, talde guztien ekarpenak partekatu eta emaitzen aurkezpen orokorra egin zen.

Koordinazio espazioei dagokienez, Enplegu, Etxebizitza eta Presidentziaren artean bilerak egin dira. Bilera horietan proiektuaren norabidea adostu eta egin beharreko lanak antolatu dira: intzidentzia eta parte-hartze espazioen jarraipena, kanpaina komunikatiboen diseinua, aktualitatearen jarraipena... Oro har, proiektuaren gainerako eginkizunen nondik norakoak koordinatu dira bileretan. Halaber, proiektuaren identifikazioan sakontzeko, Enplegu eta Etxebizitza arloak ezaugarritzen dituzten mapak osatu ziren, zeintzuetan arloko inguratzen dituzten auziak identifikatu ziren.

Kanpaina komunikatiboetarako dagokienez, Enplegu eta Etxebizitza teknikariek egingo diren kanpainetarako informazioa bildu eta planak diseinatu dituzte: zer eta nola komunikatu zehaztu da horrela. Materialak sortzeko ideiak landu dira eta informazioa zabaltzeko estrategiak zehaztu dira Presidentziarekin eta Koordinazio Teknikariarekin batera.

Formakuntzarako dagokienez, Enplegu eta Etxebizitza teknikariek hainbat hitzaldi eta jardunaldietan hartu dute parte.

- Otsailaren 5ean GAZek antolatutako *Etxebizitza librea erostea* hitzaldian izan zen Etxebizitza teknikaria.
- Apirilaren 3an GAZek antolatutako *Alokairurako laguntzak* hitzaldian izan zen Etxebizitza teknikaria.
- Apirilaren 7an GAZek antolatutako *Alokairua: zalantzak argitzen* hitzaldian izan zen Etxebizitza teknikaria.
- Apirilaren 29an GAZek antolatutako *Errenta aitortpenaren inguruko hitzaldia* saioan izan ziren Enplegu eta Etxebizitza teknikariak.
- Ekainak 13: DENBBORA sareak antolatutako *Gazteak eta enplegua. Norberaren denbora vs lan egiteko bizitza* jardunaldian egon zen Enplegu teknikaria.
- Irailaren 15ean Uda Ikastaroetako (UIK) *TopaGune Ikastaroa: Gazteen emantzipazioa hiru zutabe hauetatik abiatuta: etxebizitza, formakuntza eta lana* ikastaroan izan ziren Enplegu eta Etxebizitza teknikariak.
- Urriaren 14an GAZek antolatutako *GazteAval ezagutu* hitzaldian izan zen Etxebizitza teknikaria.



Intzidentzia politikorako elkarriketa eta bestelakoak ere baliatu dira. Hauexek izan dira etxebizitza eta enplegu gaien inguruan prentsan egindako agerpenak:

- Martxoak 23: El Diario Vascon *Es hora de actuar* artikulua idatzi zuen EGK-ko Presidenteak.
- Uztailak 2: EGK-ko presidenteak egindako Etxebizitzari buruzko Podcast.
- Urriak 24: EGK-ko presidenteak egindako elkarriketa Faktoria programan.

Ebaluazioa

- Gazteen enplegu eta etxebizitza arloko egoerari buruzko informazioa eguneratuta mantendu da.
- Jasotako datuen kopurua eta eguneratzea aurrera eraman da.
- Politika publikoetan intzidentzia politikoa izateko proposamenen diseinua egin da ondoren sare sozialetan zabaltzeko.
- Enplegu, Etxebizitza eta Presidentziaren arteko koordinazio espazioak sortu dira.

2.7 Harremanak eragileekin

Enpleguko alorrean eragile askok eta anitzek dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile guzti hauekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoekin, gazteen iritzia transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta Etxebizitza arloan lan egiten duten elkarteen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren ikuspuntu bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuek proiektuetan, horretarako, EGK erreferente bihurtuta.
- EGK-ko proiektuetan gazte berrien parte hartzea lortzea.
- EGK-ko elkarteen artean etxebizitza lantzen dutenekin harremana sendotzea.

Garapena

DEMA: Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko erakundea da, enpleguaren sustapena eta ekintzailatza bultzatzen dituen Bizkaian. Bereziki lan-munduan sartzeko aukerak eskaintzen ditu eta ekintzaileei laguntza ematen die. Elkartearen xede sozialaren esparruan programak, jarduerak eta ekitaldiak kudeatzen dituen foru agentziarekin harremana mantendu da, Sarekin ekintzailatza sarea sortzeko jardunaldien harira. Enplegu teknikariak modu aktiboan parte hartu zuen ekintzailatza sarea sortzeko aurrera eraman ziren jardunaldi zein ekitaldietan, baita Gazte Ekintzaileen jardunaldian parte hartu zuen DEMAK.

ELEGIN: Euskara planak eta itzulpengintza zerbitzua ematen duten bi neska gazte dira, hauekin, ekintzailatzako jardunaldietan harremana sortu zen 2023ko urtean eta gazte ekintzailatza proiektuan eman diren aurrerapausoetan eredugarriak izan dira. Ekintzaile bezala harremana mantentendu zen eta Gazte Ekintzaileen jardunaldian parte hartu zuen otsailaren 12an.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA: Bi erakundeen elkarlanarekin, Bilbao AS Fabrik-ek eta Mondragon Unibertsitateak berrikuntza eta ekintzailatza sustatzen dute, teknologia industrial eta start-up ekosistemaren garapena bultzatuz. Hau horrela izanik, gazte ekintzaileak jardunaldia aurrera eramateko entitate garrantzitsua izan zen eta hauekin harremana eman zen aipatutako ekintza aurrera eramateko. Honetaz gain, jardunaldiaren ondorio txostena diseinatu zuten eta horren harira EGK-k lan hitzarmena sinatu zuen Mondragon Unibertsitatearekin. Hau horrela izanik, aurrerantzean egin daitezkeen elkarlanerako bidea ireki zen.

CRAF (foro rural mundial): Foro Rural Mundial (FRM) nekazaritza familiarraren eta landa-garapenerako sare plural bat da, mundu osoko nekazari familiarren federazio eta erakundeek, landa-garapeneko erakundeek, kooperatibek eta ikerketa-zentroek osatua. Bere helburu nagusia nekazaritza familiarraren aldeko politika integratuak bultzatzea eta landa-eremuko bizitza jasangarria sustatzea da. Urte hasieran bilera bat egin zen lehen sektoreko entitate eta administrazioekin; EGK bertan egon da. Urtearen lehen sei hilekoan martxan jarri ziren kanpaineekin bat egin zen.

HAZI: HAZI Fundazioa Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakundea da, Euskadiko landa, itsas eta elikadura sektoreen lehiakortasuna, berrikuntza eta garapena sustatzeko lan egiten duena. Lehen sektorea hobeto ezagutzeko eta gazteek bertan duten eragina neurtzeko, entitate honekin harremana eman da.

ENBA: ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna) euskal nekazarien sindikatu nagusietako bat da, nekazarien interesak defendatzen dituen eta sektorearen garapena bultzatzen duena. Lehen sektorea hobeto ezagutzeko eta gazteek bertan duten eragina neurtzeko, entitate honekin harremana eman da.

EHNE: EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkarte) nekazarien sindikatua da, baserritarren eskubideak eta interesak defendatzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea helburu duena. Lehen sektorea hobeto ezagutzeko eta gazteek bertan duten eragina neurtzeko, entitate honekin harremana eman da.

LURRIKARA: Lurrikara gazte nekazarien eta landa-eremuko gazteen sarea da, belaunaldi-erreleboa eta landa-bizitzaren aldeko ekimenak bultzatzen dituen. Lehen sektorea hobeto ezagutzeko eta gazteek bertan duten eragina neurtzeko, entitate honekin harremana eman da.

LANTEGI BATUAK: Lantegi Batuak desgaitasuna duten pertsonentzako lan aukerak sortzen dituen erakunde soziala da, enplegu inklusiboa eta gizarteratzea helburu dituena. Inklusio planari buruzko jardunaldia antolatzeko eta honekiko izan ditzaketen ekarpenak egiteko koordinazio bilera egin zen.

EHLABE: Desgaitasunak dituzten gizarte- eta lan-txertatzea sustatzen duen irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Inklusio planari buruzko jardunaldia antolatzeko eta honekiko izan ditzaketen ekarpenak egiteko koordinazio bilera egin zen.

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA: Gazteen Euskal Behatokia Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakunde da, Euskadiko gazteriaren egoeraren, behar eta joeren azterketa eta jarraipena egiten duena. Gai ezberdinen inguruko datu eskaera eta inkesta bateko galderen diseinua aurrera eramane da.

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA: Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua Euskadiko kooperatiben ordezkari eta koordinaziorako organo gorena da, kooperatiben interesak defendatzea eta sektorearen garapena bultzatzea du helburu. Kooperatibak gai ezberdinen inguruan egiten duten hausnarketarako eremuetan parte hartzeko egin da harremana eta 4 lan saioetan parte hartu zen. Honetaz gain, Koop2040 ekimenari dagokionez, itxiera saioan parte hartu zen. Gazteen ekintzailatza kooperatiboaren garapenean eta etorkizuneko erronken inguruko gogoeta sakona eginez harremanak sendotu ziren.

AGINTZARI: Agintzari gizarte-zerbitzuen kooperatiba bat da, gizarte-berrikuntza, hezkuntza eta gizarteratze proiektuak garatzen dituena, kolektibo zaurgarrienekin lan eginez. Emantzipazioa eta ongizate emozionalaren inguruko lan saiorako psikologoaren kontratazioa aurrera eramateko eman da harremana.

BM30: Bilbao Metropoli 30 irabazi-asmorik gabeko elkarte publiko-pribatua da, 1991n sortua, Bilboko metropolialdearen etorkizunari buruzko hausnarketa egiten duena. Gaur egun, 140 erakunde publiko, enpresa, unibertsitate, zentro teknologiko, hezkuntza zentro eta gizarte erakunde baino gehiago dira elkarrearen bazkideak, eta metropoliaren hainbat sektore ordezkatzeko dituzte. EGK-k egin diren 3 lan saio eta ondorio saioan parte hartu du, gazteek etorkizuneko erronka eta ekarpenei buruzko iritziak jaso eta partekatzeko.

Enpleguaren VIII. Kongresua: EGK-k enpleguaren kongresuan parte hartu zuen, eta, horrez gain, itxierako mahai-inguruan presidentziak aktiboki parte hartu zuen, gazteen enpleguaren gaineko kezkak plazaratuz eta proposamenak aurkeztuz.

INGURALDE eta URBEGI: EGK-ko enplegu teknikariak Barakaldoko enplegu planaren diseinuan parte hartu zuen, horretarako Urbegi eta Inguralderekin harremana sendotu zen eta aurrerago egin dezaketen lan saioetan parte hartzeko aukera aurkeztu zen. Gazteen enplegu eta lan-aukeren sustapenerako ekarpena egin da.

GAZTE KOOPERATIBISTAK : EGK-k gazte kooperatibistekin harremana egin zuen, eta beraien lehen topaketaren zabalpena egiten lagundu zien. Kooperatiben berrikuntza eta belaunaldi gaztearen parte-hartzearen sustapena azpimarratu zen.

EKKIN: EKKIN etorkizuna eraikitzeko inspirazio eta lankidetzaren gunea da, berrikuntza eta ekintzailatza aurreratua bultzatuz. Bertan, hainbat eragile eta gazte elkarlanean aritzen dira, ekintzailatza aurreratua sustatu eta belaunaldi berrien talentua garatzeko asmoz. EGK eta EKKIN-en arteko harremana estua izan da azken urtean, jardunaldia antolatu aurretik koordinazio bilerak egiteaz gain, jardunaldiko mahai-inguruan parte hartuko zuten gazteekin ere aurrez bildu ziren, bakoitzari dagokion papera argi uzteko eta ekarpenen norabidea adosteko. Jardunaldiaren egunean, EGK-k gazteen iritzia plazaratu zuen, eta mahai-inguruan parte hartu zuten gainontzeko gazteekin batera, gazteen gaur egungo errealitatea aztertu eta eztabaidatu zen.

LEINN ikasleak: LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) Mondragon Unibertsitateko gradu ofiziala da, ekintzailatza praktikoan eta lidergoan oinarrituta, ikaskuntza esperimental eta taldean eginaren sustatzen duena. LEINN ikasleekin EGK-ko enplegu teknikariak aholkularitza zerbitzua eskaini zien azken urtean, eta ekintzailatzako proiektua aurrera eramateko beharrezko laguntza eman zitzaientzen, hala nola, proiektuaren diseinua, baliabideen bilaketa eta ekimen berrien prestakuntza.

DUARA: Moda industriaren berrikuntza agentzia jasagarria da, eta industria zirkular baten alde lan egiten du. Taldeak helburu argi bat du: industriaren berrikuntza lideratu eta testil sektoreko ingurumen-inpaktua murriztea, ekonomia zirkularren eta sormenaren bidez. Horretarako, berrerabilera, upcycling eta jasagarritasun proiektuak garatzen dituzte, belaunaldi berriak eta sektoreko profesional gazteak inplikaturik. LEINN ikasleekin egin den bezala, aholkularitza zerbitzua eskaini zen eta bertan lehendabiziko harremana eman zen.

Ebaluazioa

- Urte honetan zehar, eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin hainbat bilera eta koordinazio saio egin dira, sektore estrategikoetakoak zein berrikuntza eta ekintzailetzarekin lotutakoak barne. EGK-k, besteak beste, foru agentziak, unibertsitateak, sindikatuak, elkarteak, enpresa-eragileak eta ekintzaile gazteen sareak bildu ditu.
- Kontaktuen kopurua nabarmen handitu da, harreman berriak sendotuz eta ekintzailetza eta enpleguaren alorrean lankidetzaren sare zabala eraikiz.
- EGK bera, jardunaldietan, lan-saioetan nahiz koordinazio bileretan etengabe parte hartuz, eragile ezagun horien artean erreferente gisa azaldu da, bere ekarpenak eta gazte ikuspegia mahai gainean jarritz.
- Harremanetarako estrategia selektiboa ezarri da, proiektu zehatzekin bat datorren eragile sortzaile, berritzaile eta gazteekin lehentasuna emanez.
- Bileretan eta jardun saioetan, gazteen inguruko informazioa, erronkak eta proposamenak elkarbanatzeaz gain, elkarlanaren eta babes instituzionalaren aldeko giroa lortu da.<
- Ekintzailetzako proiektu berriak sortzen eta zabaltzen lagundu du eragile horiekin izandako harremanak, sareko lan-ildo berriak eta transferentzia dinamikak bultzatu baitira.
- Azkenik, EGK-k ezagutzera ematea eta parte-hartzaile aktibo moduan jardutea lortu du, gazteek protagonismoa eta ekimena har dezaten eragile nagusien artean.

3. HEZKUNTZA



3.1. HEZKUNTZA FORMALA

3.1.1 Gelatik At – Hezkuntza Komunitatea

Gelatik At - hezkuntza komunitatea eskola osatzen duten eragile guztien arteko hausnarketan, elkarriketan eta parte hartze aktiboan oinarritutako gunea da. EGKren proposamenak, ekarpenak eta diskurtsoa garatzen lagunduko duten ikasle elkarteekin, kontseiluetako ordezkariekin eta maila indibidualean parte hartzen duten ikasle gazteekin partekatzen den eztabaidarako foro bat da. Bertan, hezkuntza arloko gaiak elkarlanean lantzen dira, adostasunetan oinarritutako proposamenak eginez eta hezkuntzaren inguruko proiektu eta dinamika zehatzak garatuz.

2025ean, **Gelatik At** hiru atal nagusitan egituratu dago:

Eskola segregazioa: ardatz nagusietakoa bilakatu da. Humanitate arloko ikasle eta gazte profesionalekin egin dira lehenengo lan-saioak, eskola segregazioaren inguruko ikuspegi gaztea jaso eta aztertzeko. Ikertzaileekin kontrasteak egin dira, eta uda aurretik aurreikusia dago euskal filologiako ikasle eta profesionalekin beste saio bat egitea, baita batxilergoko ikasleekin ere. Prozesu hau amaitzeko, infografia handi bat sortuko da eta EAEko hainbat ikastetxetara bidaliko da. Horrez gain, aurreko ikasturtean grabatutako dokumental labur bat ere argitaratuko da.

Bilbo, unibertsitate-hiria: Bilboko unibertsitateko gazteen bizi baldintzen inguruko ekimena da, ikasleen ikuspegitik hiria nolakoa izan beharko litzatekeen proposatzeko helburuarekin. Proiektuaren kontrastea Global Shoppers Bilbao eta Bilboko Udaleko proiektu estrategikoen sailarekin egin da. Inkesta irailean kaleratuko da, eta erantzun esanguratsuen lagin bat jasotzean,

hiru HUB egingo dira Bilboko unibertsitate nagusietan. Horrez gain, Deustuko auzoan formatu informaleko topaketa irekia egingo da ikasleekin datuen inguruko kontrastea egiteko eta ikuspegi osagarriak jasotzeko. Prozesu osoa txosten batean jasoko da.

Ikasle Kontseiluen Plataforma: aurten ez da aurrera eraman ikasleen talde eta ikuspegi desberdinengatik, baina Hezkuntza arlotik informazioa errazten jarraitu da interes komunekeo edukiak ikasleen eskura jartzeko helburuarekin.

Esparru honetan, zenbait talderekin harremanak eta elkarlanak sendotu dira, helburu izanik hezkuntza arloko administrazioari proposamen zehatzak helaraztea, bai eta gazteen eta, bereziki, ikasleen egoeraren berri ematea eta egungo neurri zein araudietan hobekuntzak proposatzea ere. Aurtengo lan ildoetako bat izan da ikaslea subjektu gisa eta hezkuntza komunitateko agente aktibo gisa ulertua izatea. Horretarako, ikasleen eskubideak eta ahotsa partekatzeko dinamika zehatzak jarri dira martxan. Era berean, aholkularitza jarraitua eskaini da hezkuntza formalaren aspektutik, EGKren bidez jasotako galderei erantzuna emanez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Ikasleen kezka eta beharrak proiektu zehatzen bitartez lantzea, hezkuntza formaleko instituzio eta arduradunei ondorio eta proposamenak helaraziz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkuntza formaleko elkarte eta eragileekin eztabaida guneak koordinatzea, ikasleen ikuspegia jasotzeko eta eztabaida pedagogikoa sustatzeko. Foro hauen bitartez, elkarlaneko prozesuak bultzatu dira, ikasleen parte-hartzea aktiboa izanik.
- Ikasleen arazoak eta kezkak jaso eta foroaren eztabaiden bitartez proposamen eta ekimen zehatzak bideratzea, gazteen errealitatea erdigunean jarritz eta haien ahotsa eragiteko tresna bihurtuz.
- Hezkuntza formalaren baitan dauden neurri zein araudiei ekarpenak egitea, bereziki ikasleengan eragin zuzena duten politiketan, haien esperientzian oinarritutako hobekuntza proposamenak landuz.
- Bitartekari lana burutzea ikasleen eta hezkuntza arloko instituzioen artean, gazteen beharrak eta ekarpenak entzunak eta kontuan hartuak izan daitezen bermatzeko.

- Euskara ardatz duen hezkuntza sistema babestea eta aldarrikatzea, hezkuntza maila guztietan euskaraz ikasteko eskubidea defendatuz eta egoeraren azterketa eta hobekuntza proposamenak sustatuz.
- Eskola segregazioari aurre egiteko proposamenak egitea, ikuspegi gazte eta profesionalak uztartuz, errealitatearen azterketa sakona eginez eta ikastetxeetara helarazteko baliabide eta materialak sortuz.

Garapena

2025ean **Gelatik At** proiektua metodologia parte-hartzaile eta eraldatzailean oinarritu zen. Ikasleen ahotsa, ekarpenak eta ikuspegia prozesuaren erdigunean jarri ziren, eta hausnarketa kolektiboaren bidez hezkuntza sistemaren hainbat arlo lantzeko topaguneak sortu ziren. Proiektua hiru ataletan banatu bazen ere, aurten ez ziren guztiak maila berean gauzatu. Hori horrela, aurrerago azaldu dira atal bakoitzaren garapena eta egoera.

Eskola segregazioa: ikuspegi gazte eta profesionaletik:

Urteko ardatz nagusietako bat izan da eskola-segregazioari buruzko lana. Helburua izan da ikasle gazteen eta hezkuntza arloko profesional gazteen ikuspegitik fenomeno hau aztertzea eta alternatibak proposatzea. Horretarako, zenbait saio antolatu ziren:

- Lehenengo fasean, humanitate arloko ikasle eta profesionalekin saioak egin ziren. Bertan, hezkuntza formalean lanean ari ziren gazteek eta ikasleek eskola-segregazioaren eraginaz eta jatorriaz hausnartu zuten ikuspegi kritiko batetik.
- Saio hauek gaian adituak diren ikerlariekin kontrastatu zen, esperientzia akademikoa eta testuinguru profesionala uztartuz.
- Ondorengo hilabeteetan, euskal filologiako ikasle eta profesional gazteekin beste lan-saio bat antolatu zen, eta batxilergoko ikasleekin kontraste-saio ireki bat egin zen, aniztasun eta errealitate desberdinak jaso ahal izateko.

• Prozesu honek infografia handi bat sortzearekin amaitu zuen, EAEko hainbat ikastetxetara bidali zena hausnarketa eta ikusgarritasuna sustatzeko. Horrez gain, aurreko ikasturtean grabatutako dokumental labur bat ere argitaratu zen material osagarri gisa.



Bilbo, unibertsitate-hiria: gazteek hiria irudikatzen:

Bigarren atalean, Bilboko unibertsitateko gazteen bizi-baldintzen inguruko azterketa jarri zen abian. Proiektu honek hiru fase izan zituen:

- Lehenik eta behin, ikasleen ikuspegitik sortutako galdetegi bat prestatu zen. Bertan, hirian bizi zuten errealitatea, eguneroko erronkak eta nahi zituzten aldaketak jasota ziren.
- Inkesta hau Global Shapers Bilbao eta Bilboko Udaleko Proiektu Estrategikoen Sailarekin kontrastatu zen, eta abenduan zabaldu zen.
- Behin erantzun esanguratsuak jasota, hiru HUB egin ziren Bilboko unibertsitate nagusietan (UPV/EHU, Deusto, Mondragón Unibertsitatea).

Ikasle Kontseiluen Plataforma: lanketa geldituta baina harremanak mantenduta:

Aurten ez da garatu Ikasle Kontseiluen Plataforma, ikasle talde ezberdinen arteko ikuspegi kontrajarriak eta egutegi desberdinak direla medio. Hala ere, Hezkuntza arlotik informazio interesgarria partekatu zen kolektibo ezberdinekin, eta etorkizunean lanketa berraktibatzeke baldintzak sortzen joateko oinarriak landu dira.

Ebaluazioa

- Ikasleen eta profesional gazteen iritzia jaso dira, bereziki eskola segregazioaren inguruan.
- Beharrak identifikatu eta proposamen zehatzak garatu dira.
- Hirugarren atala gauzatu ez den arren, bi atal nagusiak modu positiboan garatu dira.
- Partaideen balorazioa oso baikorra izan da, parte-hartze aktiboa nabarmenduz.

3.1.2 Euskadiko Eskola Kontseilua



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, **Euskadiko Eskola Kontseiluan**, unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusia duten giza eragileek parte hartzeko organo gorenean parte hartu du. Bertan, EAE mailan irakaskuntzan garatzen den arau eta egoeraren gaineko txosten orokorrei ekarpenak egin zaizkio, betiere gazteen iritzia kontuan izanda. **Euskadiko Eskola Kontseilua**, ikasleen ahotsa txertatzeko partaidetza espazioa den aldetik, ikasleari hartzaile izatetik protagonista izatera igarotzeko aukera eman zaio.

Hezkuntza komunitateko agente gisa, ikasleek dituzten beharrak eta ekarpenak jaso eta administrazioak sortzen dituen erabakiguneetan aurkeztu dira, ikasle gazteen ahotsa ezagutaraztea urteko erronka nagusia baita. Horretarako, EGKtik Eskola Kontseiluaren ezagutza eta ekarpen maila handitzen joan da, dela batzorde desberdinetan parte hartuz, dela txosten berriei ekarpenak eginez.

Horrez gain, ikasleen partaidetzari buruzko hausnarketa egin da. Honetan, lehen pertsona eta ahots propioz ikasleen behar, iritzi eta premiak jaso dira hauen partaidetza erronkei erreparatzeko asmoz.

Azkenik, urtero bezala, Osoko Bilkurak deitzen diren espazio edo bileretan parte hartu du EGK-k. Hauek, hain zuzen ere, EAEko hezkuntzaren norabidean ekarpenak egiteko balio dute eta proposamen konkrituak txertatu eta bozkatzearen bitartez egiten dira, non hezkuntza komunitate osoaren jardun eta ekarpena bilatu nahi den, geroago ekarpen horiek administrazioak aintzat har ditzan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Eskola Kontseiluko bileretan parte hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Eskola Kontseiluko eztabaida eta dokumentuei ekarpenak egitea.
- EAE mailan irakaskuntzan garatzen den arau eta irakaskuntzaren egoeraren gaineko txosten orokorreari hobekuntza proposamenak egitea.

Garapena

Eskola Kontseiluko batzorde iraunkorrak onartu dituen azken irizpenen jarraipena egin zen, dokumentu eta araudiak landuz. EGK-k hezkuntza arloko batzorde iraunkorrean parte hartu zuen modu aktiboan, instituzioek sustatutako kontraste- eta ekarpen-espazioetan eragile izanaz.

Beste entitate eta instituzio batzuekin lan bateratua egiten dugu, eta prest gaude EGKren ikuspegia dokumentu estrategikoetan, arau-proposamenetan eta eztabaidarako espazioetan txertatzeko.

Ebaluazioa

- Eskola Kontseiluak eskatutako txostenetarako ekarpenak gazteen errealitatetik eratorriak izan dira.
- Hizkuntza Helburuen komisioan eta Osoko Bilkuran parte hartu izana positiboki baloratu da.

3.1.3 Hausnarketa – Lab

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) elkarlanean garatu dugu **Hausnarketa Lab**: Hausnarketen laborategia egitasmoa, egungo hezkuntza eta gizarte gai esanguratsuak mahai-gaineratzea helburu izan duena.

Espazio honek ideiak partekatzeko aukera eskaini du, gazteen arteko eztabaida sustatuz eta ikasle gazteei zuzenean eragiten dieten erabakietan modu aktiboan parte hartzeko bideak zabalduz.

Orain arte sei saio antolatu dira, eta beste hiru gelditzen dira. Azken hauei formatu aldaketa bat egingo zaie parte-hartze mailak hobetzeko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen parte-hartzea sustatzea hezkuntza eta gizarte gai garrantzitsuetan, haien iritzi eta proposamenak erdigunean jarritz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Unibertsitateko ikasleen artean hausnarketa sustatzea, egungo gizarte eta hezkuntza erronken inguruan.
- Ikasleen eta aditu ezberdinen arteko elkarriketa eta eztabaida bultzatzea, ideiak kontrastatu eta sakontzeko.
- Gazteen ahotsa gizarte-eragile eta erakundeekin konektatzea, haien proposamenak politiketan eta erabakietan txertatzeko.

Garapena

Lehenik, hausnarketarako gai nagusiak zehaztu ziren, unibertsitateko ikasleen interesei eta kezkei modu zuzenagoan erantzuteko. Hori oinarri hartuta, gazteen behar eta iritzien diagnostiko bat egin zen, saioak haien benetako interesiei egokitzeko.

Gaiak identifikatuta, metodologia parte-hartzaileetan oinarritutako dinamikak diseinatu ziren, ikasleen parte-hartzea eta ikuspegiaren aberastasuna sustatzeko. Eztabaida-fasean, saio irekiak antolatu ziren eta ikasleek eta adituek elkarrekin gizarte eta hezkuntza gai ezberdinei buruzko gogoetak partekatu zituzten.

Ondoren, jasotako ideiak eta proposamenak bildu eta sistematizatu ziren, ondorioak modu antolatuan adierazteko. Eduki horiek guztiak txosten batean jaso eta eragile esanguratsuei helarazi zitzaizkien, egindako hausnarketek benetako eragina izan zezaten. Guztira, 9 saio burutu dira beraz: eskola-segregazioa, ikasleen bizi-baldintzak, justizia erreparatzailea eta beste hainbat gairen inguruan.

Hala ere, parte-hartze mailak ez du espero zen tamaina izan; ondorioz, 2026an egitasmoaren egitura eta planteamendua berrikustea aurreikusi da, parte-hartzea eta eraginkortasuna hobetzeko.

Ebaluazioa

- EGKren aldetik, programazioak garaiz prestatu dira eta saioen hedapena modu egokian bermatu da, unibertsitateko komunitatera iristeko ahalegin bereziarekin.
- Hala ere, ez dira saio guztiak gauzatu; zenbaitetan parte-hartzaile kopurua txikia izan da edo antolaketa-arazoak agertu dira, eta ondorioz batzuk bertan behera geratu dira.
- Amaitzeko, parte hartu duten gazteen ebaluazioetan egitasmoa oso positiboki baloratu da, espazio segurua, dinamikoa eta interesgarria izan dela azpimarratuz.

3.1.4 Gizarte aldaketarako Herritartasuna

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, Deustuko Unibertsitateko **Gizarte Aldaketarako Herritartasuna** irakasgaian lankidetzan aritzeko aukera izan du. Hezkuntza Teknikariaren ardura irakasgaian zehar ikasleak laguntzea eta aholkatzea izan da. Honen bidez, herritarren partaidetzaren gaineko lanketak eta hausnarketak ikasleekin lantzeko espazio bat eraiki da, gizartearen eraldaketa bultzatzen duen intzidentzia plan bat aurkezteko xedearekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko Unibertsitateko ikasle lantaldea aholkatzea herritarren partaidetzaren gaineko eragin plan txiki bat diseinatu, burutu eta ebaluatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.
- EGKren lana unibertsitatean ikusgarri egitea.

Garapena

Prozesua Deustuko Unibertsitateko bi ikasle-talderekin garatu zen. Hasierako saio presentziala Donostiako campusean egin zen, non bi taldeak elkartu eta proiektuaren helburuak,

planteamendua eta lan-metodologia partekatu ziren. Saio horretan, aurretik landutako ideien inguruko jarraipen txiki bat egin zen, eta talde bakoitzak garatu nahi zituen proiektuen norabidea zehaztu zen.

Ondoren, bi taldeei euren proiektuen planifikazio prozesu osoan zehar laguntza eskaini zitzairen. Lehenengo taldeak pornografiarekiko kontaktuak adingabeengan duen eragina landu zuen, eta bigarrenak, berriz, bizitza errealean beharrezkoak diren ikasketa giltzarrien falta. Bi proiektuek egitura antzekoa izan zuten: hasierako kontsulta bat formulario bidez, saio informatibo bat eta azken ondorioen aurkezpena.

Bi taldeek lan dinamika aktiboa izan zuten eta proiektuak modu autonomoan garatu zituzten. Azken ebaluazioan, ikasle guztiek ikasgaia gainditu zuten, 7 eta 9,5 arteko notekin, prozesuaren kalitatea eta inplikazioa agerian utziz.

Ebaluazioa

- Proiektuan parte hartu duten ikasleek Euskadiko Gazteriaren Kontseilua ezagutu dute eta prozesua elkarrekin egin izana akademikoki eta pertsonalki oso onuragarria izan dela adierazi dute.
- Deustuko Unibertsitateko ikasle eta irakasleekin izandako koordinazio egokiak lana erraztu du.
- Bi taldeen kanpainen eraginaren balorazioa positiboa izan da eta irakasgaiaren ebaluazioan ageri diren irizpideak bete dira. Horrekin batera, talde bakoitzak txosten bat egin du, diseinatutako gizarte-eragineko planaren diseinua, lortutako emaitzak eta prozesuaren ebaluazioa barne hartzen dituen.

3.1.5 Hezkuntza eragileak

Hezkuntza-eragileak gizabanakoak, erakundeak, teknologiak edo baliabideak dira eta ikasleen ikaskuntza erraztea eta sustatzea dute helburu. Oro har, hezkuntzako sare-lana lagungarri izan daiteke ikaskuntzaren kalitatea hobetzeko, berrikuntza eta pentsamendu kritikoa sustatzeko, eta ikasleak gero eta mundu konektatuago eta kooperatiboago baterako prestatzeko. Hezkuntza, EGK-ko lan-arlo bat den heinean, eremu honetan mugitzen da naturalki lan egiten. Beraz, EGK-k hezkuntza-sistema osatzen duten egiturekin, erakundeekin eta arduradunekin harremanetan dihardu.

Honekin batera, EGK ezagutzera emateko modu bat da harreman sare hau, arloko zenbait eragileren artean lankidetzaz eginez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana sortzea eta EGK hezkuntza esparruan ezagutzera ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egunerokotasunean hezkuntza eragileekin harremanetan egotea eta elkarlanerako espazioa partekatzea.

Garapena

Urtearen lehenengo zatian, EGK hezkuntza formala lantzen duten edo hezkuntza sistemaren parte diren entitate eta arduradunekin etengabeko harremanetan egon da. Hezkuntza munduko erreferentziazko talde eta norbanakoak ezagutu dira, hainbat ekitaldi eta jardunalditan parte hartuz.

EGK ezagutzera emateko, harreman-sarea handitzeko eta hezkuntza arloko eragileen arteko elkarlana sustatzeko aukera eta espazio ugari sortu dira. Eragileen artean honako hauek egon dira: Zurrumurruen Aurkako Sarea, Alboan, Migrazio eta Asilo Foroa, Bizkaia Gara, Gazteen Euskal Behatokia, unibertsitateak, EHUko Ikasleen Kontseilua, Eusko Ikaskuntza, **Euskadiko Eskola Kontseilua**, Hezkuntza Saila eta beste hainbat.

Hilabete hauetan zehar hezkuntza arloan jarduera ugari garatu ziren: Euskaditik Mundura jardunaldiak (Alboanekin), Caritas, BBK Topa Eskola-ren saioak, Zerbikas edo Deustuko Unibertsitatearekin lotutako topaketak, Euskara eta Hizkuntza Aniztasunaren inguruko bilerak, boluntariotzaren kudeaketa inklusiborako formakuntzak, edota **Hausnarketa Lab** saioak eskola-segregazioaren eta nahi gabeko bakardadearen inguruan. Ekintza horiek guztiek EGK-k paper aktiboa izan duela erakutsi dute hezkuntza komunitate zabalean, saretze aktiboaren eta ikuspuntu gaztearen transmisioaren bidez.

Unibertsitatei dagokienez, Euskal Herriko Unibertsitate Publikoarekin (EHU) elkarriketa eta lankidetzaz bide berria ireki zen. Alde batetik, EHUko Ikasleen Kontseiluarekin batera, egungo ikasle

gazteen egoera aztertu zen eta haien beharrak mahaigaineratu ziren. Beste alde batetik, Ikasleen Zuzendaritzaren bitartez, EHU eta EGKren arteko lankidetzak-hitzarmena berrikusteko eta eguneratzeko lanak abian jarri dira, etorkizunean sakontzeko helburuarekin.

Ebaluazioa

- Hezkuntza formalean jarduten duten taldeekin etengabeko harremanetan egon izanak, EGK-ren diskurtsoa aberastu eta harreman sare handitzea ahalbidetu du.
- Hezkuntza eragileekin partekatu diren espazioetan, ikasle gazteen ahotsa erdigunean jarri da eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak egiten duen lana ezagutarazi da.
- Hezkuntza komunikatearen baitan gauzatu diren ekintzak aproposak izan dira ikaskuntzak, orientabideak eta erreferentzia metodologikoak sortzeko.

3.2 HEZKUNTZA EZ FORMALA

3.2.1 Gazte Boluntarioak

Gazte boluntarioen beharrak eta haien lanaren balioa berresteko proiektua izan da honakoa, baita haien egoera ezagutarazteko eta hobetzeko tresna ere. Boluntario gazteen lana eta gizartearen duten balioa eta inplikazioa zabaldu dira EGKtik, beste behin ere haien ekarpenek zentzu zabalenean oihartzuna izan zezaten.

Euskal Autonomia Erkidegoan zehar, askotarikoak izan dira bertan bizi eta boluntario gisa jarduten duten gazteak. Haiei aurpegia eta ahotsa jarri zaie, eta bizipen isolatu bat izatetik harago, beste gazte belaunaldietara gerturatu dira, boluntariotzak duen garrantzia transmititzeko helburuarekin. Proiektu hau gazte boluntarioen lana sozializatzeko tresna eraginkor bihurtu da.

Boluntario gazteen lanari ikusgarritasuna eta indarra eman zaio, hezkuntza ez formala balioesten den bitartean. EGK-k boluntariotzaren errealitatea eta etorkizuneko erronkak lantzearen alde egin du lan. Horretarako, hainbat eragilerekin elkarlanean aritu da urte osoan zehar espazio eta ekimen ezberdinetan. Lanketa horri jarraipena emateaz gain, Boluntariotzaren Nazioarteko Egunean ekintza berezi bat ere garatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazte boluntarioen sarea sortzea, boluntariotzan egiten den lana eta inplikazioari ikusgarritasuna emateko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte boluntarioek urtean zehar garatzen dituzten ekintzak balioestea.
- Gazte boluntarioen artean ezagutzea.
- Gazte boluntarioen egoera ezagutzera ematea.
- Harremanen mapa osatzea eta boluntario gazteen sareak sendotzea.
- Existitzen diren EAEko lurralde desberdinetako boluntariotza agentziekin (Bizkaia Gara, Batekin eta Gizalde) harremana sendotzea.
- Gizarte partaidetzaren garrantziaz kontzientziatzea.
- Boluntariotzaren Nazioarteko Egunean gazte ikuspegia txertatzea.

Garapena

Urtean zehar, gazte boluntarioekin eta boluntariotza elkarteekin harremana modu estrategikoan mantendu zen, komunikazioa sendotzeko eta sektoreko dinamikan gertatzen ziren aldaketei adi egoteko.

Lan horren baitan, abenduan topaketa berezi bat antolatu zen Perrera Espazioan, non boluntariotzaren hainbat esparrutatik etorritako pertsona boluntarioek elkar ezagutzeko, esperientziak partekatzeko eta sinergiak sortzeko aukera izan zuten. EGK-k, aldi berean, Bizkaiko ehun asoziatiboaren kezkak, erronkak eta beharrak jaso zituen, boluntariotzaren benetako errealitateari gertutik erreparatzeko.

Topaketa honek aukera eman zuen boluntario gazteen arteko sarean sakontzeko, eta EGK-k jasotako ekarpenak etorkizuneko lan-ildoak egokitzeko eta indartzeko oinarri gisa erabili zituen.

Ebaluazioa

- Gazteek proiektuak ahalbidetu duen saretzea modu positiboan baloratu dute.
- EGK boluntario gisa jarduten duten gazte belaunaldietara gerturatu da.

- Gazte boluntarioen ahotsa eta egoera hobetuko duten ekintza zehatzak elkarlanean gauzatu dira.
- 15 gaztek eta 7 entitatek gogotsu eta motibazio maila altuarekin parte hartu dute.

3.2.2 Euskadiko Gazteak Lankidetzan

EGK-k parte hartu du **Euskadiko Gazteak Lankidetzan** programaren antolaketan. Aurreko edizioetan bezala, hautaketa prozesuan hainbat bilera egin dira. Lehen fasean, izena eman zuten gazteen aurre-hautaketa egin zen, bakoitzaren hezkuntza maila eta profila kontuan hartuta. Ondoren, hautaketa prozesuaren bigarren zatia Barriako aterpetxean garatu zen, bi asteburutan. Bertan, gazteek talde-dinamika ezberdinetan parte hartu zuten, kooperazioari loturiko edukiekin.

Bukatzeko azken topaketa egin da. Jardunaldi horretan hautatutako gazteek beren esperientziak partekatu dituzte eta programaren ebaluazioa egin da. EGK-ko teknikariaren papera, beste GGKE batzuekin batera, hautaketa batzordean parte hartzea eta prozesu osoan zehar laguntzea izan da, izena eman duten gazteen profila ebaluatuz eta hautaketa prozesuan modu aktiboan parte hartuz.



Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako kooperazio proiektuetan parte hartuko duten gazteak hautatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena gazterian handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesa agertu dutenekin harremanak finkatzea.
- Gazteen arteko harremanak sendotuz, Euskadiko gazteriaren partaidetza sustatzea.
- Lankidetzaren baloreak Euskadiko gazteen artean sustatzea.

Garapena

Lehen hautaketa egiteko jardunaldian parte hartu zen. EGK-ko teknikariak parte hartu zuen Lakuan egindako aurre-hautaketa bileretan, beste GGKE batzuekin batera, parte-hartzaileen profilak aztertzeke eta irizpideak adosteko.

Jarraipen eta hautaketa jardunaldietan parte hartu zen. Barriako aterpetxean bi asteburu egin ziren. Lehenengoa hautaketa presentziala egiteko izan zen, eta bigarrena formakuntza jardunaldi intentsiboa, hautatutako gazteekin.

Ebaluazioa burutu zen. Udazkenean egin zen azken ebaluazio-jardunaldia, non parte-hartzaileen esperientziak eta prozesuaren balorazioa jaso ziren. EGK-k dinamizazioan eta ondorioen sistematizazioan parte hartu zuen.

Ebaluazioa

- EGKren parte-hartzea positiboa izan da, prozesuaren fase guztietan inplikazio aktiboa izanik.
- Gazteen motibazioa eta prestutasuna nabarmenak izan dira, bai hautaketa zein formakuntza jardunaldietan.
- Prozesuak egitura sendoa eta eduki pedagogiko egokiak izan ditu, elkarlan giroan garatuta.

3.2.3 Administrazioa eta beste eragileekin koordinazioa

Hezkuntza lan arloaren eguneroko gaiek eskatuta administrazioekin eta beste eragileekin (elkarte, entitate, fundazio...) koordinazio lanak burutuko dira. Horren adibide, lan-saioak, mezu elektronikoak, bilerak, telefono deiak... Esparru honetan, Eusko Jaurlaritza eta lurralde historikoetako Aldundiak izango dira hartzaileak. Hurrengo eragile hauei emango zaie berebiziko garrantzia, elkarlanean komizioetan parte hartuz eta proiektuak burutuz:

- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.

- Alboan.
- Zas.
- Tau Fundazioa.
- Migrazio eta Asilo Euskal Foroa → Euskara eta aniztasun batzordea.
- Kukulaisi.
- Etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Administrazioa eta beste eragileekin koordinazio egoki eta egonkorra bideratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Administrazioa eta hezkuntza formal zein ez formaleko eragileekin harremana mantentzea.
- Hezkuntza eragile desberdinen arteko zubi-lanak egitea.

Garapena

Hezkuntza formalaren eta ez formalaren ataletan azaldu den bezala, administrazioarekin eta hainbat eragilerekin koordinazio egonkor eta egokia garatu da, urte osoan zehar.

Eusko Jaurlaritzarekin, Aldundiekin eta beste erakunde eta taldeekin (fundazioak, entitateak, sareak...) koordinazio-lanak burutu dira, bai hezkuntza formalaren esparruan, bai hezkuntza ez formalari lotutako ekimenetan.

Ebaluazioa

- Elkarlan eta lankidetzarako eragileak identifikatu dira, hezkuntza arloarekin harremana dutenak, eta haiekin egindako koordinazioa eta komunikazioa sendotu dira. Administrazioarekin zein hezkuntza-eragileekin izandako harremanak indartzen jarraitu da urte osoan zehar, elkarlan egonkorra eta eraginkorra bermatzeko.

- Lankidetzaren bidez, informazio-trukea, proiektu bateratuak eta jardunaldiak sustatu dira, hezkuntza komunitatearen beharrei modu hurbil eta koordinatuan erantzuteko.
- Halaber, eragile hauekiko harremanek aukera eman dute egoera-beharren diagnostiko zehatzagoa egiteko, sareko sinergiak aprobetxatzeko eta hezkuntza-sistemaren erronkei ikuspegi gazte eta kritiko batetik erantzuteko.
- Urtean zehar egindako topaketek eta koordinazio-ekintzek erakutsi dute elkarlana funtsezko elementua dela hezkuntza-politiketan eta hezkuntza ez formalean eragin positiboa izateko, eta horregatik, EGK-k etorkizuneko urteetan ere harreman horiek sendotzen jarraitzeko konpromisoa hartu du.

3.2.4 Barrunba – Nahi Gabeko Bakardadea

Gaur egun, Euskadiko gazte askok nahi gabeko bakardadea pairatzen dute, eta egoera horrek eragin handia du euren ongizate emozionalean, osasun mentalean eta gizarteratze-prozesuetan. Digitalizazioaren hazkundea, gizarte-harremanen eraldaketa eta krisi sozioekonomikoek egoera hori areagotu dute; askotan, gazteek ez dute sare sozial egonkorrik edo harreman esanguratsuak eraikitze aukerarik.

Testuinguru horretan, Barrunba proiektua sortu da errealitate honi aurre egiteko. Bere berezitasuna izan da lurralde-banaketa bidez garatu izana, ikuspegi osagarriak lantzeko aukera emanez Bizkaian eta Gasteizen.

Bizkaian, ikuspegi zabalago bat landu da: proiektua hainbat udalerritan burutu da, testuinguru sozioterritorial desberdinen arteko konparazioa ahalbidetuz. Horrela, nahi gabeko bakardadearen fenomenoak modu anitzagoan ulertu da, udalerrien ezaugarri sozial eta komunitarioen arabera.

Gasteizen, berriz, ikuspegi hurbilago eta intimoago bat garatu da. Lana pertsona gazteengana gerturatuz gauzatu da, harreman zuzenean eta konfiantzan oinarritutako espazioak sortuz. Helburua izan da bakardadearen esperientzia subjektiboa lehen lerroan kokatzea eta hortik abiatuta erantzun esanguratsuak eta moldagarriak garatzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Nahi gabeko bakardadearen arrazoiak aztertzea eta Euskadiko gazteei sare sozialak indartzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko tresnak eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Nahi gabeko bakardadearen dimentsioak eta horren kausak aztertzea Euskadin, ikuspegi sozio-ekonomiko eta psikologikotik.
- Gazteen artean sortzen ari diren kontsumo-ohitura ez-jasangarriak identifikatzea eta alternatiba osasungarriak proposatzea.
- Euskadiko gazteentzako harreman-sareak indartzeko estrategiak diseinatzea.
- Bizkaia: Udalerrri desberdinetan nahi gabeko bakardadearen errealitatea identifikatu eta kontrastatzea ikuspegi komunitario zabal batetik.
- Gasteiz: Gazteekin harreman hurbila oinarri hartuta, bakardadearen esperientzia pertsonalak entzun eta erantzun esanguratsuak eraikitzea.

Garapena

Egoeraren diagnosia: Nahi gabeko bakardadearen arrazoiak identifikatzeko informazio bilketa kualitatibo eta kuantitatiboa garatu da. Informazio bilketa Euskadi mailan burutu zen, lurraldeen arteko konparaketa ahalbidetuz, eta testuinguruaren arabera lehen ondorio esanguratsuak atera ziren.

Gazteen esperientzien bilketa: Elkarriketen, talde-fokalen eta inkesten bidez testigantzak jaso ziren. Elkarriketak eta talde-fokalak Bizkaian eta Gasteizen egin ziren, eta inkesten bidez esperientzia pertsonal eta sozial ugari jaso ziren.

Alternatiben garapena: Harreman-sare berriak eta aisialdi aukera osasungarriak proposatu ziren. Proposamen zehatzak jasotako ekarpenetan oinarrituta landu ziren, eta aplikaziorako bideak aztertu ziren.

Sentsibilizazio-kanpainak: Kontzientzia pizteko ekintzak gauzatu ziren. Gasteizen panel interaktiboak eta performance bat egin ziren kalean; Bizkaian, berriz, eskoletako saioak eta jardunaldi ireki bat antolatu ziren.

Esku-hartze komunitarioa: Gazteen sare sozialak indartzeko jarduerak garatu ziren. Bizkaian eskoletan tailerrak egin ziren, eta Gasteizen kale-dinamika parte-hartzaileak burutu ziren.

Ebaluazioa

- Hasierako fasea oso positiboa izan da: informazio-bilketa zabala egin da, eta horri esker lurralde bakoitzeko errealitateak sakon aztertzeke aukera izan da.
- Kontraste lan esanguratsua burutu da, bai barne mailan (EGK-ko talde teknikoarekin eta arduradunekin), bai kanpoko eragileekin (gazteekin, udal teknikariek, elkarteekin...).
- Bizkaiko eta Gasteizko proiektuek egokitzapenak egin dituzte, hasieran aurreikusitako planteamendua moldatuz urte hasierako lanetan eta identifikatutako behar zehatzetan oinarrituta.
- Lurralde bakoitzaren ezaugarriak erantzuteko, formatu eta erritmo desberdinak garatu dira, eta egokitzapen horiek proiektuen eraginkortasuna handitzeko balio izan dute.
- Oinarri sendo batekin, proiektuak sentsibilizazio- eta esku-hartze faseetara igaro dira, aurrez jasotako informazioa eta ekarpenak modu praktikoan aplikatuz.

3.3 HEZKUNTZA OROKORRA

3.3.1 Euskera

2025 urtean zehar Euskara eta gazteak erdigunean jartzeko egitasmoak bultzatzea da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren lehentasunetako bat.

Gazteekin lotutako esparru guztietan euskararen aldeko ikuspegi kritikoa txertatu da, haien esperientzia eta iritzia kontuan hartuz. Euskararen sustapena egokia izan dadin, egungo gazteen errealitatetik abiatuta egin da lan, euskara eta gazteen artean hizkuntza bizi eta bizizalea izateko.

EGK-ko arlo eta proiektuetan euskararen erabilera egokia bermatuko da eta EGKren harreman sarean dauden elkarte eta gazteekin euskararen inguruko hausnarketak sustatu, egitasmoak bultzatu eta ekimen zehatzak sortu dira. Hezkuntza formal eta ez formaleko erakundeak hausnarketaren erdigunean kokatu dira, euskararen sustapenean ardura duten eragileak direla medio.

Euskadiko gazteen artean euskara inklusiorako tresna izateko xedearekin, inklusioa eta aniztasun ikuspegiak funtsezko aldagaiak izan dira. Izan ere, EGK Migrazio eta Asilo Euskal Foroko Euskara

eta Hizkuntz Aniztasun batzordearen partaidea den aldetik, hizkuntza aniztasuna kudeatzeko eta euskara sustatzeko ekimenei ekarpenak egin zaizkie.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskara eta gazteak erdigunean jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteekin lotutako arlo guztietan euskararen aldeko ikuspegi kritikoa txertatzea.
- Euskara sustatzea egungo gazteen errealitatetik abiatuta.
- Euskararen egoera, erabilera eta inklusioaz hausnartzea.

Garapena

2025ean, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) euskararen erabilera egokia bermatu du bere arlo eta proiektu guztietan. Era berean, erakundeak bere konpromisoa berritu eta Bai Euskarari Ziurtagiria eguneratu du, euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurri berriak ezarriz bai EGKren eguneroko jardunean, bai bere harreman-sare osoan.

Gazteekin eta elkarteekin izandako harremanetan euskararen erabilera lehenetsi da une oro. Bereziki, euskararen sustapenean diharduten eragileekin lankidetzan, hezkuntza formaleko zein ez-formaleko gazteekin hizkuntzaren inguruko hausnarketa-saioak garatu ziren. Testuinguru horretan, euskararen erabilera soziala, balio sinbolikoa eta transmitigarritasuna indartzeko ekintza zehatzak gauzatu ziren.

Urtean zehar, EGK Euskararen aldeko ekimenetan modu aktiboan parte hartu du. Bereziki nabarmendu da 2025eko Euskaraldian partaidetza sustatu izana: EGKren barneko ia talde guztiek parte hartu zuten eta dinamika normalizatzeko, erakundearen hiru bulegoetan (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) Euskaraldiko materiala eskuragarri jarri zen.

EGK eragile aktiboa izan da, halaber, Migrazio eta Asilo Euskal Foroko Euskara eta Hizkuntza Aniztasunaren Batzordean. Batzordean, elkarte kideekin batera hiru lan nagusi garatu ziren: EAEko hizkuntza-aniztasunaren egoerari buruzko txostenaren eguneratzea eskatu zen, aniztasuna aitortu eta bistaratzen duten ekintza esanguratsuak planifikatzeko. Hizkuntza-aniztasunaren testuinguruan euskararen biziberritzearen erronkak identifikatu ziren, ikuspegi partekatu bat eraikitzeko. Urteko plangintza estrategikoa landu zen, helburu hauek gauzatzeko bide-orri gisa.

Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, EGK-k material literarioaren zozketa berezi bat antolatu zuen, gazteen artean euskararekiko atxikimendua eta parte-hartzea sustatzeko. Ekimenak parte-hartze handia erakarri zuen eta sare sozialetan oihartzun positiboa izan zuen, gazteen eta euskararen arteko lotura modu dinamiko eta erakargarrian bistaratuz.

Oro har, EGK-k euskararen aldeko hizkuntza-politika sendo eta integrala garatzen jarraitu du. Datozen hilabeteetan ere, euskararen erabilera sustatzeko jarduera berriak garatzeko konpromisoa mantendu du, betiere ikuspegi euskaltzale, integratzaile eta gazteen parte-hartze aktiboan oinarrituta.

Ebaluazioa

- Askotarikoak izan dira EGK-k euskara sustatzeko babestu eta lagundu dituen proiektuak, gazteen artean hizkuntzaren presentzia, erabilera eta prestigioa handitzeko helburuarekin.
- Euskadiko euskara-elkarteekin eta euskaltzale taldeekin elkarlanean aritu da EGK, eta nabarmenak izan dira gizartean euskararen alde gertatzen ari diren mugimendu eta aldaketak. Testuinguru dinamiko horrek harreman eta lankidetzak berrien etengabeko agerpena ekarri du, eta EGK-k horiei modu aktiboan heldu die.
- Oso positiboa izan da EGKren ikuspegitik euskararen inguruan gertatzen ari denaz ongi informatuta egotea, eta eragile zein elkarte desberdinen jardunaren berri izatea. Eguneroko lanean zein une espezifikoetan euskarak hartu beharreko garrantzia zaindu da, erakundeko proiektu eta esparru guztietan presentzia sendoa bermatuz.

3.3.2 Hezkuntzako Nazioarteko Egunak

Proiektu hau, egun zehatzak eta hauen esanahia balioan jartzean datza. Honakoak dira hezkuntza lan-arlotik identifikatuta eta agendan markatuta dauden egun zehatzak:

- Maiatzak 21: Elkarriak eta Garapenerako Kultur Aniztasunaren Munduko Eguna.
- Abuztuak 12: Gazteriaren Nazioarteko Eguna.
- Abenduak 3: Euskararen Nazioarteko Eguna.

Egun hauetan lanketa berezitu bat egingo da eta tarte bat eskainiko zaie, bai barne mailan eta baita kalera begira edota publikoki ere. Ildo beretik, EGK-ren diskurtsoa adierazten duten argitalpen eta manifestuak sare sozialetara igoko dira, betiere, Euskadiko gazteen errealitate eta ikuspuntuetan arreta berezia jarriz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Agendan adierazitako nazioarteko egunei buruz hezkuntzaren arloan dagoen diskurtsoa plazaratzea eta zabaltzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Nazioarteko Egunen garrantzia gizarteratzea.
- EGKren diskurtsoa zabaltzea.
- Hezkuntzarekin lotutako egunei garrantzia ematea.

Garapena

- Maiatzak 21 – Elkarrizketa eta Garapenerako Kultur Aniztasunaren Munduko Eguna: EGK-k parte hartu zuen eta bat egin zuen egunarekin, Alboan bezalako erakunde aliatuek egindako lanari babesa eta difusioa emanez, haien mezua gazteengana hurbilduz.
- Abuztuak 12 – Gazteriaren Nazioarteko Eguna: Egunaren komunikazio irekiera egin zen, gazteen aldarrikapenak eta errealitatea bistaratuz, sare sozialetan presentzia berezia eskainiz.
- Abenduak 3 – Euskararen Nazioarteko Eguna: Euskarazko material literarioaren zozketa berezi bat antolatu zen, gazteen parte-hartzea eta euskararekiko atxikimendua sustatzeko.
- Abenduak 5 – Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna: Gazte Boluntarioak topaketa egin zen, Bizkaian boluntariotzan diharduten pertsonak eta elkarteak elkartuz; esperientziak partekatzeko, sareak sendotzeko eta egungo erronkak jasotzeko aukera eskainiz.

Ebaluazioa

- Nazioarteko egunetako lanketa EGKren urteko proiektuekin ondo ilaratuta egon da, koherentzia eta jarraikortasuna bermatuz.

- Etorkizunari begira, gomendagarria da egun bakoitza modu esplizituagoan lantzea, komunikazioan eta ekintzetan argi adieraziz zein nazioarteko egun den eta zein gai sozial edo hezkuntzari lotzen zaion, ikusgarritasuna handitzeko.

4. ASTIALDIA



4.1 Astialdiko ekintzen garapena eta zabalpena

EGKtik bidelaguntza eta difusioa ematen jarraitu da arlo honetan dabiltzanen astialdi elkarteei, egunerokotasunean dituzten ekintzak oinarrian jarrita. Elkarrekin burutzen dituzten ekintzak ugariak dira, eta hauen sozializazioa ezinbestekoa da. Halaber, haien ekintzak aurrera eramateko baliagarriak izan daitezkeen tresnen (mapak, zerrendak, etab.) eratze-prozesuarekin jarraitu da.

Hari beretik, astialdi talde, sare eta eskolen lana balioan jarri nahi izan da, gizartean eta bereziki gazteen artean, egiten diren ekintza eta formakuntza ezberdinak ezagutzera emanez. Izan ere, hauen lana ikustarazteko ezinbestekoa da zabalpenean laguntzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi hezigarria osatzen duten eragileen ekintzei aintzatespena, balioa eta ikusgarritasuna ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Taldeen ekintzen berri egotea, haien lana balioan jartzeko.
- Astialdi taldeen egunerokotasuneko zein une zehatzetako (Gabonak, Aste Santua, uda...) ekintzen hedapena egitea.
- Astialdi taldeei baliagarriak izan daitezkeen tresnak zabaltzea.

Garapena

Udako Ekintzen kanpaina 2025:

Udan astialdiak duen presentzia nabarmena da, irabazi asmorik gabeko astialdi taldeek eta mugimenduek haien ahalegina bikoizten dute kanpamenduak, udalekuak eta abar antolatzeko. Gainera, familiek interes berezia dute urteko sasoi honetan astialdi hezigarriko jardueretan.

Astialdiko udako ekintzak
Actividades de verano de tiempo libre

2025

Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Aikartza Asti Taldea	Asociación Tiempo Libre	Acción Católica General
Asociación de Juventud y Tiempo Libre Biltoki	Alaitasuna alialdi elkarteak	Jóvenes Vitoria
Asociación de Tiempo Libre	de Enrenteria	Club de Amigos
Atape	Atsedena Astialdi elkarteak	Sansomendi-Ali
Berbarro elkarteak	Elgoibarko Izarrako	CPW Asterlariak
Bizkaiko Gaztekoen koordinakundea	Atxutxamaka saila	Tahir Elkarteak
Bosko Taldea	Hezken-Piñeta udalekuak	Tiempo Libre San Juan
Deader Taldea	Izartxo Elbar Astialdi Taldea	Zirimola Ikastolen Astialdi Taldea
Elizalde Eskaut Taldea	Elkarteak	
Euskal Eskaut Taldea	La Salle Berrozpe	
Gurutze Gorria	Xaguxar Astialdi Taldea	
San Miguel eskaut taldea	Zirimola Ikastolen Astialdi Taldea	
Zirimola Ikastolen Astialdi Taldea		

Aurten, Euskadiko hiru lurralde historikoetako astialdiko 23 talderen 59 jarduera bildu ditugu. Jarduera horiek zeintzuk diren jakiteko, estekan dagoen zerrendan informazio guztia daukazue.

Este año hemos reunido 59 actividades de 23 grupos de tiempo libre de los tres territorios históricos de Euskadi. Tenéis toda la información de estas actividades en el listado que se encuentra en el enlace.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Astialdi taldeek udan antolatzen dituzten jarduerari zabalpena egiteko galdetegi bat prestatu egin zen, zeinean, udako ekintzen inguruko oinarritzko datuak bildu nahian, EAE-ko astialdi taldeei eta Astialdi Foroko taldeei online moduan hedatu egin zitzairen. Horretaz gain, sare sozialen bitartez galdetegia zabaldutako zen, edozein taldek bete dezan. Galdetegia bi astez irekita utzi ostean datuen baliagarritasuna egiaztatu eta ekintzen zabalpenerako lana hasi zen.

Aurten, Euskadiko hiru lurralde historikoetako astialdiko 23 sare eta talderen 59 jarduera bildu dira. EGK-ko gazte diseinatzaileen lan

poltsatik ateratako gazte diseinatzaile batek jarduera horiek biltzen dituen kartel bat eta instagrameko karrusela sortu egin zituen eta sare sozialetan zein EGK-ko web orrian publikatu egin zen. Kartelaren estetika mantentzearen, bertan ezinbesteko datuak besterik ez ziren agertzen. Gainontzeko datuak [zerrenda batean](#) bildu ziren, sare sozialetan zabaldutako estekaren bitartez eskuragarri dagoena.

Gipuzkoako Astialdi Taldeen Mapa:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Gipuzkoako astialdi taldeei buruzko informazioa berritu eta eguneratzeko helburua zeukan. Datu eguneratuak bildu ziren, eta informazio hori mapa interaktibo batean erakutsi da. Bertan, talde bakoitzaren kokapena, eskaintzen dituen jarduerak eta kontaktua jasotzen dira. Prozesua hainbat fasetan banatu da:

- **Datu-bilketa:**
 - Google Forms galdetegi bat sortu eta Gipuzkoako astialdi talde guztiei bidali zitzaion.
 - EGKren sare sozialen bidez deialdia zabaldu da parte-hartzea sustatu zen.
 - Aurrez zeuden datu-baseekin alderaketa egin zen informazioa eguneratzeko.
- **Datuen egiaztapena eta antolaketa:**
 - Taldeekin harremanetan jarri ginen informazioa egiaztatzeko eta eguneratzeko.
 - Jasotako datuak Excel fitxategi batean antolatu ziren.
 - Talde bakoitzaren kokapena eta jarduerak egiaztatu ziren.
- **Diseinua eta argitalpena:**
 - Excel fitxategiko datuekin zerrenda bat diseinatu eta argitaratu da.
 - EGK-k mapa interaktiboa osatu du Gipuzkoako eskualdeka eta herrika antolatuta. Mapan guztira 62 talde parte hartu dute.
 - [Mapa](#) eta [zerrenda](#) EGKren sare sozial eta posta bidez zabaldu dira.

Ebaluazioa

- EGKrekin harremanak dituzten astialdi taldeen ekintzen informazioa jaso egin da.
- Astialdi talde berriekin harremana eratze prozesuan dago ekintzen jarraipena eta zabalpena bideratzeko.
- Elkarteen inguruko informazioa bildu da (burutzen dituzten ekintzak, egoera, kontaktua) baina, oraindik, EGK eta taldeen arteko harremanean sakondu gabe dago kasu batzuetan.
- Udako ekintzen zabalpena egin da, uda astialdiko taldeentzat denboraldi esanguratsua izanik.
- Gipuzkoako taldeen datuak bildu ziren eta Gipuzkoako Astialdi Taldeen Mapa argitaratu da.

4.2 Astialdi Foroa

Astialdi Foroa EAEko astialdiko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio eta bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sensibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi zen, baita balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

Astialdi taldeak indartzeko prozesuan, taldeei jarraipena egiten ari zaie eta haien beharrak asetzeko lan egin da. **Astialdi Foroko** bilera eta taldeekin mantendu den harreman zein bidelaguntzari esker Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiaren ardatz nagusiak garatu dira.

Hortaz, **Astialdi Foroari** atxikita Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiaren zortzi proiektu zehatzen gauzatzea egin zen **Astialdi Forotik**, bertan parte hartzen duten taldeekin batera. Estrategia honen jarduera-ardatz nagusia astialdian dauden sare eta beste eragile batzuen bitartez taldeak eraldatzeko prozesuan laguntzea zen. Horretarako, taldeei laguntzeko sistemaren inplementazioarekin jarraitu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi taldeak sartzeko espazio bat ahalbidetzea, astialdiko gaien inguruan hausnartzeko, astialdiko beharrak jasotzeko eta behar horiei erantzunak emateko astialdiko mugimendua indartuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi Foroko lan taldea koordinatzea eta sendotzea, taldeei jarraipena eginez eta haien beharrak asetuz eta elkarte zein eragileen arteko elkarlana sustatuz.
- Astialdiko Koordinazio Mahaian lantzen diren gai eta dokumentuei ekarpenak egitea, astialdi taldeen ahotsa helaraziz.
- EAE mailan astialdian garatzen diren arau eta egoeraren gaineko txosten orokorreko hobekuntza proposamenak egitea.

- Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiaren II. Ardatz traktorea gauzatuko da, hau da, Astialdi Foroko taldeei bidelagunduko zaie hurrengo aspektuetan: taldeen oinarritzko beharretan laguntzea, komunitate garapenean, balio hezkuntzan, euskara eta euskal nortasuna garatzeko gakoetan, hezkidetzan, inklusioan, garapen iraunkorreko helburuak aplikatzean edota berrikuntza prozesuetan, haiek eskatzen badute betiere.
- Haur eta nerabeen babesaren inguruan eta ildo honetan ezarriko diren protokoloen harira hausnarketa espazioak bideratuko dira Astialdi Foroan jorratzen diren beharrei erreparatuz.

Garapena

Astialdi taldeak indartzeko plana:

EGK-k astialdiko taldeei eta sareei laguntza teknikoa eskaintzen die; berez, aipatu beharra dago laguntza programa honek eta Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiak bat egiten dutela eta bateragarriak direla.

Alde batetik, talde berriek beren lan hezigarriari jarraipena eman diezaioten laguntza ematen jarraitu da. Behar zehatzagoei lagundu eta erantzuna eman zaie, beharren arabera, finkatzeko edo egokitzeko prozesuak abiaraziz edota egitura eta laguntza-sistemak indartuz. Halaber, beste eragile eta administrazio batzuekiko lankidetzan eta sareko lana sustatzen jarraitu da, taldeen plangintza eta programazioa azpimarratuz, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko eta etorkizuneko ikuspegia izango duen proiektu egonkor bat lortzeko.

Bestalde, astialdian ibilbidea duten taldeekin lanketa ezberdina egin zen, talde hauen ezaugarrien artean, koordinazio-egitura antolatua ziren eta jarduera-eskaintza zabala abiatu da. Talde horiekin jarduteko plana Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiarekin lerrokatzeko prozesuan laguntzea eta indartzea izan zen. Proiektu berritzaileen, ekintzen eta proposamenen bidez, haien dimentsioak indartu nahi izan dira, bai eta programazioak hobetu.

Erantzunei esker, talde bakoitzak planean aurreikusitako ekintzak betetzen dituen kontrolatu eta ebaluatu zen. Horrela, horien garapenari buruzko informazioa eta ebidentziak bildu eta eguneratu ziren. Era berean, talde bakoitzaren egoera ezagutzeko aukera emanez, eta beharrezko hobekuntzak edo aldaketak antzematen lagunduz.

Arabako Astialdi Foroa:

2025eko otsailean gauzatu zen **Arabako Astialdi Foroko** urteko lehenengo topaketa. Partaide berri bat izan zenez, topaketa aurkezpen erronda batekin hasi zen, eta jarraian, betiko moduan, talde bakoitzaren egoera partekatu zen.

Astialdi Foroak parte hartu duen Astialdi Koordinazio Mahaia delakoaren testuinguruan, hurrengo hilabeteetan astialdi hezitzailearekin lotutako hiru dekreturen (jarduerak, formakuntzak eta eskolak) berrikuspen prozesua martxan jarriko zela jakinarazi zen. Horren harira, dekretu berrikuspenean kontuan hartzeko gako nagusiak jaso ziren, eta momentu horretara arte sortutako dokumentuak aztertu ziren. Ekarpen guztiak aurrez prestatutako dokumentuen ildotik joan ziren.

Gasteizko astialdi taldeak biltzen dituen maparen ebaluazioa ere egin zen, eta balorazioa orokorrean positiboa izan zen.

Udako kanpainari dagokionez, iazko kartelaren balorazioa partekatu zen. Talde guztiek adierazi zuten kartela oso kargatuta zegoela, eta etorkizunerako proposamen bat egin zen: kartel nagusian talde bakoitzeko jardura bana agertzea eta gainerakoak estekatutako zerrenda batean jasotzea.

2025eko formakuntzen inguruan ere informazioa eman zen:

- Tratu onaren inguruko formakuntza Gipuzkoan, apirilaren 9an, CRAJ espazioan. Taldeei gonbidapena luzatzea eskatu zitzaien.
- Aniztasun funtzionalari buruzko formakuntza, Azaroan Bilbon izango dena. Saioan arreta berezia eskainiko zaie ADHN (arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendu) eta espektro autistaren nahasmenduren bat duten haur eta nerabeekin lan egiteko tresnei.

Haur eta nerabeen legea lurreratzearen lanketaren baitan, iaz Bilbon eta Gasteizen egindako formakuntzetan gazteek adierazitako behar eta ikuspegiak komentatu ziren. 2025ean zehar EGK-k jasotako informazioarekin txosten bat argitaratuko zuela jakinarazi zen, gazte boluntarioen ikuspegitik babes-protokolo berrien sorreran eragiteko asmoz.

Azkenik, hurrengo topaketaren data beharren arabera zehaztuko zela adostu zen.

2025eko urriaren 6an egin zen Arabako Astialdi Foroaren bigarren seihiilekoko lehenengo topaketa. Ohiko moduan, topaketa talde bakoitzaren egoera eta azken hilabeteetako jardueren partekatzearekin hasi zen.

Astialdi Koordinazio Mahaiaren testuinguruan, astialdi hezitzailearekin lotutako hiru dekretuen (jardueren dekretua, formazioa eta eskolak) berrikuspen prozesuak aurrera jarraitzen zuela azaldu zen. Kanpamentuen inguruko 1985eko dekretuaren lehen bilera egin berria zen eta hurrengo saioa azaroaren 5ean egitea aurreikusten zen. Foroaren ordezkariak parte hartzen jarraituko zutela adostu zen.

Udako kanpainaren balorazio laburra ere egin zen. Oro har balorazioa positiboa izan zen.

Topaketan hurrengo hilabeteetarako formakuntzen berri eman zen. Batetik, aniztasun funtzionalari buruzko saioa antolatuta zegoela jakinarazi zen, azaroaren 12an Bilbon egingo zena, hezkuntza ez formalaren eremuan lanean ari diren gazte eta hezitzaileei zuzendua. Saio honen helburua aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa eta parte-hartzea errazteko tresna praktikoak eskaintzea zen. Bestetik, Gasteizen ere formakuntza bat antolatzeko asmoa zegoela aipatu zen, tokiko taldeei sarbide errazagoa emateko.

”Tratu on” lan lerroaren baitan barruan egindako aurrerapenak ere partekatu ziren. Astialdi Koordinazio Mahaiaren egindako lanketan, gazteen babesarekin lotutako protokolo berriak lantzen ari direla azaldu zen, eta gazteen iritziak jasotzea funtsezkotzat jo zen.

Gazteaukerako sare sozialetan partekatzeko edukiaren ildoan, astialdiak gizartean egiten dituen ekarpenen inguruan hausnarketa egin zen. Taldeek identifikatu zuten astialdi hezitzaileak gizarteari egiten dizkion ekarpen nagusiak hainbat arlotan: boluntariora eta partaidetza sustatzea, gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzea, komunitatearen kohesioa sendotzea, osasunean eta ongizatean eragitea, euskararen erabilera indartzea eta inklusio eta gizarte-eskubideen aldeko ikuspegi praktikoak lantzea.

Azaroaren 25ean Gasteizen formakuntza itxia egin zen, Arabako Astialdi Foroko kideei zuzendutakoa. Saio honen helburua taldeek euren eguneroko jardunean aurkitzen dituzten egoera inklusiboak modu praktikoan lantzea izan zen. Saioan espazioen antolaketa, zentzumen-ingurunearen kudeaketa, jardueren egokitzea eta norbanakoaren beharretara egokitutako begirada pedagogikoa jorratu ziren. Parte-hartzaileek balorazio oso positiboa egin zuten eta

etorkizunean ildo bereko prestakuntzak errepikatzea interesgarria izango litzatekeela adierazi zuten.

Bigarren seihilekoan zehar, Astialdi Foroak aurrera egin du bai dekretuen berrikuspen prozesuan, bai inklusioaren eta tratu onaren inguruko ildoetan, eta talde ezberdinen arteko koordinazioa sendotzen jarraitu du. Hurrengo hilabeteetan lana jarraitzea eta beharretara egokitutako topaketa-data zehaztea adostu zen.

Bizkaiko Astialdi Foroa:

2025eko urtarrilean **Bizkaiko Astialdi Foroko** topaketa burutu zen. Bertan zazpi sarek hartu zuten parte: Gazteen Gurutze Gorria, Henry Dunant, Kukulaisi, Gaztetxoen Koordinakundea, Izartxo Bizkaia, Zirimola eta Berbaro.

Topaketaren hasieran, azken bileretako parte-hartzearen jarraikortasunarekin lotutako zailtasunak aipatu ziren, eta bilerak goizez egitea proposatu zen, ordutegi horrek parte-hartzaile gehienei hobeto egokitzen zaielako. Ondoren, talde bakoitzak bere egoeraren berri eman zuen eta une horretan zer proiektutan ari ziren laburbildu zuten.

Aurreko urteko lanaren errepasoa egin zen. Aurreko bileran administrazioekin egin beharreko lanketaren inguruan egindako dinamikatik ateratako beharren dokumentua birpasatu zen. Astialdi Koordinazio Mahaia berraktibatuko zela partekatu zen, eta bertan Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak, Astialdi Sareak eta EGK-k parte hartzen dutela gogorarazi zen.

Astialdiari lotutako dekretuen berrikuspen prozesua geldirik egon arren, berraktibatzeke asmoa zegoen. Horregatik, sortutako dokumentuak berrikusi eta parte-hartzaileen ekarpenak jaso ziren. Taldeek dokumentuak baieztatu zituzten.

Formakuntzei dagokienez, aurreko urtean egindako bi jarduera aztertu ziren: hezkidetzari buruzko online formakuntza eta Tratu onen protokoloek buruzko formakuntza presentzialak (Gasteizen eta Bilbon). Parte-hartzaileek balorazio positiboa egin zuten, eta formakuntza presentzialak nahiago dituztela adierazi zuten.

2025erako, EGK-k bi formakuntza proposatu zituen:

- Tratu onaren inguruko formakuntza Gipuzkoan, apirilaren 9an, CRAJ espazioan. Taldeei gonbidapena luzatzea eskatu zitzaien.
- Aniztasun funtzionalari buruzko formakuntza, Azaroan Bilbon izango dena. Saioan arreta berezia eskainiko zaie ADHN (arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendu) eta espektro autistaren nahasmenduren bat duten haur eta nerabeekin lan egiteko tresnei.

Proposamen horiek egokiak zirela adostu zuten, eta, gainera, parte-hartzaileek beste gai batzuk ere proposatu zituzten: emozioen kudeaketa, antsietatearen inguruko formakuntza eta zaugarritasun egoerak detektatzeko gaitasunak lantzea.

Udako ekintzen kanpainari dagokionez, iazko balorazioa positiboa izan zen eta formatu bera mantentzea erabaki zen. Hala ere, zenbait hobekuntza-proposamen jaso ziren:

- Informazioa sinplifikatzea eta erakargarriagoa egitea.
- Kanpainaren helburua argi zehaztea: izen-ematea sustatzea ala aisialdiaren balioa nabarmentzea.
- Eskuorriak eta kartelak inprimatzea, eta ikastetxeetan banaketa sustatzea.
- Talde edo proiektuetan arreta jartzea, ez soilik jardueretan.
- EGKren sare sozialetan Bizkaiko taldeei ikusgarritasuna ematea.

Proposamen horiek guztiak aurtengo kanpaina egiterakoan kontuan izan ziren.

2025eko bigarren seihiako Bizkaiko Astialdi Foroaren topaketa urriaren 21ean egin zen. Topaketaren hasieran, talde bakoitzaren egoeraren eta azken hilabeteetako jardueren inguruko informazioa partekatu zen, eta parte-hartzaileek euren kezka eta beharrak azaldu zituzten.

Azken asteetan Bizkaiko astialdiaren inguruan komunikabideetan agertu ziren gertakariak kezka handia sortu zutela aipatu zen. EGK-k argitaratutako prentsa-oharraren helburua azaldu zen (jakinda iritsi desberdinak zeudela nahiz eta gehienak prentsa-ohar horren alde egon): astialdi hezigarriaren onurak eta adingabeen ongizatea defendatzea, eta ez inoren aurka egitea. Gertatutakoaren inguruan oraindik informazio osorik ez zegoela adierazi zen, baina argi utzi zen haur eta familiek bizitako deserosotasunak kontuan hartu eta arlo horretan hobekuntzak landu beharra dagoela. Gaiak eztabaida ugari sortu zituen eta taldeek egoeraren inguruko iritziak eta kezka partekatu zituzten.

Astialdi Koordinazio Mahaia dagokionez, jakinarazi zen astialdi hezigarriarekin lotutako hiru dekretuen berrikuspen-prozesua berraktibatuta zegoela. Lehenengo bilera 1985eko kanpamentu-dekretuaren inguruan egin zen eta hurrengo saioa azaroaren 5ean izango zela jakinarazi zen (azkenean saio hori bertan behera geratu zen). Prozesu honetan Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak, Astialdi Sareak eta EGK-k parte hartzen dutela gogorarazi zen, eta dokumentu teknikoetan oinarritutako ekarpenak egiten jarraitzea garrantzitsua dela nabarmendu zen.

Azaroan Bilbon egingo zen aniztasun funtzionalari buruzko formakuntza aurkeztu zen, aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeekin lan egiteko tresna praktikoak eskaintzeko asmoz.

Gazteaukerako sare sozialetan partekatzeke edukiaren ildoan, astialdiak gizartean egiten dituen ekarpenen inguruan hausnarketa egin zen. Taldeek identifikatu zuten astialdi hezitzaileak gizarteari egiten dizkion ekarpen nagusiak hainbat arlotan: boluntariora eta partaidetza, gaitasun pertsonalak eta sozialak, komunitatea, osasuna, euskararen erabilera eta abar. Ekarpen hauek *post-it* erabiliz egindako dinamika baten bidez jaso ziren.

Bigarren seihilekoan zehar, Bizkaiko Astialdi Foroak koordinazioan, formakuntzan eta ordezkaritzan sakontzen jarraitu du, eta taldeek kezka eta erronkei modu bateratuan heltzeko espazioak sendotu dira. Parte-hartzaileek adierazi zuten hurrengo hilabeteetan lan ildo hauek garatzen jarraitzea beharrezkoa izango dela, baita topaketen dinamika hobetu eta parte-hartzea egonkortzea ere.

Gipuzkoako Astialdi Foroa:

2025eko martxoan ospatu zen Gipuzkoako Astialdi Foroko topaketa. Kukulaisi eta Ibartxo Lasalle taldeek hartu zuten parte. Bi ordezkarien artean ezagutza aurretik ez zegoenez, saioa aurkezpenekin hasi zen.

Aurrekari modura, azaroan egindako aurreko bileran parte-hartze txikia izan zela gogoratu zen, eta Gipuzkoako foroa Astialdi Foro guztietatik parte-hartze txikiena duena dela adierazi zen. Egoera hori hobetzeko proposamen batzuk jarri ziren mahai gainean: bilera online egitea edo beste hiri batean antolatzea, adibidez.

Formakuntzei dagokienez, aurreko urtean bi jarduera nabarmendu ziren:

- Hezkidetzari buruzko online formakuntza.
- Tratu onen protokoloari buruzko presentziala, Gasteizen eta Bilbon.

2025ean bi formakuntza berri antolatuko zirela jakinarazi zen:

- Tratu onaren inguruko formakuntza Gipuzkoan bertan egingo da, apirilaren 9an Donostiako CRAJ espazioan. Taldeei gonbidapena luzatzea eskatu zitzaion.
- Aniztasun funtzionalari buruzko formakuntza, arreta berezia eskainiz ADHN (arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendu) eta espektro autistaren nahasmenduren bat duten haur eta nerabeekin lan egiteko tresnei. Azaroan Bilbon izango dela jakinarazi zen, eta data zehazteko proposamenak eskatu ziren.

Udako ekintzen kanpaina aurten ere errepikatuko zela adierazi zen, aurreko edizioaren balorazioa positiboa izan baitzen. Hala ere, hainbat hobekuntza proposatu ziren: kartel eta eduki grafikoetan informazio gehiegi dagoela eta ez dela erakargarria adierazi zen.

Gainera, Gipuzkoako Astialdi Mapa osatzeko prozesua aurkeztu zen, eta faseak eta epeak zehaztu ziren.

2025eko abenduan topaketa telematiko bat aurreikusita dago. Bilera honen edukien artean bi gai nagusi landuko dira. Lehenik, Astialdi Koordinazio Mahaiairen egoera aztertuko da: Astialdi hezigarriarekin lotutako dekretuen berrikuspen-prozesuaren jarraipenak izango du tokia, baita Haur eta Nerabeen Legeak eskatzen dituen egokitzapenak zehazteko lana ere. Honen harira, Astialdi Koordinazio Mahaian egiten ari diren aurrerapenen berri emango da.

Bigarrenik, Astialdia balioan jartzeko komunikazio kanpaina aurkeztu eta kontrastatuko da. Bertan abenduan abiatuko den kanpainaren elementuak azalduko dira: irratiko iragarkia, kartel ereduaren proposamenak, eta sare sozialetarako reel profesionalen grabaketa. Horrez gain, komunikazio enpresaren lan-dinamika, grabazioetarako beharko diren ordutegien moldaketak eta parte hartzen duten erakundeentzako datuen babeserako baimen espezifikoak ere jorratuko dira. Horrez gain, taldeen beharrak landuko dira.

Ebaluazioa

- Astialdi Foroaren lanketa lurraldeka egin da, lurralde bakoitzaren ezaugarriei moldatuz.
- Astialdi Foroko taldeekin mantendu den harreman etengabeari esker, taldeek dituzten beharrak, gabeziak eta interesak modu egituratuan bildu dira. Harreman horrek informazio praktikoa eta eguneratua eskuratzeko aukera eman du, eta Astialdiaren eguneroko jardunean eragina duten faktoreak sakonago ezagutzea ahalbidetu du.

- Aurreko urteko topaketetan identifikatutako interes eta beharretatik abiatuta, hainbat lanketa bideratu dira: formakuntza proposamen berrien egokitzapena, parte-hartzea sustatzeko estrategiak, eta taldeek egunerokoan dituzten zalantza zein erronkei laguntza praktikoa ematea.
- Astialdi Taldeen beharrak, gabeziak eta interesak bildu ostean, indartzeko plana martxan jarri egin zen.
- Tratu onen txostena momentuz ez da argitaratuko nahiz eta EGK-k arlo honetan hainbat dokumentu sortu izan. Momentu honetan Haur eta nerabeen legeak aurreikusten dituen formakuntza eta protokoloak lurreratzeko asmoarekin lanean gabiltza Astialdi Koordinazio Mahaian. Prozesu bikoizketa bat ekiditeko txostena ez argitaratzea erabaki zen. Helburua da modu koordinatuan lan egitea, administrazioekin eta gainontzeko eragileekin batera, hutsunerik sortu gabe eta dokumentazio paraleloa sortzea ekidinez.

4.3 Astialdiko Eskolen Foroa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) astialdi eskolekin mantendu duen elkarlana sendoa eta sakona izan da. Urteotan, astialdi eskolekin izandako harremanak proiektu komunak aurrera ateratzea ahalbidetu du eta ikuspuntu bateratuak ezarri dira administrazioen aurrean, eskolen arteko elkarlana indartuz.

Dekretu aldaketak, Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategia, 2023ko azken hilabeteetan sortutako eztabaidak direla eta **Astialdiko Eskolen Foroa** piztu egin zen EGK-ko Astialdiko lan-arlotik.

EGK-k, aurten, **Astialdiko Eskolen Foroa** sustatzen jarraitu du, astialdi eskolentzako espazio bat izateko helburuarekin. Foro honek aukera ematen die eskolei elkarren artean konektatzeko eta astialdiko ikastaroen egungo errealitatearen inguruan hausnartzeko. Espazio hau eskolekin adostutako maiztasunarekin aktibatzen da, helburua izanik diskurtso eta posizionamendu bateratuak eraikitzea eta horiek eragiteko espazioetara eramatea. Lantalde honetatik hainbat ekintza sor daitezke (komunikazio-, prestakuntza- eta sustapen-ekintzak, besteak beste), astialdiko hezkuntza eta begirale-taldeen formakuntza beharra indartzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi eskoletarako topagune bat ahalbidetzea zeinean partekatu, posizionamendu komunak eratu eta elkarren arteko saretzea indartu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdiko eskolen egungo egoera eta beharren inguruko hausnarketa gauzatzea.
- Astialdiko eskolei eragiten dieten dekretuen inguruan hausnartzea.
- Kalitatezko formakuntza sustatzea astialdiko eskolekin batera.

Garapena

Lehenengo sei hilekoan ez zen topaketarik egin, ez baitzegoen berrikuntza esanguratsurik partekatzeko. Hala ere, aurretik landutako ildoari jarraipena emateko asmoari eutsi genion eta uda aurretik ikasturte hasieran egiteko bilera bat aurreikusita utzi genuen.

Bigarren sei hilekoan Astialdiko Eskolen Foroaren jarduna aktibo mantendu da, nahiz eta lehen sei hilekoan bezala ez izan aurrerapauso esanguratsurik araudiaren inguruan. Hala ere, foroak elkarlanerako eta egoeraren jarraipena egiteko espazio egonkorra izaten jarraitu du.

Irailaren 16ko bileran, eskolek berretsi zuten oraindik ez zegoela berritasunik Eskolen Dekretuari buruz, eta Gazteria Zuzendaritzak zirriborroa noiz aurkeztuko den ez dela ezagutzen. Eskolek eskaera argia egiten diote EGKri: zuzendariarekin harremanetan jarraitzea eta epeak presionatzea, prozesua bertan behera ez gera dadin. Halaber, sare sozialetarako edukien lanketarako dinamika partekatu zen, eta Gazteaukera konturako eduki bateratuak sortzeko proposamenak zehaztu ziren (reels formatuan), horretarako barne-drive bat sortu zen eta lan-karga nagusia EGKren gain jartzea erabaki zen, eskolen gainkarga saihesteko.

Azaroaren 10eko bilerak astialdi eskolen egoeraren inguruko diagnostiko sakonagoa ekarri zuen. Eskolek zailtasun zehatzak partekatu zituzten: ikastaroak ateratzeko arazoak, Lanbidekiko gorabeherak (memoria hau idazterakoan konponduta daudenak), eta araudi berriak markatzen dituen aldaketetara egokitze beharra. Parte-hartzaileek adierazi zuten arazoa ez dela soilik ikastaroak antolatzea edo ez, baizik eta Lanbideren logikak astialdi hezigarriko ereduarekin talka egiten duela, eta antolaketa osoaren berrikuspena eskatzen duela. Hala ere, badirudi finantzatu gabeko ikastaroak aurkezteko aukera berriro zabaldu dela.

Astialdi Koordinazio Mahaian araudien berrikuspenari ekin zaiola (kanpamentuen dekretua eta beste bi dekretu lotu) jakinarazi zen. Eskolek informazio eguneratua jaso dute prozesuaren inguruan. Aldi berean, Gazteaukera Instagramerako Reel-en grabazioak jarraitu dira, eskolen eta taldeen parte-hartzea txandakatu eta aniztasuna zaintzeko dinamikarekin.

Azkenik, Bernedoko kanpaldian izandako gertaeren ondorioz osatutako mahaiaren baitan, Gazteria Zuzendaritzak eta Foru Aldundiek komunikazio-kanpaina orokor bat abiatzea erabaki zutela jakinarazi zitzaion. Kanpaina honen helburua astialdi hezigarria balioan jartzea da.

Ebaluazioa

- Arau-berrikuntzaren prozesua: Bigarren seihilekoan ere ez da aurrerapen zehatzik egon Eskolen Dekretuaren inguruan. Ondorioz, oraindik ez da posible izan posizionamendu bateraturik lantzea. Hala ere, elkarriketa-lerroak zabalik mantentzea eta eskolek beren kezkak partekatzea positibotzat baloratzen da.
- Astialdi eskolen beharrak kontuan hartu dira, eta haien ekarpenak jaso dira azken topaketetan eta egindako jarraipen-harremanetan.
- Zuzendaritzak diseinatutako komunikazio kanpainak eta Gazteaukerako instagramean martxan jarri den astialdi atalak sektorearen ikusgarritasuna handituko du, eta eskolek parte hartzeko prestutasuna erakutsi dute. Horrek erakusten du foroak bere funtzioa betetzen jarraitzen duela: eskolei informazioa helaraztea, posizio komunak eraikitzea eta parte-hartze aktiboa sustatzea.

4.4 Astialdiko formakuntzak: boluntarioria eta elkartegintza

Euskadiko astialdiko taldeen beharrak aztertuz, taldeetan ematen den boluntarioria ereduari lotutako problematika ezberdinak azalera atera egin ziren, beste batzuen artean, begirale boluntarioen antolamendua eta kudeaketa lanak. Egoera hauen aurrean, esku hartzeko moduak desberdinak dira, talde bakoitzaren errealitatea aztertzea eta modu indibidualean lanketak egitea garrantzitsua bada ere, **Astialdi Foroen** baitan batik bat, EGKn astialdian jarduten duten boluntarioei formakuntza teoriko-praktikoak eskaintzea erantzun egokia izan daitekeela defendatzen da. Horren ondorioz, azaldutako egoerei erantzuna emateko xedearekin formakuntza ezberdinak gauzatzea aurreikusi zen.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkuntza ez formaleko eragileei prestakuntza teorikoa ematea, beren hezkuntza-ekintza eta taldearen kudeaketa indartzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkuntza ez formaleko eragile gazteen beharrak jasotzea, Astialdiko lan-arloko plangintzako aurreko ataletan azaldu den moduan.
- Behar horiei erantzuteko formakuntza ekintzak sustatu.
- Gazte boluntarioen jarduna balioan jartzea.

Garapena

Urtean zehar astialdiarekin lotutako formakuntzak bultzatzen jarraitu dugu. Formakuntzak aurrez aurreko formatuan eskaintzea erabaki zen. Lehenengo seihilekoan, formakuntza bat gauzatu zen, aurreko urtean Gasteizen eta Bilbon egindako Tratu onen eta babes protokoloen inguruko formakuntzaren jarraipena izan zena.

Tratu onen eta babes protokoloen inguruko formakuntza:

Apirilaren 9an, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) haur eta nerabeen babeserako protokoloak buruzko ekitaldia antolatu zuen, Donostiako Gaztegunean. Saioa UNICEF eta EDE Fundazioko adituen laguntzarekin garatu zen, eta astialdiaren esparruan haur eta nerabeen babesari buruzko gogoeta eta eztabaida sustatzea izan zuen helburu.

Eusko Legebiltzarrak onartutako Haur eta Nerabeen Legeak astialdian eta kirolean babes-protokoloak ezartzeko beharra aurreikusten zuen, eta gai horrek kezka handia eragin zuen astialdiko begirale gazteen artean. Horren aurrean, EGK-k gune bat eskaini zuen lege honen inplikazioak aztertze eta taldeek tratu onaren aurkako egoerei nola aurre egin dezaketen hausnartzeko.

Ekitaldian bi atal nagusi egon ziren: lehenengoan, adituek legearen eta babes-protokoloen inguruko azalpenak eman zituzten; bigarrenetan, parte-hartzaileek gaiari buruzko galderak egin eta esperientziak partekatu zituzten. Formatu honek eztabaida konstruktiboa bultzatu zuen, eta bertaratuek astialdiko taldeetan babes-politika eraginkorrak aplikatzeko ideia argiagoak eraman zituzten.

Izena ematea galdetegi baten bidez egin zen, eta ekitaldiak parte-hartze zabala izan zuen, astialdiko begiraleen eta eragileen artean interes handia sortu baitzuen. Informazio gehiagorako EGKren kontaktuak erabilgarri egon zen, dinamika arrakastatsua eta parte-hartzailea bermatzeko.

Aniztasun funtzionala hezkuntza ez-formaleko espazioetan:

Urteko bigarren formakuntza aniztasun funtzionalari buruzkoa izan da, hezkuntza ez-formaleko espazioetan inklusioa sustatzeko helburuarekin. Formakuntza azaroaren 12an gauzatu zen, 17:00etatik 20:00etara, Bilboko La Perrera Espazioan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarlanean antolatuta. Saioa Amesten Elkarteko adituek eskaini zuten, eta hezkuntza ez-formaleko eremuan lanean edo boluntariotzan aritzen diren gazte eta hezitzaileei zuzenduta egon zen. Ekitaldiaren deialdia eta oinarritzko informazioa publikoa egin zen, eta bertan argi adierazi ziren helburuak eta izen-ematearen baldintzak

Formakuntzak aniztasun funtzionala duten pertsonen parte-hartzea eta ongizatea bermatzeko oinarritzko ikuspegiak landu zituen. Horien artean, irisgarritasun fisikoa, kognitiboa, emozionala eta sensoriala lantzearen garrantzia nabarmendu zen, bai eta espazioak modu antolatuan eta egokitan diseinatzearena ere. Amesteneko adituek azpimarratu zuten inklusioa ez dela soilik jarduera bat egokitzea, baizik eta pertsonaren ezaugarriak, interesak eta behar indibidualak errespetatzen dituen ikuspegi integral bat eraikitzea. Horretarako, hainbat adibide eta jardunbide egoki jaso ziren, *Prácticas inclusivas en espacios de tiempo libre educativo* dokumentuan jasotako ideietan oinarrituta

Saioa dinamikoa eta parte-hartzailea izan zen. Lehenengo zatian, aniztasun funtzionalaren inguruko oinarritzko kontzeptuak eta desgaitasunaren ereduen bilakaera azaldu zituzten, norberaren inguruneak sortzen dituen oztopoek duten eragina azpimarratuz. Ondoren, talde txikietan lan eginez, parte-hartzaileek beren eguneroko jardunean aurkitu ohi dituzten egoerak aztertu zituzten, eta oztopo fisiko, kognitibo edo emozionalak identifikatzen ikasi zuten. Talde-lan horietan, hezitzaileek beren esperientziak partekatu ahal izan zituzten, eta adituen orientazioarekin, espazio inklusiboak sortzeko estrategia berriak diseinatu zituzten.

Formakuntzak harrera ona izan zuen, eta parte-hartzaileek balorazio positiboa egin zuten, batez ere praktikoa eta aplikagarria izateagatik. Nabarmendu zen inklusioa ikuspegi transbertsaletik lantzearen beharra: taldearen antolaketan, komunikazioan, dinamiketan eta espazioaren diseinuan. Saioak gogorarazi zuen diagnostiko batek orientatu ahal duela, baina ez duela pertsona

definitzen; eta inklusioa, azken batean, jarrera bat dela, eguneroko jardunean modu etengabea eraikitzen dena.

Formakuntza hau urteko prestakuntza-lerroaren baitan kokatu da, eta jasotako ekarpenek eta hausnarketek etorkizuneko proposamenak sendotzeko balioko dute, astialdian eta hezkuntza ez formaleko espazioetan aniztasun funtzionala duten pertsonen parte-hartze erreal eta eraginkorra bermatzeko.

Ebaluazioa

- Hezkuntza ez formaleko eragileen behar formatiboak aztertu dira.
- Hezkuntza ez formaleko eragileei zuzendutako formakuntzak EGK-ko Formakuntza Planarekin lerrokatu eta koordinatu dira, astialdiaren esparruan tratatu ona, babes-protokoloak eta inklusioa ardatz hartzen dituzten ildoekin koherentzia mantenduz.
- Hezkuntza ez formaleko eragileei zuzendutako formakuntza bat gauzatu da lehen seihilekoan, tratatu onen eta babes protokoloen ingurukoa, eta bigarrena, aniztasun funtzionalaren ingurukoa, urte amaieran gauzatu da; bi saioek harrera ona izan dute eta parte-hartzaileek balorazio positiboa egin dute, eduki praktikoa eta aplikagarriengatik.
- Formakuntzen emaitzek adierazi dute ikuspegi praktikoa eta parte-hartzailea funtsezkoa dela hezitzaileen gaitasunak indartzeko, eta EGK-k etorkizunean prestakuntza-ildo hauek sendotzen jarraitzeko beharra berresten dute.

4.5 Harremanak eragileekin

Aurten, astialdiko eragileekin mantendu diren harremanei dagokienez, Astialdi Hezigarria lan-komunitatearen eta Astialdiko Koordinazio Mahaiaren bilerak egin dira. 2024ko ildoan lan egiten jarraitu da, Koordinazio Mahaiaren jarraibideen eta estrategiaren ardatz eragileen (ikerketa, web orria...) arabera.

Astialdiko lan-arloa astialdiko eragile guztiekin (astialdi foroak, astialdi sare ezberdinak, taldeak, eskolak, begiraleak, familiak...) harremanak izatean oinarritzen bada ere, aurten, astialdiko lan-esparrutik, sare hori zabaldu nahi izan da, egiten den lana beren helburuagatik astialdikoak ez diren baina astialdiko programak dituzten erakundeetara hurbilduz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi Foroen sarea indartzea eta zabaltzea, astialdi hezigarriko programak dituzten erakundeekin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi Hezigarria sustatzeko 2030 Euskal Estrategiaren ondorio positiboak eragile desberdinetara hedatzea.
- EGK-k Astialdi hezigarriaren inguruan duen diskurtsoa hedatzea eta zabaltzea, hala nola, aniztasun funtzionala, ijitoak, etab. bezalako kolektiboekin.

Garapena

Astialdi Koordinazio Mahaia:

Mahai honetan Eusko Jaurlaritzako Gazteria Saila, Astialdi Sareak eta EGK biltzen dira, eta espazio hau azken hilabeteetan astialdi hezigarriaren etorkizunerako gako diren gaiak lantzeko erreferente bilakatzen ari da. Mahaiaren helburua da Astialdi Hezigarria Sustatzeko 2030 Euskal Estrategiaren barruan jasotako erronkei modu koordinatu eta eraginkorrean heltzea, eta horretarako bilera erregularrak egin dira, eragile bakoitzak bere ikuspegia eta beharrak ekar ditzan.

Bilera hauetan jorratutako gai nagusietako bat Tratu Onen inguruko lana izan da. Azken urteetan astialdiko taldeetan gero eta ardura handiagoa sortu da haur eta nerabeen babesaren inguruan, eta horrek prestakuntza espezifikoagoa eta jarraituagoa eskatzen du. Mahaiak aukera eman du Tratu Onen inguruko formakuntzen egiturak aztertzeko, protokoloen ezarpena nola egin definitzeko eta taldeek dituzten zalantza praktikoak jasotzeko. Gainera, babes-prozedurei buruzko orientazioak bateratzeko beharra nabarmendu da, eta erakunde arteko koordinazioak zenbait argibide emateko balio izan du. Eztabaidetan argi geratu da erronka ez dela soilik protokoloak edukitzea, baizik eta taldeek eguneroko jardunean benetako kultura prebentiboa eta zaintzazkoa garatzea.

Horri lotuta, formakuntza beharrak eta komunikazio premiek ere presentzia handia izan dute. Gazteaukerako sare-sozialen aktibazioaren inguruan egindako gogoetek agerian utzi dute beharrezkoa dela astialdiko esparruan egiten den lana modu erakargarriagoan eta ulergarriagoan zabaltzea. Komunikazio-kanpaina bateratu bat diseinatzeko lehen pausoak eman dira, eta eragile

bakoitzak bere ekarpena egin du mezuei, ikuspegiei eta helburuei buruz. Helburua izan da astialdia ikuspegi hezitzaile eta prebentibo batetik sozializatzea, gazteengana modu zuzenean eta irisgarrian iritsiko diren edukiak bilatuz. Kanpainaren diseinu prozesuak elkarriketa aberasgarriak sortu ditu, eta mahaia adostu du etorkizunera begira ere lankidetzara hori indartu beharko dela.

Era berean, koordinazio mahaian taldeek URA agentziarekin izan dituzten arazoak jorratu dira, zehazki espazio naturaletan egiten diren astialdi jardueren baimenak, erabilera baldintzak eta komunikazio kanalak direla eta. Gai honek kezka handia sortzen du astialdiaren eremuan, izan ere, askotan baimen prozedurak konplexuak dira, eta talde askok ez dute informazioa oso argi. Mahaia egoeraren mapa bat egiten lagundu du, eta administrazio eskudunarekin harremanak bideratzeari ekin zaio irtenbide eraginkorrak bilatzeko. Prozesu horretan, EGK-k gazteen taldeetatik jasotako iritzia eta egoera errealak mahaia ekartzea izan du lehentasun.

Bestalde, dekretuen berrikuspenek ere protagonismo handia izan dute. Astialdiaren jardunari eragiten dioten arau-esparruak berritzeko prozeduran gaudenez, mahaia aukera eman du eragile bakoitzaren kezka eta ekarpenak jasotzeko. Astialdi Sareek eta EGK-k adierazi dute berebiziko garrantzia duela aldaketa horiek talde txikien errealitatea kontuan hartzea, baita boluntariotzaren rola, hezitzaileen lana eta administrazioarekin izaten diren harremanak ere. Bilerak hauek baliagarri izan dira lege-testuak modu praktikoagoan interpretatzeko eta administrazioari proposamen zehatzak helarazteko.

Mahai honetan landutako gai guztiak Astialdi Hezigarriko lantalde teknikoan osatu eta sakondu dira, Astialdi Sarearen eta Astialdi Foroaren (EGK) esku. Dinamika honek aukera eman du mahai zabaleko eztabaidak lan tekniko eta operatiboarekin uztartzeko. Lantalde teknikoaren bidez, EGK-k astialdiko taldeetatik jasotako kezka eta behar praktikoak modu fidagarrian eraman ditu koordinazio mahaia, eta, era berean, mahaia adostutako orientabideak taldeetara itzultzeko zubi lana egin du.

Honenbestez, Astialdi Koordinazio Mahaia espazio sendo eta funtzionala bihurtu da, astialdi hezigarriaren sektore osoaren ahotsak modu ordenatu eta bateratuan jasotzeko. Elkarlanak gai konplexuak modu eraikitzailean lantzeko aukera eman du, eta mahaia markatutako ildoek etorkizuneko lanak egituratuko dituzte, bai formakuntza ildoan, bai komunikazioan, bai protokoloetan eta araudiaren jarraipenean. EGK-ren ikuspegitik, espazio honek berebiziko balioa izan du gazteen eta astialdiko talde gazteen beharrak modu argi eta koherentean defendatzeko.

Astaldi Hezigarria lantaldea:

Urteko lehenengo erdian Astaldi Hezigarriko lantalde teknikoa mantendu egin zen. Egitura hori EGK-ko 3 teknikarik eta Astaldi Sareko 2 teknikarik osatzen dute. Hala ere, azkenengo bileretan agenda arrazoiak direla eta entitate bakoitzeko teknikari bat besterik ez da egon. Astialdiko taldeak babesteko eta laguntzeko ekintzak indartu ahal izateko, antolatze eta koordinatzeko barne egitura sendo bat ezartzea garrantzitsua da, Euskadiko astialdiko erreferente gisa. Astaldi Hezigarriko talde teknikoak astialdiko taldeak babesteko eta laguntzeko programa (estrategiaren bigarren ardatza) zuzendu, landu, diseinatu eta kudeatu egin du Astialdiko Koordinazio Mahaian landutako gaiak jorratuz. Talde honen baitan, Astaldi Hezigarriko komunikazio-estrategia garatzeko jarraibideak, Gazteaukerako webgunean publikatzeko eduki eta webguneak diseinuan egiteko hobekuntza proposamenak biltzen dituen dokumentu bat garatu egin zen Astaldi Koordinazio Mahaiaaren jarraibideen arabera. Azkenengo hilabeteetan dokumentu horretan bildutako proposamenak martxan jartzen hasi dira. Honez gain, Gazteaukerako sare-sozialetan astialdiari lotutako atal berri baten sorrera lana egin da. Astaldi Hezigarriko lantalde teknikoa atal honen sorreran, baita atala hornitzeko edukiaren eraketan lan egiten egon da.

Bilera horietan adostu zen sare sozialetako edukiak bi formatuen inguruan antolatzea – karruselak eta bideo formatu laburrak (reels)– eta argitaratzeen egutegia hileroko zehaztea, jardueren agenda eta bideoen ekoizpena uztartuz.

Horren ildotik, lantalde teknikoak bideoen serie tematiko baten plangintza diseinatu du, Astaldi Hezigarriak gizarteari hainbat arlotan egiten dizkion ekarpenak ikusgarriago bihurtzeko. Gai bakoitzerako gidoi labur eta bateratuak prestatu dira, ekoizpen hausnartua eta koherentea bermatzeko, eta Astaldi Foroan jasotako ekarpenak ere txertatu dira.

Komunikazio estrategia zabalago baten barruan, lantaldeak Astaldi Hezigarria balio hezitzaile gisa ezagutarazteko kanpaina orokorrean ere parte hartu du. Kanpaina honen oinarria da astialdia ez dela astialdi hutsa, baizik eta komunitate-sareak sortzen dituen eta balioetan hezten duen esparru eraldatzailea dela, eta helburua da astialdiaren ikusgarritasun soziala handitzea eta haren balioa gizartearen aurrean legitimazio handiagoz kokatzea. Lantalde honek kanpainaren disenuan parte hartu du Trupp agentziarekin elkarlanean. Horrez gain, astialdi taldeen ordutegiak eta datu-babes baimenak kudeatu ditu grabazioak Aurrera eraman ahal izateko. Kanpaina abenduaren 22an argitaratuko da.

Unifaktori:

Aurreko urtean, nahiz eta aurreikusita ez egon, UNIFAKTORI lantaldean parte hartu zen, BizkaiaGarako ekimenen barruan. Lantalde hau hainbat aldiz bildu zen KIDE programa diseinatzeko. Programa honen helburua unibertsitateen arteko lankidetzaren sustatzea eta baliabideen eta aukeren sarbidea hobetzea zen bai eta ikasleen ekimenak eta gaitasun pertsonalak zein profesionalak garatzeko espazio bat eskaintzea ere. Azkenengo hilabeteetan proiektu honetara agente berriak gehitu dira. Zenbait bilera ospatu dira proiektu formal bat garatzeko helburuz.

Euskaditik mundura:

Euskaditik Mundura: una aproximación crítica a la Agenda 2030 vasca proiektua Alboan erakundearen eta Deustuko Unibertsitatearen ekimena da. 2024ko amaieran hasi zen proiektu bat da, 2025ean zehar luzatu egin dena.

Proiektuaren helburu nagusia 2030 Agendaren analisi kolektibo eta kritiko bat egitea zen, Euskadiko GIHen inplementazioa hobetzeko proposamen eta gomendio konkrituak sortuz, betiere giza eskubideak eta ikuspegi globala kontuan hartuta.

Horretarako, proiektua lau talde tematiko ezberdinetan banatzen zen. 2025erako aurreikusitako bi saioak ospatu egin ziren. Proiektuari amaiera jarri zioten maiatzean ospatutako ekitaldi batekin. Bertan lau lantaldeak bildu zituzten hainbat hizlari entzuteko, landutakoa amankomunean jartzeko eta lanean jarraitzeko.

Hitzalekua:

Astaldi Hitzalekua eragileen komunitate bat da, zuzenean edo zeharka EAEko haurren, nerabeen eta gazteen hezkuntza-aisialdiko garapenak bultzatzen dituen zenbait testuingurutatik eta ikuspegitatik. Elkartzeko, ezagutza sortzeko, lankidetzan aritzeko eta proiektuak eraikitzeko gune bat da. Arlo askotako eragileak ditu: gizarte-ekimeneko erakundeei lotutakoak, zerbitzu eta administrazio publikoetakoak, zerbitzuak ematen dituzten erakundeetakoak, unibertsitateetakoak, lanbide-heziketakoko ikastetxeetakoak, haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako baliabide eta proiektu espezializatuak, familiak, dinamizazio komunitariokoak...

EGK-k topaketa plenarioetan parte hartzen du. Horrez gain, talde eragilean dago. Aurten, Hitzalekuko 4 topaketa ospatu dira, 3 Bizkaian eta laugarrena Gasteizen. Talde eragileko kideak berriz hilean behin bildu dira.

Amesten:

Aniztasun funtzionalaren inguruko formakuntzaren prestakuntzaren garapenean, Amesten elkartarekin lankidetzat estua izan da. Haiek arduratu dira saioa dinamizatu eta hezkuntza ez-formalean ari diren gazteei zein hezitzaileei orientazio espezializatua eskaintzeaz. Lankidetzat horrek aukera eman du inklusioaren ikuspegi praktiko eta integrala lantzeko, eta espazio hezitzaileetan eman daitezkeen egoeren inguruko gogoeta aberasteko.

Amesten elkarteak ekarritako ezagutza eta esperientzia funtsezkoak izan dira aniztasun funtzionala duten pertsonen parte-hartzea erdigunean jartzen duten jardunbide egokiak identifikatzeko. Horren harira, astialdi espazioetan aplikatzeko praktika inklusiboak bildu eta sistematizatu dira, datorren urtarrilean argitaratuko den dokumentu batean jasotzeko helburuarekin. Lankidetzat honek, beraz, ez du soilik formakuntza aberastu, baizik eta astialdi hezigarri inklusiboago baterako oinarri praktiko eta teoriko sendoagoa eraikitzen lagundu du.

Ebaluazioa

- Astialdi Hezigarriko bilerak modu erregularrean egin dira, eta horiei esker 2030eko Euskal Estrategiaren helburuak eta lan-ildoak garatu eta jarraitu ahal izan dira. Bilera horiek izan dira astialdi hezigarriaren eremuan sortu diren erronkei eta premiei modu koordinatuan erantzuteko oinarritzeko espazioa.
- Euskal Estrategiaren ardatzak lantaldean koordinatu egin dira. Lantalde teknikoaren egiturak aukera eman du eragile ezberdinen ekarpenak bateratzeko eta Koordinazio Mahaian adostutako orientazioak praktikara eramateko.
- Astialdiko Koordinazio Mahaian EGKren diskurtsoa modu koherente eta jarraituan helarazi da, bereziki Tratu Onen, komunikazio beharren eta araudiaren berrikuspenen inguruan. Era berean, EGK-k proposamen zehatzak egin ditu sektorearen beharrei erantzuteko, eta horrek erakundearen papera sendotu du eragile arteko espazioetan.
- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin bilerak egin dira, hala nola Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailarekin, Astialdi Sareekin, Trupp komunikazio agentziarekin, eta

bestelako astialdi-sare eta erakundeekin. Harreman horiei esker, sektorearen erronkak modu integralean landu dira eta lankidetza dinamika berriak sortu.

- Kontaktuen zabalpena egokia izan da, sare berriak sortu dira eta lehendik zeudenak indartu. Aurten, gainera, astialdia helburu nagusitzat ez duten baina astialdiko programak garatzen dituzten erakundeetara gerturatzea lortu da, astialdi hezigarriaren ikuspegia sektore zabalago batera eramanez.
- Astialdiaren esparruan lan egiten duten aniztasun funtzionalarekin lotutako entitateekin harremana sustatu izana. Horrek aukera eman du diskurtso partekatuago bat lantzeko eta kolektibo horien behar espezifikoak astialdi hezigarriaren esparruan txertatzeko.

4.6. Gazteriaren elkargunea

2025ean, EGK-k Gasteizko Udalak sustatutako **Gazteriaren elkargunearen** topaketetan parte-hartzea sendotzea eta gazteen beharrak erdigunean jartzen jarraitzea adostutako helburua zen. Horretarako, EGK-k **Gazteriaren elkargunean** jarraitzeko konpromisoa hartu zuen, gazteek planteatutako erronkak eta proposamenak jorratzeko, gazteriaren interesak modu eraginkorrean ordezkatzuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gasteizko Udalarekin harremana estutzea, gazteen behar, interes eta iritziak erdigunean jarriz, eta **Gazteriaren elkargunearen** bidez haien ahotsa udalaren erabakiguneetan modu eraginkorrean ordezkatzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gasteizko Udalarekin lankidetza sendotzea, gazteekin lotutako gaietan eragin handiagoa izateko.
- Gazteen parte-hartzea sustatzea **Gazteriaren elkargunearen** bileretan, haien beharrak eta interesak modu aktiboan mahai gainean jartzeko.
- Proposamen zehatzak egitea **Gazteriaren elkargunean**, gazteen eskariak kontuan hartu daitezen udalaren plangintzan.
- Topaketetan presentzia etengabea bermatzea, gazteen ikuspegia ordezkatzuz.

Garapena

EGK-k 2025ean Gazteriaren elkargunean duen parte-hartzea sendotzeko konpromisoa hartu zuen, gazteen beharrak, interesak eta iritzia Gasteizko Udalaren erabakiguneetan eraginkortasunez ordezkatzeko. Urtean zehar elkarguneko bileretan parte hartu da, eta EGK-k bere iritzia eta gazteen ekarpenak helarazi ditu Gasteizko Udalaren politiketan eragiteko.

Topaketetan, gazteen ikuspegia ordezkatzeko izan da EGK-ren ardatz nagusia, bai aurrekontuen eztabaidetan, bai gazteriaren politikekin lotutako gaietan. Horren adibide da urriaren 2ko ohiko bilkuran izandako parte-hartzea, 2026ko udal aurrekontuaren inguruko eztabaida eta proposamenak lantzeko eginda

Bestalde, elkargunearen funtzionamendua hobetzeko proposamenak egin dira, irisgarritasuna bermatzeko eskaintzen diren baliabideak (hala nola zeinu-hizkuntza interpretazioa edo parte-hartzea errazteko tresnak) egokia eta erabilgarria izan dadin, eta gazte gehiagok parte hartu ahal izan dezaten.

Ebaluazioa

- EGK-ren parte-hartzea egonkorra eta etengabea izan da Gazteriaren elkargunean.
- Udalarekin izandako harremanen maiztasuna handitu egin da, eta komunikazio-fluxua arinagoa eta eraginkorragoa bihurtu da.
- Oro har, urteko balorazioa positiboa izan da: EGK erreferente gisa sendotu da Gasteizko gazteriaren beharrak eta ikuspegia udalaren aurrean ordezkatzekoan, eta 2026an ere lan-ildo bera indartzen jarraitzeko oinarriak ezarri dira.

5. PARTAIDETZA



Partaidetza lan-arloa 2013ko uztailan sortu zen, EGK-ko Batzar Orokorrean onartutako “Indartzen” plan estrategikoan agindutakoa beteta.

EGK gazteriaren eta administrazio publikoen arteko zubia izanik, partaidetza lan-arloaren helburua politika publikoen lanketan gazteen partaidetza sustatzea da. Horretarako, planteatutako ekimenen bitartez partaidetza modu praktikoan sustatzeaz gain, gazteriaren partaidetzaren errealitatea jaso, horren gaineko hausnarketa egin eta hobekuntzak proposatuko dira.

Arlo honek lan teorikoa eta praktikoa uztartzen ditu; beraz, elkarte zein entitate ezberdinekin batera lana bulegotik kanpo egingo da askotan.

5.1 2024-2030 Plan Estrategikoa eta Urteko Ekintza Plana

Partaidetza lan-arloa 2013ko uztailan sortu zen, EGK-ko Batzar Orokorrean onartutako “Indartzen” plan estrategikoan agindutakoa beteta.

EGK gazteriaren eta administrazio publikoen arteko zubia izanik, partaidetza lan-arloaren helburua politika publikoen lanketan gazteen partaidetza sustatzea da. Horretarako, planteatutako ekimenen bitartez partaidetza modu praktikoan sustatzeaz gain, gazteriaren partaidetzaren errealitatea jaso, horren gaineko hausnarketa egin eta hobekuntzak proposatuko dira.

Arlo honek lan teorikoa eta praktikoa uztartzen ditu; beraz, elkarte zein entitate ezberdinekin batera lana bulegotik kanpo egingo da askotan.

2024. urtean Partaidetza arlotik, Presidentziarekin batera, 2024-2030 Plan Estrategikoa egituratu egin zen, partaidetzarekiko sortutako erronken aurrean ekimen ezberdinak planteatzeko. Plan honi jarraiki, urte bakoitzean, Urteko Ekintza Plana egituratu egin behar da.

2025eko Urteko Ekintza Planaren ardatz nagusiak EGK-ko partaidetza kuotak sendotzean izan du bere oinarri nagusia, Partaidetza lan-arloaren sustraiak EGKren lan arlo guztietan zeharka eraginez. Modu honetan, partaidetza areagotzeko helburuarekin, EGK-ko proiektu guztiek partaidetza sustatzeko estrategia indibidualizatuak dituzte.

Halaber, gazteen eta gazte elkarten partaidetza sustatzeko lan egin da, 2024. urtean egindako diagnostikoa oinarria izanik. Gazte elkarten zaintza eta bidelaguntza da lan-arloaren eginkizun nagusietako bat, gazte elkarteek EGKrekiko duten harremana indartuz eta elkarte berrien partaidetza sustatuz.

Modu honetan, Urteko Ekintza Planak hainbat lan ildo izan ditu gazteen eta gazte elkarten partaidetza sustatzeko, hala nola, EGK-ko Inklusio Plana ezartzea, Eragin Politikorako plana sendotzea, belaunaldi arteko jardueretan eragitea, entitate laguntzaileekiko harremana ordenatzea, eta abar.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ren **Plan Estrategikoa eta Urteko Ekintza Plana** garatzea, partaidetza areagotzeko lan ildoak egituratuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKn partaidetza are gehiago sustatzeko marko berriak egonkortzea eta zeharkako moduan lantzea lan-arlo guztietan.

- Gazteen eta gazte elkarten partaidetza sustatzea, elkarteei bidelaguntza eskainiz eta haien aldeko eragina eginez.
- Partaidetza modu inklusibo eta parekidean sustatzeko neurriak ezartzen jarraitzea.

Garapena

2024-2030 Plan Estrategikoari jarraipena eman zaio Presidentziarekin koordinatuta, hortaz, Plan Estrategikoarekin doan 2025eko Urteko Ekintza Plana diseinatu eta martxan jarri da, partaidetza areagotzeko beharraren ikuspegia zeharka txertatuz. Behin diseinua eginda, EGK-ko Batzar Orokorrean aho batez onartu zen.

Ekintza Plan honek, aurreko urteko planaren antzera, hiru ardatz estrategiko nagusi ditu: euskal gazteen partaidetza osoa eta eraginkorra lortzea, EGK eta bertako kide diren erakundeak indartzea eta gazteen eskubideak betetzeko eragin politikoa. Ardatz Estrategiko bakoitzak azpi ekintza ezberdinak barne hartzen ditu eta memoria honetan aurrerapauso esanguratsuenak nabarmenduko dira.

Ardatz Estrategikoa: Gazteen partaidetza osoa eta eraginkorra lortzea:

- Gazteek eta erakundeek politikan parte hartzea.

Atal honetan gazteen parte hartzea politikan indartzeko alderdi politiko eta sindikatuen gazte sailekin harreman estuagoa izatea aurreikusita zegoen. Zentzu honetan, Euskadiko UGT-ko Gazteria Departamentuarekin harremana estutzeko asmoz, EGK-k presentzia izan zuen RUGE-ko estatu kongresuan. Halaber, entitate ezberdinetan erreleboak egon dira eta prozesu horretan EGK adi egon da pertsona erreferente berriei harrera egiteko eta EGKrekin duten harremana mantentzeko.

Halaber, aipatu beharra dago, Presidentzia eta Enplegu lan arloetatik EHNE eta ENBA GAZTEAK sindikatuarekin harremana sendotzeko asmoz bilerak egin direla.

Gazteen partaidetza politikoa sustatzeko asmoz eta partaidetza prozesuak sendotzeko bidean, lan arlo bakoitzean dauden lantaldeak bilera estrategiko ezberdinak burutu dira. Lan arlo bakoitzeko teknikariarekin hausnarketa momentu ezberdinak gauzatu dira euren proiektuak partaidetzako ikuspegitik jorratzeko eta lan arloa berez egonkortzeko.

- Gazteek erakundeetan parte har dezaten sustatzea.

Ardatz honen aurrerapauso esanguratsuen gazteen eta gazte elkarten ekintzen balorazioa, ikusgarritasuna eta aldarrikapena bermatzean datza. 2025ean Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan EGK-k duen partaidetza egonkortu egin da, Batzorde Iraunkorrean eragin politikorako kuotak handituz eta boluntariotza agentziekin harreman estuagoa lortuz.

Era berean, EGK paper garrantzitsua izan du Boluntariotzaren Euskal Estrategiaren egituraketan, prozesuan parte hartuz eta ekarpen mamitsuak eginez. Halaber, Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren markoan, gazte boluntarioen topaketa bat egin da Nerea Melgosa Sailburuarekin eta EGK-k aktiboki lagun du antolaketan.

Bestetik, EGK-ko 40. Urteurrenaren diseinua egin da urte honetan eta EGK-k zein EGK-ko elkarteek duten potentziala balioan jartzea da helburu nagusia, beraz, ekintza guztiak ildo horri begira diseinatu egin dira.

2025ean gazteen partaidetzaren inguruko ikerketa diagnostikoa burutzea aurreikusita zegoen. Ikerketa hau aurrera eramateko Deustuko Unibertsitateko Magisteritza Fakultatearekin hitzarmen bat sinatu da, Gizarte Hezkuntza graduako irakasle zein ikasleekin elkarlanean gazteen partaidetzaren inguruan



hausnartzeko eta ikerketa zientifiko bat burutzeko. Urtarriletik ekainera hitzarmena sinatu da, irakurketa dokumental txiki bat burutu da eta ikasleekin harremana eratzeko bideak ezarri dira, izan ere, Ikerketa Ekintza Parte hartzailea egiteko asmoa dago. Irailetik abendura ikasle ezberdinekin bilerak egin dira euren Gradu Amaierako Lanetan orientazioa emateko gazteen partaidetzaren ikuspegitik.

Atal honetan, EGK-k ikerketari aurten eman nahi izan dion garrantzia azpimarratuz, HEBE Proiektuarekin egin den elkarlana aipatu beharra dago. HEBE Proiektua Kataluniako hainbat unibertsitateek garatzen ari diren ikerketa proiektua da gazteen partaidetzaren markoan, EGK-k ikerketa proiektuaren batzorde zientifikoan parte hartu du eta Euskadin egin dituzten talde elkarriketa ezberdinak koordinatu ditu.

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko kide ez diren gazteak.

EGK-ko elkarteetako kide ez diren gazteei heltzeko estrategia ezberdinak ezarri ziren urte hasieran. Horietako bat, EGK-k EHUekin duen lan hitzarmena gauzatzea izan zen, hau da, Hausnarketa Lab lan saio tematikoak. Hezkuntzako lan arloan jasotzen den moduan, aurten bederatzi lan saio gauzatu dira EHUK Leioan, Gasteizen eta Donostian dituen kanpusetan zehar. Ziklo hauetan partaidetza kuotak baxuagoak izan dira 2024an burutu zen lehenengo zikloarekin alderatuz, hortaz, EGK-ko lantaldearen baitan hausnarketa prozesu bat ireki behar izan da partaidetza sustatze aldera gauzatu daitezkeen aldaketak planteatzeko eta eskaintzen diren gaiak birformulatzeko.

Atal honetan EGK-ko lan arloetan jorratzen diren proiektuekin lerrokatzen diren ekintza estrategikoak barne hartzen dira baita ere. Modu honetan, landako eta kostaldeko testuinguruetan bizi diren gazteen egoerara gerturatzea Enplegu lan-arloaren bitartez egin da eta lehenengo sektorean lan egiten duten gazteen egoera aztertzeko HAZI, CRAF edota Lurrikara Proiektuarekin bilerak egin dira. Hala ere, lan saioak eta ekitaldiak burutzeko orduan ikuspegi hau bermatzeko lan egin du EGK-ko lantaldea.

Illo berean, gazteen nahigabeko bakardadearen diagnostiko bat landu da 2025. urtean Hezkuntza lan-arloaren baitan. Kasu honetan, Partaidetza lan-arlotik elkarteetatik at dauden gazteei heltzeko ikastetxeekin lan egitea proposatu zen, horrela, Bizkaiko hezkuntza zentro ezberdinetan nahigabeko bakardadearen inguruan hausnartzeko lan saioak egin dira. Bestalde, nahigabeko bakardadearen inguruan hausnartzeko, EGK-k jardunaldi ezberdinetan parte hartu du diskurtsoa jorratzeko helburuarekin, hala nola, Arabako Foru Aldundiak Araba a Punto proiektuaren bitartez antolatutako “Bakardadea bizi zikloan zehar” jardunaldia edo Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako jardunaldi ezberdinetan.



Elkarteetatik at dauden gazteei heltzeko EGK-k duen aholkularitza zerbitzua modalitate digitalean sortu da. Hala, gazteek online dagoen galdetegi baten bitartez galderak egin ditzakete, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuz.

Azkenik, kolektibo ezberdinen partaidetza errazteko estrategiei dagokionez, EGK-ko Inklusio eta Aniztasun Plana landu egin da, 2026ko Batzar Orokorrean aurkezteko asmoz. Plan honen helburua Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren barnean gazte guztien parte-hartzea sustatzeko testuinguru orokor gisa balioko duen Inklusio eta Aniztasun Plana ezartzea da, aniztasun funtzionalak, jatorria edo egoera administratiboa edota sexu-identitateak horretarako oztopo izan ez daitezen.



Urte honetan plana idatzi egin da, helburuak finkatu dira eta mugimendu zein elkarte ezberdinekin bilerak antolatu dira euren ikuspegia jasotzeko eta EGK-ko sarea handitzeko. Hurrengo elkarteekin mantendu dira bilerak: Fevas Plena Inclusión Euskadi, ASPASOR, EHLABE, Eginaren Eginez, Elkartu, Gorabide, Lantegi Batuak, Mindara, Martin Etxea eta Onda Euskadi.

Azkenik, inklusioa lantze aldera, EGK-ko lantalde teknikoak irakurketa errazaren inguruko formakuntza bat jaso du Irakurketa Erreza Euskadi elkartearen eskutik.

Ardatz Estrategikoa: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua eta bertako kide diren erakundeak indartzea:

- EGKren eta erakundeen arteko laguntza eta aholkularitza indartzea.

EGK-ko elkarten bidelaguntza prozesuan tresnarik eraginkorrena Formakuntza Plana da. Partaidetza ataleko bigarren proiektuan azalduko den moduan, aurtien Formakuntza Plana sendotu da eta kalitateko ikuspegitik jorratzeko esfortzuak egin dira. Modu honetan, formakuntzak hiru hiriburutan egin dira eta formakuntzak gehiago landu dira formatzaileen eta EGK-ko lantaldearen artean. Horrenbestez, Gazte Formatzaileen Poltsa indartzeko lanak egin dira, zabalpena handituz gazteriaren artean.



Barne partaidetzari dagokionez, esan beharra dago elkarten beharrak erantzuteko orduan ekimen ezberdinak egin direla. Nabarmentzekoa da ESN Bilbao elkartearekin burututako elkarlana haien RAFE-a antolatzeko, AEGEE Bilbori emandako aholkularitza eta zubi lana haien AGORA aurrera eramateko edota Global Shapers Bilbao elkartearen urteurrenean parte hartu izana.

Bestalde, elkarteek EGKren errekurso ezberdinak ezagutu dezaten, EGKatalogoa sortu da. Hau da, txosten batean EGK-k dituen baliabide ezberdinak pilatu dira eta gazte diseinatzaile baten eskutik maketatu egin da elkartearen artean zabaldu ahal izateko.



Azkenik, aipatu beharra dago astialdi talde, federazio eta eskolekin egindako lana Astialdi Koordinazio Mahaiaren ildoan, izan ere, Astialdi teknikariarekin batera, Astialdi Foroko entitateen partaidetza biziki sustatu da.

- Kideen kopurua handitzea eta gazte elkartearen mugimendua sendotzea.

Ekintza estrategiko honen bitartez, EGK-ko elkartearen kopurua handitzeko lanak antolatzen dira. 2025eko Batzar Orokorrean bi entitate sartu ziren EGK-ko kide izatera: Ortzadar LGBT eta Kukulaisi Aisialdiaren Topagunea.

Modu berean, 2026ko Batzar Orokorrari dagokionez, EGKra sartzeko hautagaien zerrenda estrategikoa landu egin da eta elkarte ezberdinak bilerak egin dira EGKra sartzeko gonbitearekin, hala nola, EZE Gazteak, Bidaya Elkartea, Sareberdeak eta Izartxo Federazioa. Halaber, Global Shapers eta Equipo Europa elkarteekin harremana estutu egin da eta eskubide osoko kide izateko prozesua aurrera eraman da.

Aipatu beharra dago, aurten EGK-ko Partaidetza teknikariaren eginkizunen barnean Batzar Orokorrean elkartearen partaidetza sustatzea egon dela, zabalpenean lagunduz eta elkarteekin zuzenean hitz eginez.

Halaber, EGK-ko elkartearen diagnostikoari jarraipena eman zaio, bi elkarte ezberdinekin bilera eginez: Arduradun Eskola eta Larrunarri Eskola.



- Erakunde kolaboratzaileekiko harremana hobetzea.

Aipatu den moduan, aurten aliantza berriak sortu eta aurretik zeudenak sendotu egin dira, adibide moduan, Bilbo Unibertsitate Hiria proiektuari esker, unibertsitateei lotutako eragileekin harremanak sendotu dira eta sinergia berriak sortzeko lanketak egin ditu EGK-k. Modu honetan, EHU-ko Ikasle Kontseiluarekin bilera bat egin da proposamen ezberdinak burutzeko, IED Kunsthal eta Digipen unibertsitateekin harremana egin da, Deustuko Unibertsitateko Magisteritza Fakultatearekin hitzarmen bat sinatu du EGK-k eta Mondragon Unibertsitatearekin hitzarmena sinatu da.

Bestalde, Sareen Sarearekin bilera bat egin da, Haur, Nerabe eta Gazteria batzordean parte hartzen duten elkarteekin hain zuzen ere, haur, nerabe eta gazteria arloan egiten diren ekintzak koordinatzeko eta bi erakundeen arteko harremana sendotzeko helburuarekin.



Erakunde laguntzaileekin harremana ahalbidetzeko antolatu behar zela erabaki zuen EGK-k, beraz, erakunde laguntzaileen zerrenda egituratu da. Prozesutik 36 entitate identifikatu dira, bai publikoak zein pribatuak.



EGK-ko kide diren elkarten eta entitate laguntzaileen ekintzak zabaltzeaz haratago, EGK-ko Presidentziak zein lantalde teknikoak eragile hauek ekintzetan parte hartzeko denbora eman du. Arestian esan bezala, ohiko bilerak egin dira elkarteekin: laguntza eskatzen dutenean, elkarlanerako proiektuak identifikatzean edota entitateetan erreleboak ematen direnean. EGK-ko kide diren elkarten jardueretan parte hartu da: ESN Bilboren 2025eko RAFEa, RUGE-ko kongresua, Kale Dor Kayikoren jardunaldia Erresistentzia Erromaniaren Egunean, Gurutze Gorriak antolatutako Gazteen Partaidetzaren inguruko jardunaldia, Global Shapers-en urteurrena ekitaldia edo Green Kaleak proiektua, besteak beste.

Halaber, EGK-k entitate laguntzaileen proiektu eta jardunaldietan parte hartu du, Alboan eta Deustuko Unibertsitateak antolatutako Euskaditik Mundura proiektua, BBK Topa ekimena, Bizkaia Garak sustatutako UNIFAKTORY, UN Etxearen Etorkizun Koherente bat, Sorginlore Elkarteak antolatutako Komunitateak: Ze gazte dira parte? jardunaldia, eta abar.

Azkenik, nabarmentzekoa da EGK-k egin duen hausnarketa prozesua belaunaldi arteko espazioak balioan jartzeko eta EGKren agente sarean barne hartzeko. Adibide batzuk jartzearren, BBK Fundazioak antolatutako BBK Topa-ko ekimenetan parte hartu dugu aktiboki, belaunaldi arteko ekintza bat aurkeztuz. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako belaunaldi arteko elkartasunarekin lotutako ekimenetan parte hartu du EGK-k bere ikuspuntuak partekatzen. Halaber, EGK-ko Presidente eta Partaidetza teknikariek Hiri Lagunkoien sarien epaimahaian parte hartu dute.

Ardatz Estrategikoa: Gazteen eskubideak betetzeko eragin politikoa:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, botere betearazlea eta legegilearekiko eragin politikoaren erreferente gisa.

2025ean EGK-k bere jarduna egiten jarraitu du gazteen eta administrazioaren arteko solaskide gisa, administrazio ezberdinekin lanean gazteen ahotsa helarazteko.

Memoria dokumentu honetan, eremu bakoitzari dagozkion ataletako partaidetza esparruetan EGK edo beste eragileekin izandako harremanak xehetasun handiagoz garatzen dira. Bereziki modu positiboan azpimarratzen da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikorako Sailarekin

egindako lana. Departamentuaren prestutasunari esker, EGKrekin lankidetzan aritzeko, harremana sendotu ahal izan da Gazteria eta Emantzipaziorako Zuzendaritzatik harago.

EGK-k harremanak izan ditu saileko hainbat zuzendaritzarekin, hala, nabarmendu daiteke Hirugarren Sektore Sozialaren Sustapen eta Ekintza Komunitarioko Zuzendaritzarekin izandako harremana. Zuzendaritza horren baitan daude, besteak beste, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua eta Hiri Lagunkoien Sariak; sari horien epaimahaian parte hartuko du EGK-k izan ere.

Era berean, EGK-ko presidentziatik bilerak egin dira Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailarekin, Etxebizitza eta Hiri Agendaren Sailarekin, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailarekin zein Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko Sailarekin ere. Halaber, harremanak izan dira Justizia eta Giza Eskubideen Sailarekin eta Emakunderekin, EGK-k lankidetzak hitzarmenak baititu bi erakunde horiekin.

Eragin politiko hau gauzatu ahal izateko barne lana egin da baita ere. Aipatzearren, Presidentzia, Etxebizitza eta Enplegu lan arloetatik Batzorde Sozioekonomikoa eratu egin da, proposamenak landu, eratu eta helarazi ahal izateko. Modu berean, gazteen ongizate emozionalaren inguruan EGK-k 2024an sortu zuen diskurtsoa zabaldu ahal izateko komunikazio kanpaina bat jorratu da, aurkezpen bilera ezberdinak egin dira (Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikorako Sailburuarekin, besteak beste) eta zabalpen nabarmena egin da Euskadi osoan zehar.

Ebaluazioa

- 2024-2030 Plan Estrategikoari jarraipena eman zaio, halaber, Plan Estrategikoa lan arlo guztietan lurra hartzen hasi da, lan arlo bakoitzean lerrokatzea landuz.
- Urteko Ekintza Plana berrikusi, eguneratu eta ebaluatu egin da, 2024-2030 Plan Estrategikoak definitzen dituen ardatzei men eginez. Planak egitura berdina mantendu du baina berrikuntzarako gako ezberdinak planteatu dira eta ekintzen inplementazioa %95ean eman da.
- Lantaldeen koordinazio bilerak egin dira teknikari ezberdinekin, partaidetza areagotzeko estrategiak lantalde eta proiektu guztietara hedatuz. Esan bezala, lan arlo bakoitzarekin bilera horiek mantendu dira
- EGK-ko gazte elkarteekin harremana sendotu da, elkarte ezberdinekin harreman berriak egin dira eta EGK-ko partaidetza kuotak areagotu dira. Aipatu beharra dago EGK zubia

izan dela elkarteek haien jarduera nabarmenak gure laguntzarekin egin ditzaten, hala nola, ESN Bilbao elkartearen RAFE Ekitaldia.

5.2 EGK-ko Formakuntza Plana

EGK 60 gazte-elkartek osatutako erakundea da, elkarteen tipologia oso heterogeneoa da, eta eremu oso desberdinetan (astialdia, nazioartekotzea, zientzia eta teknologia, politika, sindikalismoa, boluntariora...) eta oso modu desberdinetan (borondatezko kudeaketa, profesionalizazioa, etab.) lan egiten duten erakundeak ditu.

EGK osatzen duten erakundeen sarea indartzeak erakunde horiek zaintzea esan nahi du laguntza prozesuak abiaraziz, haien ekintzak behar bezala garatzeko. Laguntza horiek gauzatze aldera, EGK-k formakuntza-plan bat ezarri du, elkarteek jakintza teoriko-praktikoa areagotzeko eta prestakuntza-saioetan landutakoa inplementatzen jakiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazte-elkarteei laguntzeko sistema bat egituratzea, formakuntza-plan baten bidez.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren barneko partaidetzan sakontzeko tresna berriak sortu eta martxan jartzea, EGK-ko elkarteekin batera.
- EGKn partaidetza are gehiago sustatzeko marko berrien eratzea.
- Partaidetza modu inklusibo eta parekidean sustatzeko neurriak ezartzen jarraitzea.

Garapena

EGK-ko 2025eko Formakuntza Programa garapena eman zaio formakuntza egutegi egituratu batekin. Zentzu honetan, urte honetarako zazpi formakuntza aurreikusita zeuden, hala ere, edukiak urtean zehar moldatu dira elkarteek beharrei erantzuteko, hortaz, aurten zortzi saio burutu dira:

- “Dimentsio emozionala taldeen kudeaketan” otsailean Bilbon.
- “Elkarteetan euskara sustatzeko gakoak” martxoan Gasteizen.

- “Tratu onen eta babes protokoloen inguruan” apirilean Donostian.
- “Dinamizatu eta erabaki: talde aktibo eta parte-hartzaileak bultzatzeko tresnak” irailean Bilbon.
- “Gazte elkarte batean sexu-erasoen aurrean jarduteko gakoak” urrian Bilbon.
- “Boluntariora ereduak: elkarteen arteko ikaskuntza eta parte-hartze gunea” azaroan Bilbon.
- “Aniztasun funtzionala hezkuntza ez formaleko esparruetan” azaroan Bilbon eta Gasteizen.



Ahalbidetuz programa garatu eta elkarteen artean eskaini egin da **Plan Estrategikoaren** baitan egindako diagnostikoari esker. Aurten, bakarrik elkarte batek eskatu du formakuntza saio bat, sexu erasoen aurkako tekniken inguruan.

Gazte Formatzaileen Poltsa argitaratu eta kudeatu da, deialdi bat zabalduz aurreko bi programak poltsaren bitartez kudeatzeko, profilak hautatu ziren eta formakuntzak pertsona gazteek ematen dituzte.

Ebaluazioa

- Formakuntza ekintza ezberdinak garatu dira elkarteei zuzenduta gai ezberdinen inguruan Bilbon, Gasteizen eta Donostian, urteko jomugetako bat betez: formakuntzak hiru lurraldeetan eskaintzea.

- Formakuntza EGK-ko elkarteei zuzendutako laguntza baten moduan egituratu eta komunikatu da. Komunikazio teknikariaren laguntzari esker, estilo bateratu batek egituratu du formakuntzen komunikazioa.
- Gazteak Formakuntza Planaren erdigunean daude, programaren hartzaile eta dinamizatzailer gisa. 2025eko urtarrilean difusioa hasi zen, elkarteen artean errefortzua eginez. Hala, hamar hautagai lortu ziren, urtean zehar formakuntzak emango dituztenak.
- Formakuntza Planaren kontrastea egin da agente eskudunekin.



5.3 Gazteak eta ongizate emozionala

2024. urtean gazteen osasun mentalaren gaia modu sakonean lantzea izan zen EGK-k Partaidetza eta Bakea eta Bizikidetzat lan arloen bitartez planteatu zuen jomuga nagusia.

Proiektu horren bitartez, jardunaldi eta ekimen ezberdinak burutu ziren, haien bitartez, EGK-k gazteen osasun mentalarekiko posizionamendu bat egituratu du, gizarteari zein administrazioei aldaketa ezberdinak proposatuz.

Aurtengo jomuga, 2024. urtean egindako lanketa eta posizionamenduari ikusgarritasuna ematean datza, EGK-ko eragin politiko eta soziala areagotzeko lan eginez. Horrela, **GAZTEAK eta ONGIZARTE EMOZIONALA** errelatoretzat dokumentua publikatzeko lan egin da, ondorio txostenarekin batera, eta komunikazio agentzia batekin, komunikazio kanpaina bat egin da. Halaber, bide ezberdinetan zabaltzeko aukera ezberdinak landu dira Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin batera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKn gazteen osasun mentalari buruzko diskurtsoari zabalpena ematea, eragin politiko eta soziala eginez.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren eragin politikoa indartzea, Euskadiko administrazio guztiei modu publikoan aurkeztuko zaien ondorioen dokumentu bat eginez.
- Eragin soziala sortzea “kristalezko belaunaldia”-ren etiketan oinarritutako komunikazio-kanpaina baten bidez.

Garapena



Aurten KRISTALEZKOAK, *GAZTEAK ETA ONGIZATE EMOZIONALA* errelatoretza dokumentua argitaratu da, 2024. urtean egindako jardunaldietan eta lan saioetan eman ziren testigantza guztiak jaso dira. Halaber, politika publikoetarako orientabide izan daitezkeen ondorio batzuk jorratu ditu EGK-k eta bide ezberdinen bitartez zabaldu egin ditu. Hortaz, errelatoretza dokumentua egin da, ondorio txostena barne hartuz eta modu sintetiko batean laburtzeko triptiko batekin. Irailean dokumentu hauek, kanpainaren karteekin batera, 2024an parte hartu zuten hezkuntza zentroei bidali zaizkie.

Ondorio txosten honen eragin politikoa eta bideragarritasuna areagotzeko Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikorako Sailarekin bilera desberdinak egin dira, ondorioez gain, hamar konpromiso planteatu dira gazteen ongizate emozionala babesteko helburuarekin. Bilera hauei esker Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzaren babesa lortu zen komunikazio kanpaina zabaltzeko orduan. Halaber, hamar konpromisoen jarraipena egiteko tresna bat eratu da EGK-ko eragin politikorako tresnen markoan.



Komunikazio kanpaina irailean zabaldu da, kanpaina honetarako hainbat zabalpen esparruetan kokatu dira kanpainaren aplikazio ezberdinak. Lan hau Komunikazio teknikariarekin batera gauzatu da. Hain zuzen, kanpaina honek, hainbat garraio publiko, markesina zein sare sozialetan presentzia izan du, hiru lurraldeen arteko oreka mantenduz. EGKren lana aurrekontuak eskatzea, bideragarritasuna aztertzea eta zabalpena koordinatzea izan da; gauzak horrela, hurrengo esparruetan zabaldu da:

- Irratiak: Gaztea Irratia eta Radio Euskadin iragarki ezberdinak ipini dira lau astetan zehar.
- Sare sozialak: Instagramen publizitatea ordaindu da eta Spotify-n iragarkiak ipiniko dira.
- Garraio publikoak: Bizkaian Bizkaibuseko markesinetan eta Metro Bilbao-ko pantailetan ipini da, Gipuzkoan Donostiako autobus publikoko markesinetan eta topoan ipini da eta Araban Gasteizko tranbietan.

Halaber, kartelak ipini dira Bilbon, Gasteizen eta Donostian, baimendutako espazioetan betiere.

Gazteen ongizate emozionalari dagokionez egituratu diren orientabideak maila lokalean lurreratzeko esfortzuak egin dira, tokiko administrazio eta agente ezberdinekin hausnarketa saioak aurrera eramaten. FEDEAFES federazioarekin bilera bat egin da, besteak beste. Bestetik, aipatu beharra dago, apirilean **Hausnarketa Lab** saio bat egin zela gazteen ongizate emozionalaren inguruan diskurtsoa modu etengabea elikatzeko asmoz.

Legebiltzarrean ere eragin politikoa egin da, EA-NV, EH Bildu eta Sumar talde parlamentarioekin bilera ezberdinak egin dira KRISTALEZKOAK proiektuaren ondorioak zabaltzeko asmoz.

Bilboko Udalaren baitan eragin politikoa handitu nahi izan da baita ere. Modu honetan Gizarte Zerbitzuen Kudeaketarako Zuzendaritzarekin eta Osasun Sailaren Alvaro Perez zinegotziarekin bileran egin dira eta KRISTALEZKOAK proiektuaren triptikoak Bilboko gazte gunetara bidali dira.

Ebaluazioa

- KRISTALEZKOAK, GAZTEAK eta ONGIZATE EMOZIONALA errelatoretza dokumentua publikatzeko lan egin da, erredakzioa eta maketazioa burutuz, gazte ezberdinei ahotsa emanez eta osasun mentalarekin zerikusia duten afera ezberdinei ikusgarritasuna emanez.
- Kontraste lana egin da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikorako sailarekin eta agente eskudunekin (FEDEAFES).

EGK-ko eragin politikoa handitu egin da gazteen ongizate emozionalaren inguruko diskurtsoa sendotuz eta instituzioetan inpaktua handituz.

- EGK-ko eragin soziala handitzeko lan egin da, gazteen ongizate emozionalaren inguruko komunikazio kanpaina berritzaile baten hedapena antolatuz Euskadiko espazio ezberdinetan zehar.

5.4 Gazteriaren Foru Transpirenaikoa

Pirinioetako Lan Elkartea osatzen duten (PLE) lurraldeetako gobernuek, tartean Eusko Jaurlaritzak, **Gazteriaren Foru Transpirenaikoa** jarri izan dute martxan azken urteetan. Lurralde horietako gazteek elkar ezagutu eta bizi dituzten problematika eta bizi baldintzen inguruan hausnartzeko espazio bat sortzea da asmoa.

Foro horretan EAE, Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Akitania Berria eta Okzitaniako gazteek hartuko dute parte. Beraien bizi-baldintzak hobetu, gazteen problematiken inguruan hausnartu eta gazteriaren orokorreko gai eta problematiken aurrean proposamenak egiten saiatuko dira, beste askoren artean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Pirinioetako Lan elkarte (PLE) osatzen duten lurraldeetako gazteek hausnarketarako espazio bat eraikitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lurralde desberdinetako gazteek problematikak elkarbanatzea.
- Lurralde ezberdinetako gazteen arteko saretzea sustatzea.
- Aspektu komunengatik inguruan hausnartu eta berauek indartzea (hizkuntza, mugikortasuna...).
- Errealitate pirenaikoa gizarteratzea gazteen ikuspegitik.

Garapena

Irailean Andorra eta Katalunian egin den topaketari begira EAEko lantaldea eratzeke deialdia kudeatu zen, hoguei izen emate baino gehiago eman ziren eta hautaketa prozesua egin ostean, hamar pertsonako taldea eratu da.

Topaketen kudeaketei dagokionez, PLE-ko bileretan parte hartu da topaketako informazioa jasotzeko eta formazioa izateko. Halaber, kudeaketa ezberdinak burutu dira, hala nola, garraioa kontratatzea.

Foroan bertan, EGK-ko Partaidetza teknikariaren lana lurraldeko erreferentea izan da, hau da, taldea gidatzea eta dinamizatzea, PLE-ko lantaldearekin elkarlanean foroa aurrera eramatea, erabakiak hartzea, taldea zaintzea, eta abar.



Ebaluazioa

- Topaketara joateko taldea eratzeko prozesua arrakastatsua izan zen; deialdian 20 gazte baino gehiago izena eman zuten eta hautaketa prozesua piztu behar izan zen.
- Topaketetan taldearen erreferente lanak egin ziren EGKtik eta PLE zein gainerako lurraldeekin harremanak mantendu ziren.
- EGK-k espazio honetan izan duen partaidetza ondo baloratzen da, lurraldez gaindiko gazteen testuingurura gerturatzen ahalbidetzen duelako,

5.5 Material, Gela eta Aholkularitza Baliabideak

Aurten **Aholkularitza zerbitzua** eta **Material eta Gela Lagapen zerbitzua** arlo berdinean batu egin dira elkarteei zuzendutako zerbitzu bateratu baten moduan aurkezteko, lana berdina bada ere.

Aholkularitza zerbitzua gazteen, gazte elkarten eta gizarteko estratu ezberdinen zalantzak argitzean datza. Zerbitzu honen bitartez, gazte elkarte zein norbanakoekin harremanak sendotzeko mekanismo gisa baliatu da Aholkularitza.

Bestetik, **Material eta gelen mailegua** EGK-k gazteei eta gazteen elkarteei eskaintzen dien baliabide bat da. Eskaerak jasotakoan, ezarritako prozedura estandarizatua jarraitu behar da materiala zein gela lagatzeko. Partaidetza teknikariaren lana da maileguen jarraipena egitea eta material eta gelen erabilera sustatzea, eta berori baliatu EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen, gazte elkarten eta erakundeen beharrak erantzuteko eta harremanak estutzeko oinarritzko baliabide praktiko gisa aholkularitza eta material zein gelen lagapena eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen, gazte elkarten eta erakundeen kezkak, kexak, zalantzak... erantzutea aholkularitza zerbitzuaren bitartez.
- EGK eta elkarten arteko harremana indartu eta sakontzea aurkeztutako bi baliabideen bitartez.
- EGKren material eta bulegoen erabilera gazte elkarten artean gero eta gehiago sustatzea.

Garapena

Aholkularitza zerbitzua modu estandarizatu batean kudeatu da, lantaldea koordinatuz eta erantzunak aztertuz. Halaber, **Urteko Ekintza Planak** xedatzen zuen moduan, aholkularitza baliabidea modu digitalean egituratu da.

Material eta gelen lagapena kudeatu da gazte elkarten eskariei erantzunak emanez.

Aholkularitza zerbitzua zein material eta gelen lagapenaren erabilera sustatu da gazte elkarten artean EGK-ko **Plan Estrategikoaren** baitan egin de diagnostikoaren baitan. Halaber, komunikazio kanpaina bat aurrera eraman zen, Euskadin dauden gazte bulego ezberdinetan zabalpena eginez.

Ebaluazioa

- Ebaluazio irizpide nagusiak egindako aholkularitza zerbitzuen kopurua eta berauen edukia dira. Hilabete hauetan, 110 aholkularitza eskaera erantzun dira; aholkularitza gaiei dagokionez gazte problematikei men egiten zioten alde batetik (emantzipazioa, astialdia,

udan egiteko ekintzak...) eta beste alde batetik, EGK-k gauzatzen edo hedatzen dituen programen inguruko aholkularitzak jaso ziren (Etikasi, Gazteriaren Foru Transpirenaikoa, Euskadiko Gazteak Lankidetzan, ekitaldi puntualak...).

- EGKren parte ez diren elkarte eta eragileen aholkularitzak jaso egin ziren eta aholkularitza zerbitzua erakunde publikoen artean hedatu da.
- 50 aldiz utzi dira Bilboko, Gasteizko eta Donostiako bulegoak, oro har, bilerak, batzar orokorrak, aurkezpenak, hausnarketa taldeak... burutzeko eskariak egin ohi dituzte gazte elkarteek.

5.6 EGK Parte Hartze Espazioetan

EGKren eginkizun nagusia euskal gazteriaren, elkarten eta erakundeen artean zubi-lana egitea da. Zeregin hori modu eraginkorrean egin ahal izateko, beharrezkoa da euskal gazteriari dagozkion gaiak lantzen diren guneguztietan presente egotea, bai EGKren presentzia eskatzen duten erakundeek beraiek eskatuta, bai gazteen premiei eta kezkei erantzuteko.

Horrela, EGK-k eztabaidarako eta erabakitzeke hainbat espaziotan ordezkaturatuta egon behar du. Horretarako, funtsezkoa da EGK-k espazio horietan eztabaidatzen diren gaiei buruzko diskurtso sendoa izatea. Partaidetza lan arloaren zeregin nagusietako bat da EGK ordezkaturatzea gazteen parte-hartzea tartean sartzen den guneguztietan, eta talde teknikoarekin koordinaturatuta lan egitea, EGK-k parte hartzen duen foroetan landuko diren diskurtsoak elikatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k partaidetza espazio ezberdinetan parte hartzea gazteen ahotsa helarazteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lantaldetan egituraturatutako diskurtsoak helaraztea partaidetza espazioetan.
- EGK ordezkaturatzea administrazio ezberdinen artean.
- Partaidetzaren inguruko foro ezberdinetan presentzia edukitzea.

Garapena

Boluntariotzaren Euskal Kontseilua:

Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz

www.egk.eus
Autonomía, 44 behea
Bilbao

Andia, 11 nagusia
Donostia

2024an EGK-k Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan zuen partaidetza berretsi zuen eta urte honetan duen papera indartu egin du. Kontseiluaren batzorde tematikoetan parte hartzeaz gain, EGK Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko kidea da eta hilabetero burutzen diren bileretan parte hartzen du Partaidetza teknikariak EGKren izenean. Batzorde iraunkorrean kontseiluko proiektu zein aurrerapauso nagusiak aztertzen dira eta unean uneko boluntariotzaren inguruko problematikak lantzen dira.



Modu berean, Boluntariotzaren Euskal Estrategia berria egituratu du Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak, entitate iraunkor kide gisa, bilera ezberdinetan parte hartu du EGK-k eta elkarteekin egin den kontraste saioa hedatu egin du.

Boluntariotza Agentziak eta Azokak:

Bizkaian, Araban eta Gipuzkoak dauden hiru agentziekin modu berezian lan egin du EGK-k aurtan, arestian aipatutako kontseiluan elkarrekin eragiteaz gain, beste ekimen batzuen bitartez harremana estutu egin da. Adibide batzuk jartzearren, Arabako Batekin Boluntariotza Agentziarekin batera Aiaraldeko elkartearen gidan parte hartuko du EGK-k eta Bizkaia Gara agentziaren ikastetxeen arteko jardueran modu aktiboan parte hartuko da edota Boluntariotza Ereduen formakuntza saioa elkarrekin antolatu da.

Horretaz gain, boluntariotza azoka ezberdinetan parte hartzeko prestutasuna mantendu egin da, Busturialdean, Deustuko Unibertsitatean edo Begoñako Andra Mariko unibertsitatean egindako boluntariotza azoketan egon da EGK, hain zuzen ere.

Gobernantza eta Gobernu Irekia:

Gobernantza eta gobernu irekiko kontuei dagokionez, OGP Euskadiren Foro Erregularrean parte hartu du EGK-k. Zentzu berean, ILab-aren baitan dagoen talde eragilearen bileretan aktiboki eragin da, bilera ezberdinetan presentzia izanik eta parte hartuz.

OGP Euskadiko estrategia berriaren egituraketan parte hartu du EGK-k eta konpromiso bat aurkeztu eta lidergoa hartuko du Euskadin “Youth Test” moduko bat eratzeko. Proposamena onartu egin da eta aurrera eramateko pausuak eman dira. Halaber, laugarren konpromisoan partaide moduan egongo da EGK. Modu berean, strategiaren aurkezpenean EGK-k gizarte zibila ordezkatu zuen eta Gasteizen egindako OGP-ko Goi Gailurrean parte hartu du.



Ilido berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluko bilera ezberdinetan parte hartu da.

BBK Topa eta GenerAcción:

Alde batetik, BBK Fundazioak sustatutako BBK Topa proiektuan aktiboki parte hartu du, eragile klabe bat bihurtuz. BBK Toparen barnean lau formakuntza egin dira eta EGK-ko lantalde teknikoak guztietan parte hartu du. Bestetik, ekimen bat aurkeztu da BBK Topan belaunaldi-artekotasunaren aldeko proiektu bat hain zuzen ere, Berdintasun lan arlotik bideratuta. Zentzu horretan, BBK Topa

proiektua ezagutzera emateko ekitaldian parte hartu zuen EGK-ko Presidenteak, belaunaldi arteko manifestuaren irakurketan ahotsa plazaratuz.



Bestalde, GenerAcción proiektuko bi saio ezberdinetan presentzia izan du EGK-k belaunaldi-artekotasunaren markoan gai ezberdinen inguruan hausnartzeko.

Nahigabeko Bakardadea:

Nahigabeko bakardadea XXI. Mendeko gaitz garrantzitsu bat da, adin tarte guztiei eragiten diena, pertsona nagusietan eta gazteetan berebiziko eragina izanik. Zentzu horretan, administrazio ezberdinek arazo honi erantzuna emateko planteatzen ari diren neurri eta estrategia ezberdinetan parte hartu du EGK-k.

Arabako Foru Aldundiak duen Araba a Punto estrategia elkarlanerako adibide esanguratsu bat. Kasu honetan, jardunaldi bat elkarlanean antolatu egin zen bakardadearen inguruan hitz egiteko adin tarte guztietan. Halaber, hurrengo hilabetei begira beste ekimen bat egitea aurreikusita dago astialdiko elkarte sareari zuzendua.



Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkai Sare Estrategiaren bitartez, jardunaldi ezberdinak antolatu ditu zeinetan EGK gonbidatua izan da. Bi adibide aipatzearren, batetik, Nahigabeko Bakardadea, Emakumeak eta Ezgaitasuna jardunaldian egon zen EGK eta zubi lana egin zuen Juventudes de Unidad Progresista ONCE federazioarekin, bestetik, Bizkaia Gazteak Topaketan (udal zinegotzi eta

teknikariekin) beste topaketa bat egin zuten gazteak eta nahigabeko bakardadea hizpide. Halaber, nahigabeko bakardadeari esparru komunitarioan erantzuteko dirulaguntza lerro berezi bat argitaratu zuen aldundiak eta EGKtik zabalpena egin da.

Azkenik, Bilboko Udalak, Trikota estrategia abian jarri du eta EGK kontraste saio ezberdinetan egon da eta Bilbo Udalak egindako estrategiari ekarpenak egin dira.


Beste batzuk:

Arabako Gazteriaren Kontseilua (Arabako Foru Aldundia), Astialdi Koordinazio Mahaia (Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Emantzipaziorako Zuzendaritza), Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren Haur, Nerabe eta Gazteria Batzordea (Eusko Jaurlaritzako Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritza), Bilboko Gazte Panela, Green Kaleak eta Konekta Ideiak (Bilboko Udaleko Haur eta Gazteria Saila), HEI Kafea (Gasteizko Udala), Empoweryouth proiektuan EGK aurkeztea (EDE Fundazioa), Euskaditik Mundura, eta abar.

Ebaluazioa

- EGK-k parte hartu du gonbidatua izan den parte hartze gunen guztietan.
- Gazteen eta gazte elkarten ahotsa helarazi da aipatutako espazioetan.
- EGK-k gunen ezberdinetan parte hartzea proposatu du, gazteek eta elkarteek helarazitako beharren arabera.

6. BAKEA ETA BIZIKIDETZA



6.1 ETIKASI

Bidaia hezigarrien bidez gazteek etika eta giza eskubideei buruz hausnartzeko proiektua da **Etikasi**. Giza eskubideen urraketa sufritu duten Europako lurraldeetara bidaia hezigarrien bidez etikari, memoriari eta giza eskubideei buruzko hausnarketa eta ikasketa sustatzea da programaren helburua.

2025ean proiektuak bi modalitate izan ditu:

Lehen taldea: Polonia. Ikastetxeei eskaintzen zaie modalitate hau, Batxilergoko 1. mailako ikasleentzat. Krakoviara (Polonia) joan zen ikasgela ekainaren 17tik 20ra.

Bigarren taldea: Ipar Irlanda eta Euskadi. 18 eta 30 urte bitarteko Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako Zikloetako eta Unibertsitateko graduako 20 gaztek izan dute parte hartzeko aukera. Modalitate honetan bi bidaia egiten dira: Ipar Irlandara egin dena (uztailaren 4tik 8ra) eta Euskadin egin dena (urriak 3tik 5era).

Bidaiak egin aurretik, ikasleek prestakuntza saioetan parte hartu dute. Batxilergoko ikastetxearen kasuan, saio horiek ekainaren 4an eta 10ean egin ziren, bidaia testuinguruan kokatzeko helburuarekin: Bigarren Mundu Gerra eta Holokaustoa, Palestinako egungo egoera, eta “gorrotoaren piramide” bezalako funtsezko kontzeptuak landu ziren, besteak beste.

Belfastera joan den taldearen kasuan, prestakuntza jardunaldi trinko bakar batean bildu zen ekainaren 28an, eta bidaiarako beharrezko testuingurua eta prestakuntza ere eskaini zitzaion.

Bidaia amaitu ondoren, hausnarketa saio bat egingo da, lortutako ondorioak eta ikaskuntzak aztertzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Etikasi proiektua aurrera eramatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Proiektuaren diseinua egokitzea.
- Bidaia egiteko lekuak aukeratu eta bertan egiteko programak garatzea.
- Gazteen parte hartzea sustatzea.
- Formakuntza eta ebaluazioa antolatzea.

Garapena

Zabalpena eta hautaketa prozesua:

Proiektuaren difusioa prestatu da. Horretarako, deialdia hasi aurretik, **Etikasi** proiektuko datak zehaztu eta kartelen diseinuak egin ziren diseinatzaile gazte batekin. Ondoren, izen-emate galdetegiak prestatu ziren eta Batxilergoko eta Lanbide Heziketako eskola ugarirekin harremana hasi, baita EAEn dauden lau unibertsitateetako irakasle eta arduradunekin ere. Honen helburua izen-emateak irekitzerako orduan informazioa ahalik eta gazte gehienengana heltzea izan da.

Behin izen ematea irekita, difusioa ahalik eta bide gehienetan egin zen: emailak, buletinak, publizitatea, sare sozialak... Aurreko urteko edizioko gazte baten testigantza ere grabatu eta bideo bat muntatu eta argitaratu zen sare sozialetan, inpaktu handiagoa izateko.

Hautaketa prozesuak aurrera eramango zituen epaimahaia ere osatu zen. Aurten hautaketa prozesu bakoitzeko (Poloniako ikastetxeena eta Ipar Irlanda-Euskadiko gazteena) epaimahai desberdina egon da, lan-karga gutxitzeko asmoarekin. Hautaketa-prozesua 2025eko martxoan izan zuen hasiera eta apirilean argitaratu ziren emaitzak. Lehenengo modalitateari dagokionez (Polonia), ikastetxe ugari aurkeztu ziren aurten ere. Bideo guztiak ikusi eta baloratu ondoren, epaimahaiak La Puebla de Labarkako Assa Ikastola aukeratu zuen irabazle. Ipar Irlanda-Euskadiko

modalitateari dagokionez, parte-hartze maila urtez urte igotzen jarraitzen du. Idazlanak eta elkarrizketa pertsonalak egin ondoren 20 pertsona hautatu zituen epaimahaiak. Hala ere, proiektuan parte hartu ahal izango luketen gazte asko kanpo geratu direla azpimarratu zuen epaimahaiak, gazte askoren interesa, jakin-mina, ezagutza maila eta gaitasun kritikoa balioan jarritz.

Formakuntzak:

Aurreko urteetan bezala, Baketik erakundeak erraztu du **Etikasi** programaren alderdi hezitzailea.

Beraz, entitatearekin batera hainbat bilera egin ziren alderdi pedagogikoa eta bidaien bisitak koordinatze aldera. Honekin bidaietara joan aurretik dagoeneko hausnarketak egiten hastea zen helburua, bidaiak ahalik eta gehien aprobetxatzeko aukera izan zezaten. Aurten, bi formakuntza desberdin eskaini ziren, taldearen arabera eta formakuntza



saioak bidaietatik ahalik eta gertuen egiteko ahalegina egin zen, Baketik-eko formatzaileen gomendioak kontuan hartuta (bidaietan freskoago izateko):

- Polonia: ekainaren 4an eta 10ean, LaPuebla de Labarkako Assa Ikastolan.
- Ipar Irlanda-Euskadi. Ekainaren 28an, Bilboko La Perrera espazioan.

Bidaiak:

Bi taldeekin bidaiak egin dira. Bidaia bakoitza egin baino lehen, urte hasieratik kudeatu ziren bisitak, ostatuen erreserbak eta logistikoki behar izan ziren kudeaketa guztiak egin ziren. Aurreko esperientzietatik ateratako hobekuntza proposamenak kontuan hartu ziren eta aurtengo beharretara egokitu zen proiektua bere osotasunean.

POLONIA

Ekainak 17tik 20ra egin zen Assa Ikastolako ikasleekin Krakoviara bidaia eta bertan *Auschwitz I- Main Camp* eta *Auschitz II-Birkenau* ezagutzeko aukera izan zuten. Bisita hauek bertako gida batek egin zituen. Gainera, Auschwitz-Birkenauko Estatuko Museoko Auschwitz eta Holokaustoari buruzko Hezkuntzarako Nazioarteko Zentroan (*International Centre for Education about Auschwitz and the Holocaust in Auschwitz-Birkenau State Museum, ICEAH*) tailer bat jaso zuen talde arabarrak. Tailerraren helburua kontzentrazio- eta sarraski-eremuetako errealitatearen eta errealitate horren erdian zeuden pertsonen hainbat alderdiri buruzko hausnarketa sakona egitea izan zen, objektuen irudien bidez.



Bestalde, Krakoviako auzo judua eta ghettoa ezagutzeko bisita ere egin zen, hiriaren itxura modernoaren azpian ezkutatzen diren istorio eta gertaerak hobeto ezagutzeko.

Horrez gain, Banksy museoa bisitatzeko aukera izan zuten, arteak transformaziorako tresna gisa duen boterearen inguruan hausnarketak egiteko. Baita museo judutarra ere, Krakoviako judutarren inguruko istorio gehiago ezagutzeko, haien bizimodua Bigarren Mundu Gerra gertatu baino lehen nolakoa zen deskubritzeko eta Holokaustoaren ondorioen inguruan gogoeta egiteko.

IPAR IRLANDA

Uztailaren 4tik 8ra Ipar Irlandako bidaia izan zen. Ikasleek bertako gatazkari buruz ikasteko aukera izan zuten, museo desberdinen bisiten eta beste gazteekin egindako topaketen bidez.

Lehen egunean Belfastoko Bakearen Harresiek banatzen dituzten auzoak ezagutzeko aukera izan zuten gazteek, auzo bakoitza bertako espetxeratu ohiek aurkeztu zuten. Historia eta iragana ezagutzeaz gain, arratsaldean, oraina lantzeko aukera ere izan zuten. Horretarako, bertako gazteekin lan egiten duen *Hollywood Family Trust* elkartearekin topaketa egin zuten gazteek, Ipar Irlandako euren adineko gazteekin hitz egiteko aukera izanik, besteak beste, gatazkari buruz, hezkuntza sistemei buruz, identitateen inguruan, etab.

Bigarren egunean, Fóram na nÓg taldearekin elkartzeko aukera ere izan zuten hizkuntzen (gaelikoa-euskara) hausnarketa egiteko, gatazkaren inguruan hitz egiteko, bake prozesuei buruz mintzatzeko...

Azkenik, Igande Odoltsuagatik ezaguna egin zen Derry/Londonderry herrira ere joan ziren, bertako historia gertutik ezagutzeko aukera izanez eta Maeve McLaughlin-en eskutik *Derry Model* izeneko proiektua ere aurkeztu zitzaien. Proiektuak eztabaida, tailer eta ikaskuntza-esperientzien konbinazio bat eskaintzen du, iparraldeko eta kanpoko taldeei zuzendua. Proiektuaren epe luzerako helburua ekimen iraunkor bat sortzea da, "gure iragana hobeto ulertzeko, eskubideak eta gizarte inklusiboa sortuz Derryn, Irlanda osoan eta nazioartean".



Uda ondoren, irailaren amaieran, itxiera saioa egin zen Assa Ikastola ikastetxean. Bertan, hainbat dinamika egin ziren Krakoviara egindako bidaiari ikasitakoari buruz hausnartzeko eta esperientzia zehar eman ziren zenbait portaera komentatzeko. Gainera, programaren balio hezitzaile eta etikoa azpimarratu zen.

Ipar Irlandako taldeari dagokionez, urriaren 3tik 5erako asteburuan burutu zen Pasaia-Errenteriarri zegokion programaren zatia. Egun horietan, gazteek euskal gatazkaren errealitatera zuzenean hurbiltzeko aukera izan zuten, sentimenduz eta emozioz betetako giro batean.

Alde batetik, Kepa Pikabea ETako kide ohiarekin bildu ziren. Saioaren aurretik, bake- eta bizikidetza-teknikaria eta Baketik-eko taldea berarekin bildu ziren, programaren helburuak zehatz-

mehatz azaltzeko eta haren parte-hartzea programaren balio hezitzaile eta etikoetara egokituko zela bermatzeko.

Bestalde, larunbat arratsaldean Alberto Muñagorri eta Naiara Zamarreño ETako biktimekin izandako solasaldia errepikatu zen. Testigantza horri esker, taldeak beste ikuspegi batetik ulertu ahal izan zituen gatazkaren giza ondorioak.

Azken egunean, gazteek adierazpen eta bateratze espazio batean parte hartu zuten, eta bizi izandako guztia hitzez adierazi ahal izan zuten asteburu bereziki bizi batean.

Azkenik, urriaren 25ean, itxiera-saioa egin zen EGK-k Bilbon duen bulegoan, eta gazteek programa osoa ebaluatu zuten. Topaketa horretan, parte-hartzaile bakoitzaren bilakaera pertsonala ikusi ahal izan zen: esperientziatik zer eramaten den, zer iritzi edo pertzepzio aldatu diren eta aurrerantzean zer ikaskuntza izango dituzten.



Horrez gain, Etikasi EGKn dagoeneko oso finkatuta dagoen proiektua denez, hurrengo edizioetarako *merchandising* espezifikoko bat sortzea erabaki zen, programaren nortasuna indartzeko eta ikasleen eta komunitatearen artean ikusgarritasuna handitzeko

Horretarako, diseinatzaile gazte batekin harremanetan jarri zen Bake eta Bizikidetza teknikaria, programaren balioak eta filosofia modu egokian irudikatuko zituen logo bat egin zezan, etika, giza eskubideak, bakea eta komunitatearen garrantzia barne. Diseinatzaileak hainbat proposamen aurkeztu zituen eta, EGK-tik, hainbat urtetako kartelak partekatu ziren eta proiektuaren filosofia zehatz-mehatz azaldu zen. Truke horretatik abiatuta, hainbat ekarpen eta doikuntza egin ziren, eta, azkenik, Etikasiren nortasuna erabat islatuko zuen behin betiko logoa hautatu zen.

Logoa zehaztu ondoren, *merchandising* enpresa batekin harremanetan jarri zen, gainerako talde teknikoarekin batera, ekimen horretarako produkturik egokienak zein izango ziren erabakitzeko. Ekotzi beharreko artikulua definitu ziren eta neurri desberdinak eskatu ziren, programaren etorkizuneko edizioetarako material nahikoa izateko asmoz.

Era berean, Etikaren logoa datozen urteetan mantenduko dela erabaki zen, proiektuaren koherentzia bisuala eta denboran zehar aintzatespena bermatzeko, eta gazteen artean eta hezkuntza-komunitatean duen presentzia indartzeko.

Ebaluazioa

- Ipar Irlanda-Euskadiko etikaren ebaluaketa zuzena izan da. Dena dela, datorren urtera begira, zenbait gauza planteatu beharko lirateke: bisen kontua, otorduen...
- Poloniako ebaluazioari dagokionez, aukeraketa prozesuan aldaketa batzuk egitea pentsatu da, taldearen egokitasuna bermatu ahal izateko. Hurrengo urteetara begira ikastetxetik bi irakasle bidaiara joatea ere planteatu da.

6.2 AcercaTé

Ramadanarekin batera aurreiritziak, zurrumurruak eta jarrera islamofoboak gora egiten dute. Baina gizarte bezala ba al dakigu benetan Ramadana zer den? Ez jateaz eta ez edateaz harago al doa? Zer suposatzen du hilabete sakratu honek musulmanentzat?

Euskadiko biztanle askorentzat, Ramadana urruneko gai bat da, ezezaguna, eta oso erreferentzia gutxi dituzte. Ramadanaren hasiera aprobetxatuz, martxoaren 14an (ostirala) [Bidaya elkarteak](#) eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Iftarra (baraua hausten duen otordua) antolatu zuen gazte musulman eta ez musulmanak elkar ezagutzeko, hitz egiteko eta hausnartzeko. Ezjakintasunaren oztopoak haustea eta topaketarako, elkarriketarako eta hausnarketarako gune bat sortzea zuen helburu. Afari-merienda gastronomiko soziala izan zen: bakoitzari paperezko mantela eman zitzaion eta paper horren azpian Ramadanaren eta islamofobiaren inguruko galderak edo esaldiak egon ziren, gero denon artean komentatzeko eta Euskadin presente dagoen Islamofobiaren gogoetak jasotzeko.

Aurreko urtean batez ere gazte musulmanak hurbildu ziren. Horrenbestez, aurtengo erronka nagusia gazte ez musulmanak ere etortzea izan zen.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

lftar bateratua antolatu eta Ramadanaren inguruko aurreiritziei aurre egin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Kulturen arteko ulermena eta elkarrekiko errespetua sustatzea Euskadiko gazte musulmanen eta ez-musulmanen artean.
- Euskadiko komunitate musulmanen bizikidetza inklusiboa eta gizarteratzea sustatzea.
- Ramadanaren esanahiari eta tradizioei buruz sentsibilizatzea, parte hartzaileek ospakizun horri buruz ikas dezaten.
- Ramadanaren inguruko aurreiritziak eta gaizki-ulertuak gainditu.

Garapena

2025eko lehen hiruhilabetea garatu zen proiektua, Bidaya erakundearekin lankidetzan. Ekintzak aurreikusitakoaren arabera egin ziren eta lana metodologia parte-hartzaile eta kooperatibo bati jarraituz egin zen.

Lehen kontaktua:

Lehenengo fasea Bidayarekin harremanetan jartzea izan zen, otsailaren hasieran. Une horretan lankidetzarako esparru orokorra ezarri zen, helburu partekatuak definituz eta erakunde bakoitzaren funtzioak mugatuz.

Data erabaki:

Hasierako elkarriketa horietan zehar, AcercaTé Topaketa martxoaren 27an, ostegunean, egitea erabaki zen, eta data hori kontu handiz aukeratua izan zen. Martxoaren amaieran, Ramadaneko amaierako azken asteak bereziki sinbolikoak, familiarrak eta emozionalak dira komunitate musulmanarentzat. Horregatik, topaketa testuinguru horretan egitea garrantzitsutzat jo zen, baina Ramadanaren azken egunetan kokatu gabe, pertsona askok denbora hori erreserbatzeko joera baitute, lagunekin eta hurbileko senideekin modu pribatuagoan partekatzeko. Aukera horrek,

beraz, oreka bilatu zuen unean uneko sinbolismoaren eta parte hartzeko benetako aukeraren artean.

Kartelaren diseinua eta difusioa:

Otsailetik martxora bitartean hasi ginen ekitaldiaren antolakuntza-lanak egiten, hainbat arlo kontuan hartuta. Lehenik eta behin, ekitaldiaren kartela diseinatu eta zabaldu zen, komunikazioa bermatzeko sare sozialen eta ohiko bideen bidez. Aldi berean, gela egokia hautatu eta prestatu zen eta baita materialak ere (EGK-ko Bilboko egoitza), parte-hartzaile guztiek espazio egoki eta atsegin batean jardun ahal izateko.

Programazioa:

Ekitaldiaren arratsaldeko programazioa ere zehaztu zen: Ramadaren inguruko azalpen bat antolatu zen (Bidayako pertsona baten eskutik). Horrez gain, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) Bake eta Bizikidetzatza teknikariak parte hartu zuen, aldeztu aurretik prestatutako hainbat galdera planteatuz, hausnarketa kolektiboa bultzatzeko.



Ebaluazioa

2024ko topaketa baino parte hartzaile gehiago egon dira. Hala ere, nagusitasuna oraindik ere pertsona musulmanena da. Helburua, datorren urtera begira, izango litzateke biztanleria ez musulmana ere animatzea, Ramadanaren inguruan ikasi ahal izateko.

6.3 Memoria Ibilbidea

Memoria historikoa eta bakea eraikitze prozesua erdigunean jarriko dituen hiriko ibilbidea eskaintzeko asmoz sortu zen Gasteizko Memoriaren Ibilbidea, ohiko ikuspegi turistikoetatik aldenduz. Ekimenak hiriko leku esanguratsuak ikusarazi nahi zituen, giza eskubideen historia hurbileko gertakariekin, bizikidetza demokratikoarekin eta Euskal Herriko adiskidetze prozesuekin lotuta.

Bisita gidatuen bidez, parte-hartzaileek bertatik bertara ezagutu ahal izan zituzten lurraldeko historia markatu duten motibazio politikoko indarkeriaren gertaerak eta kontakizunak. Gutxi ezagutzen diren memoriei ahotsa ematea da helburua, indarkeria politikoaren, errepresioaren eta eskubideen urraketaren testuinguruetan bizitako esperientzien eta sufrimenduen aniztasuna aitortuz.

Ibilbidea tresna pedagogiko eta kultural bat da, hausnarketa kritikoa sustatzen duena, enpatia bultzatzen duena eta memoria kolektiboak errespetuan, justizian eta giza eskubideetan oinarritutako bizikidetzaren oinarri gisa duen garrantziaz sentsibilizatzen duena. Murgiltze esperientzia horren bidez, tokiko herritarrak interpelatu nahi ziren, iragan hurbilarekin elkartzeko espazio bat sortuz, oraina hobeto ulertzeko eta etorkizun inklusiboagoa eta baketsuagoa eraikitzeko.

Proiektua Gasteizko Udalarekin lankidetzan garatu da, eta ezagutza historikoa eta bizipenen dimentsioa uztartuko ditu, ibilbidea ez dadin soilik bisita informatibo bat izan, baizik eta memoria ondare komun eta aldaketa sozialaren eragile gisa balioetsi duen esperientzia eraldatzaile bat.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gasteizen memoria historikoa eta bakea sustatzea, hiriko adiskidetze-prozesuei eta giza eskubideei buruz hausnartuko duen hezkuntza-ibilbide baten bidez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Memoria historikoak bake-kultura eraikitzeko duen garrantziari buruzko gogoeta sustatzea.

- Parte-hartzaileak adiskidetze-prozesuez eta Gasteizko bizikidetzak baketsuaren garrantziaz sentsibilizatzea.
- Giza eskubideekin eta bakearekin zerikusia duten hiriko funtsezko tokien ezagutza bultzatzea.
- Gizarte- eta kultura-testuinguru desberdinetako gazteen artean elkar ulertzea erraztea.
- Tokiko komunitatea proiektuan inplikatzeko, bereziki belaunaldi berriak.

Garapena

Kontaktua:

Apirilaren 14an bilera bat egin zen Gasteizko udalarekin, komunikazioa ezartzeko eta proiektuaren inguruan mintzatzeko.

Memoria-guneak hautatzea:

Udalarekin eta tokiko historiako adituekin batera, hiriko tokirik adierazgarrienak aukeratu ziren, memoria historikoarekin, giza eskubideekin eta bakearekin duten harremanari dagokionez. Horien artean, zerrenda bat egin zen eta Gasteizko Udalarekin lankidetzan, Bake eta Bizikidetzak teknikariak aspektu logistikoak kontuan hartuta (ibilbidearen iraupena ez izatea astunegia, besteak beste) leku batzuk hautatu ziren.

Ibilbidearen parte izango ziren lekuak aukeratzeko orduan, lehentasuna eman zitzaion biktimen zein biktimarioen aniztasuna islatzen duten espazioak sartzeari. Erabaki horrek kontakizun plurala, inklusiboa eta ahalik eta aberasgarriena eskaintzeko borondateari erantzuten zion, iragan hurbilaren konplexutasuna ulertu ahal izateko. Gertaeren bertsio bakarria aurkeztu beharrean, ibilbideak ikuspegi eta memoria desberdinak ikusarazi nahi zituen, eta indarkeria mota desberdinek eragindako pertsona guztien sufrimendua aitortu. Horrela, historiari buruzko hausnarketa kritikoa eta zintzoa sustatu nahi izan zen, elkarrekiko aintzatespena, enpatia eta memoria kolektibo bidezkoagoa eta partekatuagoa eraikitzen lagunduko duena. Leku horien artean Karmengo komentua, Santa Isabel hilerria, San Frantzisko Asiskoaren eliza eta Andre Maria Zuriaren plaza zeuden, besteren artean.

Ibilbidearen logistika:

Lehenik eta behin, gida aukeratu egin zen. Horretarako, mezuak bidali egin ziren gida desberdinei eta azkenean ibilbidea Alberto Quintanak egitea erabaki zen (historiadore gaztea). Berarekin batera, ibilbidearen lekuak guztiz erabaki ziren eta, horrekin batera, ibilbideko toki bakoitzean

eman beharreko azalpena (guda zibila, frankismoa, trantsizio demokratikoa, demokrazia urteak eta egungo egoera). Albertok berak proposamen batzuk egin zituen eta Gasteizko Udalarekin batera baloratu egin ziren. Data azaroaren 8rako ezarri zen, Euskadiko Memoriaren Eguna (azaroaren 10a) gertu zegoelako. Halaber, 11:00etatik 13:00etara arteko ordutegia ezarri zen, parte-hartzea errazteko eta sustatzeko.

Proiektuaren zabalpena:

Diseinatzaile gazte batekin, kartel bat diseinatu (bai fisikoa eta bai birtuala). Kartel birtuala korreo bidalitako gonbidapenetan txertatu zen, baita EGK-ko webgunean eta EGK-ko sare sozial eta buletinean ere. Kartel fisikoak, Gasteizko Udaleko Gazteria sailak zenbait kultur-etxe eta espazio publikoetatik itsatsi zituen. EGK-tik Gasteizko erakundeei eta elkarteei eta Historiako graduak irakasle eta koordinatzaileei ere bidali egin zitzaizkien gonbitea. Dena dela, soilik 6 gaztek eman zuten izena eta data gerturatu ahala, zerrenda txikitu egin zen.

Hori dela eta, azaroak 8ko ibilbidea bertan behera uztea erabaki zen. Nolanahi ere, ordurako Memoriaren ibilbidea egiteko behar zen lanaren zati handi bat eginda zegoenez – lekuak hautatzea, gogoeta logistikoak, kartela diseinatzea, gidoia egitea, besteak beste –, planteatu zen irtenbide posible bat izango zela jarduera Gasteizko ikastetxe bati eskaintzea, Historia edo Filosofia irakasgaien osagarri gisa.

Horretarako, EGK-k kontuan hartu zituen alde aurretik parte hartu zuten edo Etikasi programan izena eman zuten ikastetxeak – etikan, giza eskubideetan, memorian eta motibazio politikoko indarkerietan ere zentratuta –, ibilbide mota horretarako bereziki egokiak ziruditelako.

Azkenik, jarduera Egibide ikastetxearekin egitea erabaki zen, hark erantzun baitzion gogo biziz gonbidapenari.

Ebaluazioa

Proiektu honetan bildutako esperientziaren ondoren, egiaztatu da gazteei zuzendutako memoriarekin eta motibazio politikoko indarkeriarekin lotutako jarduerak ez dutela ondo funtzionatzen parte-hartze irekiko sistema baten bidez planteatzen direnean. Hau da, borondatez izena emateko erabakia gazteen esku uzten denean, erantzuna oso baxua izaten da.

Azalpen posible bat da gazte asko ikasketaz, lanaz edo beste erantzukizun batzuek gainezka daudela, eta ez dutela izaten – edo ez dutela “erreserbatu” nahi – larunbat goiz libre bat

Memoriaren libildue batean parte hartzeko. Horren ondorioz, jarduera interesgarria gerta dakiekeen arren, agendan ez da lehentasunezkoa.

Esperientzia horretatik abiatuta, ikusi da horrelako ekimenek hobeto funtzionatzen dutela parte-hartze sistema itxi batekin: talde jakin bat zuzenean gonbidatuz, hala nola institutu bateko gela bat, Batxilergoko talde bat, edo lotutako unibertsitate graduetako ikasleak (Historia, Gizarte Zientziak, Filosofia...). Horrela, jarduera bere prestakuntza prozesuan txertatzen da, hobeto aprobetxatzen da eta parte-hartze handiagoa bermatzen da.

Ondorioz, inpaktua eta jarraitutasuna lortzeko, egokiagoa dirudi jarduera horiek ikastetxeekin eta antolatutako taldeekin koordinatzea, publiko orokorrari gazteentzat ireki beharrean.

6.4 Nork-nori-zer. Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean

EGK-k urteak daramatza gazteak Euskadin emantzipatzeko eta etxebizitza duin bat lortzeko dituzten zailtasunen errealitatea agerian jartzen eta egoera honen konponbidean ekarpenak egiten. Gazteez hitz egitean kolektibo homogeen bat irudikatzeko joera dagoen arren, ez da horrela; aitzitik, gazteria kolektibo heterogeneoa da, eta gazte izateaz gain beste hainbat faktorek (generoa, migrazio prozesu bat bizi izana, arrazializatua izatea...) zailtasun, oztopo eta diskriminazio erantsiak gehitzen dizkiete emantzipatze prozesuei.

Illo horretan, 2021ean proiektu bereizi bat sortzeko beharra gailendu zen: Nork-nori-zer proiektua, alegia. Honekin, etxebizitza sarbidean ematen den xenofobia eta arrazakeria aztertzeari ekin zion EGK-k, fokua, zehazki, alokairurako sarbidean jarrita.

Proiektu hau Etxebizitza lan- arloarekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEen alokairurako sarbidean ematen diren xenofobia eta arrazakeriaren inguruan egindako azterketaren emaitzak sozializatu eta gaiarekiko ardura zabaltzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Etxebizitzarako sarbidean ematen den arrazakeria eta xenofobiaren inguruan sortutako diskurtsoa zabaltzea.
- Eragileekin kontaktua egiten jarraitzea eta sarea mantentzea.
- Diskriminazioak salatzea eta ekarpenak proposatzea.

Garapena

Lehen seihilekoan, oro har, zabalpenerako edukiak sortu ziren. Batetik, Quan Zhou ilustratzailearekin, komikiaren sortze prozesua amaitu zen. Horretarako, besteak beste, euskararako itzulpenak eta diseinuari ekarpenak egin zizkioten Bake eta Bizikidetzaren Etxebizitza teknikariak. Quan Zhourekin izandako harremana oso jarraitua izan da.

Horrez gain, Nerea Mauleon diseinatzailearekin batera, proiektuaren nondik norakoak biltzen dituen txostena maketatu zen. Txostenak honakoak bildu ditu: sarrera, etxebizitza eskubidearen unibertsaltasuna, jatorri atzeritarreko biztanleen bizitegi egoera, problematikaren nondik norakoak, erroak, irtenbide posibleak eta iturriak.

Edukion prestaketa lanak amaituta, webgunearen diseinua egin zen WebStudio Marketing enpresarekin. Honakoak dira, bada, webgunean bildutako edukiak:

- Proiektuaren inguruko txostena, egoeraren azterketa sakona jasotzen duena eta zenbait datu biltzen dituena.
- Arazoaren inguruko bideo labur bat, gaiaren garrantzia modu bisual eta ulerterrazean azaltzen duena, edonork ikus dezan.
- Quan Zhou ilustratzailearekin (@gaspachoagridulce) elkarlanean sortutako komiki ilustratua, zenbait gazte taldek etxebizitza eskuratzeko orduan jasaten dituzten diskriminazio egoerak erakusten dituena.

Eduki guztiak ekainaren 19an argitaratu ziren EGKren ohiko komunikazio bideak erabilita. Horrez gain, webgunea argitaratu eta zabaldu zen, eta Quan Zhou-rekin kolaborazioan egin zen instagrameko posta, zabalpena handitzeko.

Proiektuari jarraipena emate aldera, Bake eta Bizikidetzaren teknikaria, Etxebizitza teknikaria eta EGK-ko presidentea hainbatetan bildu ziren. Biler horietan erabakitakoari jarraikiz, uztailaren 2an Donostiako Udalarekin harremanetan jarri zen EGK, Nork-nork-zer proiektuaren jarraipenari

lotuta proposamen bat egiteko. Udalak hala eskatuta, proposamena biltzen duen txosten bat osatu zuten Bake eta Bizikidetzaren teknikariak eta Etxebizitza teknikariak. Proposamenak Quan Zhou-k sortutako ilustrazioak ardatz hartuta aurkezpen eta erakusketa bat egitea zuen oinarri.

Horrekin, aipatutakoa antolatzeke urratsak eman dira azken hilabeteotan. Donostiako Udaleko Gazteriako teknikariarekin eta Kontadores Zentroko teknikariarekin, Quan Zhou-rekin eta bestetuekin bilduta, ekitaldiaren nondik-norakoak zehaztu ziren: espazioa, data, iraupena, formatua, edukia, auzi teknikoak... Ekitaldiaren prestaketa aurten egin den arren, ekitaldia 2026an egitea aurreikusten da.

Ebaluazioa

- Sortu eta zabaldutako edukien kalitatea oso ona izan da.
- Sortu eta zabaldutako edukien hedapen kuantitatiboa (oraingoz neurgarria dena, instagrameko post-a) oso ona izan da.
- Aurkezpen-saioa egiteko aukera mahaigaineratu eta diseinua egin da. Quan Zhou zein administrazioaren interesa bizia izan da eta ekitaldiaren eragina esanguratsua izatea aurreikusi da.
- Jendartearen eta administrazioen harrera oso beroa izan da.

6.5 Nazioarteko egunak

Bakea eta Bizikidetzaren inguruko aldarrikapenei lotutako nazioarteko egunak baliatzen ditu EGK-k bere mezua zabaltzeko. Gazteen artean bizikidetzari eragiten dioten gaiak planteatzen dira horien aurrean hausnarketak eta ekintzak sortzeko eta Nazioarteko egunen bitartez aldarrikatzen dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Urtean zehar bakea eta bizikidetzarekin zerikusia duten data garrantzitsuak kontuan eduki proiektuak garatzeko orduan eta egun horietan aldarrikapena egin. _

HELBURU ZEHATZAK:

- Data esanguratsuen garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.

Garapena


Aldarrikatuko diren Nazioarteko egunak honakoak dira:

- Memoriaren Eguna Euskadin, azaroak 10. Aurten, Auschwitzeko sarraski-eremuaren askapenaren 80. urteurrena ospatzean, Bakea eta Bizikidetzaren arloko memoria historikoaren garrantzia nabarmentzeko ahalegina egin du. Asmo horrekin, Memoriaren Eguna ospatu da azaroaren 10ean, baina hausnarketa hori urte osoan zehar integratu egin da, eta gertaera horiei buruzko memoria eta ikaskuntza bizirik mantenduko duten proiektuak garatu baitira. Memoriaren lerbildidearen proiektua ekimen honen barruan txertatuko litzateke, bere helburuetako bat Memoriaren Eguna ospatzea baita. Horrez gain, Memoriaren egunean bertan sare sozialetan memoriaren garrantziaz hausnartzeko publikazio bat ere egin zen.
- Aniztasun Funtzionalaren / Desgaitasunaren Eguna, abenduak 3. Urtean zehar elkarriketak egin dira aniztasun funtzionala duten pertsonekin lan egiten duten hainbat elkarte eta kolektiborekin – hala nola FERVAS, Mindara, besteak beste –, Partaidetza Arloak sustatutako Inklusio Plana egiteko prozesuaren esparruan. Topaketa horietan bildutako informazio guztia kontuan hartu da eta hartuko da gizarte inklusiboagoa eta aniztasunaz kontzienteagoa sustatuko duten etorkizuneko ekintzak diseinatzeko.
- Migratzaileen Nazioarteko Eguna, abenduak 18. Aurreko urtean dagoeneko Migratzaileen Nazioarteko Eguna ospatu genuenez, aurtengo gertakariak ikusita, EGK-tik erabaki da garrantzi handiagoa zeukala beste bi kolektibo kalteberen aldeko aldarrikapenak egitea. Alde batetik, azaroaren 16an Euskadiko Ijito Herriaren Eguna ospatu zen. Bakea eta bizikidetzaren teknikariak jasotako txostenetatik – hala nola Ikuspegi 2024koak – eta berriki egindako beste analisi batzuetatik abiatuta, egiaztatu da ijitoen komunitatea Euskadin gehien diskriminatutako taldeetako bat izaten jarraitzen duela.

“
Gogoratzea
aurrera
egitea da.
MEMORIAREN EGUNA

Diagnosticoko hori abiapuntu hartuta, diseinatzaile gazte batekin batera argitalpen erakargarri bat egin zen, publiko gazteari egokituia. Bertan, azaroaren 16a zer den, data hori zergatik den garrantzitsua eta ijitoek jasaten dituzten diskriminazio nagusiak azaltzen ziren, txosten ofizialetatik ateratako ehunekoetan oinarrituta.

Gainera, argitalpenak Euskadin antigitanismoari aurre egiteko eta ijito-herriaren integrazioa, berdintasuna eta hezkuntzarako sarbidea sustatzeko egunero lan egiten duten erakunde eta kolektiboetako buruzko informazioa jasotzen zuen, besteak beste, KERA, Kale Dor Kayiko...



Gainera, abenduaren 4an, Bilboko La Perrera espazioan, ITS-ei buruzko tailerra egin zen. Bertan, Libe Osa erizainaren eta sexologoaren eskutik, infekzio desberdinak, sintomak, guregan eragin ditzaketen kalteak, prebenitzeko moduak... jorratu ziren. Izan ere, EGK-k uste du genital bidez transmititzen diren infekzioak saihesteko, horiek ezagutzea eta kontuan hartzea garrantzitsua dela eta horregatik, tarte bat eskaini nahi izan zaio infekzioen inguruan informatzeari. Bestalde, jakina da genitalak zerbait konplexuago baten parte direla: neska zein mutilen erotikarena. Horrek gizaki moduan bilatzen denaz hitz egiten du: beste batekin elkar gustatzea, maitatua sentitzea, seduzitzea, konpartitzea, gustura egotea... Hori guztia kontuan hartuz, erakargarritasunaren,

ligatzearen eta laztanen inguruan pentsatu zen ere tailerrean, partaideen arteko elkarriketaren bitartez.

Ebaluazioa

- Egindako barneko lanketa oso ondo baloratzen da. Uste da hausnarketarako bidea ireki duela proiektuak eta ideia oso potenteak atera direla.
- Kanpainak izandako inpaktua positiboki baloratzen da.
- Tailerra oso ondo baloratzen da. Bertaratutako jendeak edukienganako interes handia erakutsi du.
- Tailerraren bidez lortutako emaitzak positiboki baloratzen dira: etorritako jendearen asebate maila handia izan da.

7.6 Etxearen erraiak

Etxea espazio segurutzat hartzen du gizartean gailen den iruditegiak: etxea da atsedenerako dugun lekua, etxea da babeserako eremua. Hala ere, jakina da hori ez dela beti horrela izaten. Tartean, emakume askorentzat, etxea ez da espazio seguruaren eta deskantsuaren sinonimoa. Horren adierazle dira, besteak beste, genero indarkeriari eta generoaren arabera denboren erabilerari loturiko datuak: batetik, etxeak indarkeria ezkuta dadin ahalbidetu dezake, eta bestetik, etxe barruan gizon eta emakumeen arteko disparekotasunek indarrean diraute.

Egun gailentzen den elkarbizitza ereduak familia du oinarri. Familia, gizarte-erakunde gisa, sistema patriarkalaren zutabe izan da historikoki, eta genero-rol tradizionalak zein egiturazko desberdintasunak erreproduzitzeko gune ere izan da. Esaterako, lan-banaketa, “amatasun-mandatu” eta emakumeak familia-nukleora mugatzea funtsezko mekanismo izan dira historikoki emakumezkoen azpiratzea bermatzeko.

Familia ereduak gero eta anitzagoak diren arren, gaur-gaurkoz gailen den elkarbizitza ereduak bikotea edo familia du bizikidetzat unitate nagusi. Horrek, bada, familia-nukleo itxietako bizimodua indartzen du: tartean, etxeak eta familiak esparru pribatutzat har ditzagun sustatuz eta emakumeak isolatuz.

Horrekin guztiarekin, etxearen inguruan den irudikapena auzitan jartzea izango du xede proiektu honek. Izan ere, nahitaezkoa da etxea izatez espazio segurua den ideia alboratzea, eta

emakumeen azpiratzea erreproduzitzen duen ingurune gisa ulertzea: are, baita kasu batzuetan emakumeentzat arriskutsu den espazio gisa ere.

Bide horretan, indarkeria eta zaintza-lanen antolaketa izango dira hausnarketa gai nagusi. Halaber, etxebizitza eskubidea eta elkarbizitza ereduak hizpide izateari ere emango zaio bide: besteak beste, etxebizitza ez segurua izatearen inplikazioak gaineratuta (etxegabetasunaren ETHOS tipologia). Gaia gaineratu, hausnarketa sustatu eta jardunbide egokirako proposamenak biltzea izango du helburu EGK-k.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Emakumeen aurkako indarkeriaren eta zaintza-lanen banaketaren inguruan hausnartzea etxea espazio segurua den irudikapena auzitan jartzeko. Honekin, berdintasun eta etxebizitza esparruetatik auzioi erantzuteko neurrien inguruan eztabaidatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Etxearen inguruan Euskadin gailen izan den irudikapena aztertzea. Besteak beste, irudikapen kulturalak arakatzea.
- Genero-indarkeria eta etxebizitza esparruaren artean den lotura aztertzea. Tartean, COVID19ak sortu testuinguruan azaleratu ziren datuak abiapuntu hartzea.
- Generoaren arabera zereginen banaketari eta denboraren erabilerari loturiko datuak biltzea.
- Etxebizitza esparru pribatu gisa proposatzen duen ikuspuntuari aurre egitea. Aztergai izan diren azpiratze-erak ahalbidetzen dituen egiturak jopuntu izatea.
- Familia- eta elkarbizitza-erak hausnarketa gai izan eta aurrera begirako proposamenak ontzea.

Garapena

Otsaila eta martxoa artean, gaiaren inguruko informazioa bildu zen eta proiektuaren oinarriak finkatu ziren.

Berdintasun teknikariak, Etxebizitza teknikariak eta Presidentziak egindako bilera batean, artistekin elkarlana sustatu baino, gazteen partehartzea sustatzeko lehiaketa bat antolatzea erabaki zen. Horrela, proiektuak bi urrats izango zituela zehaztu zen: arte-lehiaketa eta ekitaldia.

Arte-lehiaketari dagokionez, proiektuaren komunikaziorako euskarriak sortu ziren diseinatzaile gazte batekin elkarlanean. Hainbat bilera eta ekarpenen ostean, kartela sortu zen eta maiatzaren 7an “Etxearen erraiak: arte lehiaketa” jarri zen martxan, uztailaren 8ra arte parte hartzeko aukera irekia izan zuena. Irailaren 12an jakinarazpena bidali zitzaien lehiaketa irabazi zutenei, eta sari-banaketa ekitaldian egingo zela-eta, bertaratzeko gonbita luzatu zitzaien.

Ekitaldiari dagokionez, irailaren 25ean Donostiako Ernest Lluch Kultur Etxean egiteko aurreikuspena izan bazen ere, azaroaren 13an Bilboko EGKren bulegoan egitea deliberatu zen. Bertan, sari-banaketaz gain, Leire Vargas idazle eta itzultzailearen eskutik, arakatu egin zen etxebizitzaren iruditeria sozial eta literarioa.

Ebaluazioa

- Etxebizitza teknikariaren eta Berdintasun teknikariaren orain arteko elkarlana ondo baloratzen da, efizientea izan da.
- Arte-lehiaketaren bidez sustatutako hausnarketen sakontasuna aberasgarria izan da.
- Ekitaldia positiboki baloratzen da, etxebizitzaren inguruko iruditeria soziala ikuspuntu feministatik auzitan jartzeko gako interesgarriak izan baitziren eztabaidagai.
- Harrera kuantitatiboki ez baldin bazen oso handia izan ere, kualitatiboki oso ondo baloratzen da.

7.7 Nazioarteko egunak

Nazioarteko egunak, urtero bezala, esanguratsuak dira EGKrentzat. Horregatik, historiako gertaera jakin batzuen ondorioz edota orain gutxi finkaturiko aldarrikapenengatik egun batzuk azpimarragarriak dira.

EGK-k urtero, egun horietan, bere diskurtsoak argitaratzeko aprobeztatzen du eta 2024an hori egiten jarraituko du. Aurten, modu berean jarraituko du. Gainera, zenbait gaien inguruan diskurtsoak sortu nahi dira aldarrikapen berriak egiten jarraitzeko.

Bestalde, barnera begirako bidea egin nahi da: liburu bat hartu eta dinamika bat antolatu lantaldeko kideekin, formakuntza bat egin, filma bat ikusi eta horri buruz hausnartu...

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Urtean zehar feminismoarekin zerikusia duten data garrantzitsuak azpimarratzea eta egun horietan manifestu edo diskurtsoa plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Data esanguratsuen garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGKn parte-hartzea bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.
- EGKn parte hartzen duten elkarteak data hauetan publikatutako manifestu eta diskurtsoetan inplikatu eta hauen atxikimenduak aurrera eraman indarrak batzeko.

Garapena

Martxoak 8: EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Aurten, Emakume Langilearen nazioarteko egunaren harira argitalpen bat egin da Instagramen. Bertan, “Matxismoa isilarazi, feminismoa hauspotu” lelopean, gazteria berdintasun errealtatearen aldeko borrokarekin lerrokatzea bilatu da, eta horren aldeko agente aktibo izan behar dela aldarrikatu. Izan ere, azkenaldian, mundu mailako ultraeskuinaren gorakadaren aurrean ideologia atzerakoiek lekua egin dute gizartean, eta, ultraeskuineko alderdiek eta ideologia horiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza ukatzen dute. Horregatik, beharrezkoa da berdintasunaren alde lanean jarraitzea eta jende gaztea borroka horretan inplikatu sentiaraztea.

Ekainak 28: LGTBIQ+ HARROTASUNAREN EGUNA

Egun honen harira, bideo bat publikatu da sare sozialetan. Azkenaldian LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako erasoak ugaritu egin dira. Horren aurrean, EGK-tik harrotasunaren mugimendua aldarrikatu nahi izan da, esanez beldurra eta zabaldu nahi dutenen aurrean egongo direla kolektibokoak, baita isilarazi eta geldiarazi nahi dituztenen aurrean ere.

Azaroak 25: INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO EGUNA

Egun honetan argitalpen bat egin da sare sozialetan urteak utzi dituen datuak jasotzen dituenena. Datuak benetan dira lazgarriak eta agerian uzten dute indarkeria matxistak emakumeen eguneroko bizitzetan jarraitzen duela. Hortaz, argitalpen honen bidez gazteak inplikatu nahi izan dira indarkeria matxista desagerrarazteko bidean

Ebaluazioa

- Egindako adierazpenen eskutik, EGK-k bere posizionamendua gizarteratu eta, berezko duen zubi-lan funtzioa betez, gazteen egoera mahai gainean jarri eta hobekuntza proposamenak egin ditu.
- Modalitateari dagokionez, irudi eta bideozkoak uztartu dira eta, orokorrean, sare sozialei eman zaie garrantzia. Esan behar da ere, sare sozialetan egindako argitalpenek, bai bideo, bai argazkiek, oihartzun nabarmena dutela, bistaratze ugari eduki baitituzte.

7.8 Harremana feminismoko eragileekin

EGKrentzat funtsezkoa da mugimendu feministako eta LGBTBI+ kolektiboko eragileekin harremanetan egotea. Alde batetik, beste hainbat eragilerekin aliantzak sor daitezkeelako eta bien arteko elkarlana susta daitekeelako; hori berebizikoa da proiektuak aurrera ateratzeko unean, bi taldeak ateratzen baitira irabazten. Bestetik, politika publikoetan eragin ahal izateko EGK-k ezinbestekoa du diskurtsoak eguneratzea, eta, feminismoko eragileekin harremanetan egotearen bidez euren agenda politikoen berri izan dezake, baita gazteriaren ikuspegira beste modu batean hurbildu ere. Horrela, hitzetik hortzera dauden gaiak jorra daitezke.

2025ean lehenik eta behin, zenbait eragilerekin harremana berreskuratu nahi da eta aldi berean beste askorekin sendotu, uste baita EGKren diskurtsoa garatzeko ezinbestekoa dela harreman hauek berrartzea estutzea. Baina urrats bat gehiago eman nahi da aurren, hala, eragile hauen espaziotan parte hartzeko beharra ikusi da. Euren ere EGK beraien lanetan presente izan dezaten.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Feminismoko eta LGTBQ+ kolektiboko gaiekin aritzen diren agenteak identifikatu eta ezagutzea eurekin harremanak estutzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Taldeak identifikatu eta eurekin harremanetan jarri.
- Taldeekin loturak ezarri eta elkarrekiko elkarlan posiblea planteatu.
- Beste taldeen agendak ezagutu.
- EGKren agenda ahalik eta gaurkotuen egotea bermatu.

Garapena

Feminismoa eta LGTBI+ arloan diharduten eragile ezberdinekin bilerak egin dira eta harremanak sendotu dira. Esate baterako, Ortzadarrekin harreman berria egin da, baita Fekoorreko berdintasun arloarekin ere, eta Sin Romi emakume ijitoen taldearekin.

EGK-ko eta EGK-koak ez diren elkarteen artean gazteen parte hartzea bultzatu da hainbat proiekturen ildotik eta EGK-ko elkarteek eta administrazioak antolaturiko eta feminismoa eta LGTBI+fobia lantzen diren espazioetan parte hartu da.

Ebaluazioa

- Ondo baloratzen dira egindako kontaktu berriak.
- Datozen hilabeteetan gehiago egitea espero da.

8. KOMUNIKAZIOA



Komunikazio lan-arloaren helburua Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) gazte eta administrazioengana hurbiltzea da. Bide hori jarraituz 2025ean EGKren irudia ezagutarazteko lanetan ibili da Komunikazio Teknikaria.

8.1 Komunikazio Plana

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak antolatutako ekimen eta proiektuen berri emateko ezarritako kanala **Piztu! buletin digitala** da. Bi edo hiru astean behin bidaltzen zaie harpidetuta dauden gazte, gazte-elkarte, norbanako eta administrazioei. Gazteek gazteentzat egindakoa da **Piztu!**

Buletin digitala eta honako edukiak biltzen dira:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarten jarduerak.
- Bestelako gazte eragileen jarduerak.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintza, proiektu edo egitasmoak agenda atalean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik egindako lana Euskadiko gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen artean ikusaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Euskadiko gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Euskadiko gazte elkarteek eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikusarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60 gutxienez euskaraz).
- Gazteriak dituen proposamenak eta eskaerak aditzera ematea.
- Euskadiko gazteriak dituen proposamenak eta eskaerak aditzera ematea.
- Euskadiko gazteek dituzten proposamenak espazioen kudeaketarako gomendioetan txertatzea eta gazteen diskurtsoa balorean ezartzea.
- EGK-ko sare sozialetan eta bere buletin digitalean jarraitzaile eta harpidedun kopurua igotzea.
- Ikusizko edukiei garrantzia ematea, eduki interesgarriak eta baliagarriak sortzea.

Piztu! buletin digitala

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) gazte elkarteek eta bestelako gizarte eragileen lana ikusaraztea.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren azken albisteak ezagutzera ematea.
- EGK-ko kide diren elkarteek jarduerak ezagutzera ematea.
- Bestelako gazte eragileen jarduerak ezagutzera ematea.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintza, proiektu edo egitasmoak buletineko agenda atalean publikatzea.
- Harpidedun kopurua handitzea.
- Publikatutako buletin digital guztien erregistro bat eramatea.

Hemen jarraian 2025ean bidalitako **Piztu! buletin digitalak**:

- [Piztu!108buletindigitala](#)
- [Piztu!109buletindigitala](#)
- [Piztu!110buletindigitala](#)
- [Piztu!111buletindigitala](#)
- [Piztu!112buletindigitala](#)
- [Piztu!113buletindigitala](#)
- [Piztu!114buletindigitala](#)

- [Piztu!115buletindigitala](#)
- [Piztu!116buletindigitala](#)
- [Piztu!117buletindigitala](#)
- [Piztu!118buletindigitala](#)
- [Piztu!119buletindigitala](#)
- [Piztu!120buletindigitala](#)
- [Piztu!121buletindigitala](#)
- [Piztu!122buletindigitala](#)

Komunikabideekin Harremanak

- Euskadiko gazteen interesekoak diren edo izan daitezkeen gaiak hedabideen eta, beraz, gizartearen agenda mediatikoan eta sozialean txertatu dira. EGK-ren marka hedabideetan sendotu da, kontseilua ezagutzera emateko.
- EGKren jarduera eta iritziak hedabideetan azaldu dira.
- Hedabideetatik jasotako proposamenak kudeatu dira.
- Gazteen ikuspuntua txertatu da.
- Ekimen eta iritziak hedabideen bitartez gizarteratu dira.
- Euskadiko telebista zein irratiko programa publikoetan kolaborazioak lortu dira.
- Gazteen inguruan publikatzen diren albisteen erregistroa eraman da.

Sare Sozialak

- EGKtik kanpo dauden gazte, gazte-eragile, elkarte, hedabide eta administrazioekin konektatu eta lotura, interakzio eta irismena handitu da.
- Pasaden urtearekin konparatuz jarraitzaile kopurua handitu da.
- EGKren azken albisteen berri eman da.
- Erabiltzaileekin elkarrizketak sortu dira, aholkularitza zerbitzua eskainiz.
- EGKrentzat garrantzitsua izan daitekeen informazioa bildu da eta jarraitzaileen artean partekatu da.
- EGK-k gai ezberdinen inguruan bere posizionamendua plazaratu du.
- Gazte elkarten azken albisteak gertutik jarraitu dira eta gazteria arloko bestelako eragileen azken orduaren berri izan du Komunikazio teknikaria.
- Gazte eragileen albisteen eta agenda-deialdien berri eman da.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak partekatu dira.

- Jarraitzaileen artean gertutasuna transmititu da.
- EGKren marka indartu da.
- Eduki interesgarria eta baliozkoa publikatu da.

Branding

- EGK-k bere barne eta kanpo komunikazioaren diseinua beti diseinu berdinarekin mantendu da, gazteek EGK-tik egiten duen lana kontseiluarekin harremantzeko.
- Memoretan, txostenetan eta bestelako dokumentuetan EGK-ko diseinua islatu da.
- Dokumentu grafikoetan tipografia eta paleta kolore berdina erabili da, barne dokumentuak koherentzia izan dezaten.
- Teknikariak egindako txosten eta argitalpenetan EGK markaren Branding dokumentua errespetatu da.

Nazioarteko egunak

- Nazioarteko egunak aldarrikatu dira EGKren irudia ezagutzera ematez.
- Gazteen egoera desberdinak ezagutzera eman dira.
- Elkarrizketa eta ikus-entzunezko edukiak egin dira, jarraitzaileen artean partekatuz.
- EGKren posizionamendua gai desberdinetan aldarrikatu da.

Garapena

Urtean zehar egingo diren proiektu guztiei komunikazio plan bat atxikitu zaie, honekin batera edukien egutegi bat sortu da, argitalpen guztien erregistroa izateko eta kontseiluko komunikazioa bideragarriagoa izateko. Arlo bakoitzeko proiektu bakoitza bere **komunikazio plana** izan du. Proiektua publikatu baino lehen Komunikazio teknikariak eta arlo horretarako teknikariaen artean erabaki dute zein izan den proiektua hedabideetan eta EGK-ko sare sozialetan izango duen komunikazio zabalpena. Ala nola, proiektua modu grafiko batean diseinatu, sareetan publikatu diren irudi, diseinu zein testuak sortu eta proiektuaren zabalpen nola egitearekin akordio batera heldu.

Proiektu guztiak difusio prozesu berdina izan dute:

- EGK-ko webgunean publikatu da.
- EGK-ko sare sozialetan publikatu da.
- EGK-ko elkarteei mezu elektronikoa bidali da.
- **Piztu! buletin digital**ean publikatu da.

- EGK-ko elkarteekin dagoen Whatsapp difusio taldean proiektua partekatu da.
- Komunikazio teknikariak duen hedabideen erregistroari proiektua bidali da.
- EGK-tik kanpo dauden elkarteei mezu elektronikoa bidali da.
- Kartelgintzaren bitartez publizitatea egin da.
- Proiektuko teknikariak eta Komunikazio teknikariak komenigarritzat jo badute, sare sozialetan publizitatea ordaindu da.

Ebaluazioa

- Komunikazio teknikariak **Piztu! buletin digitalak** izan dituen emaitzen ebaluazioa egin da urte amaieran, aldez aurretik finkatutako irizpideak jarraituz.
- Komunikazio teknikariak **Piztu! buletin digitalean** harpidetu diren erabiltzaile berrien erregistroa egin du.
- Komunikazio teknikariak EGK-ko sare sozialak izan dituen harpidedun berrien erregistroa egin du urte amaieran.
- Komunikazio teknikariak EGK-k hedabideetan izan duen presentziaren [erregistroa](#) egin du urte amaieran, baita ere [gazteen inguruan egin diren albisteen erregistroa](#).
- Komunikazio teknikariak EGK-tik egindako zabalpen desberdinen irismenaren erregistroa egin du urte amaieran.
- Urte amaieran, plangintza honetan idatzita dagoen komunikazio [plana](#) bete den ebaluatu da.

8.2 Webgunearen mantenua



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere eguneroko lana egiteko webgunea du, bere zerbitzari eta mantenuarekin. Horretarako, kanpo enpresa hautatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren webgunea ondo funtzionatzea eta kontseiluko komunikazio tresna nagusia izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK- antolatzen dituen ekitaldien berri eman da.
- EGK-k aurrera ateratzen dituen proiektuen berri eman da.

Garapena

Urtean zehar, Komunikazio teknikaria, kontseiluko webguneak duen zerbitzua emateko enpresekin harremanetan egon da momentu oro. EGK-ko webgunean urtean zehar publikatutako edukiek izan duten irismenaren ebaluazioa egin da Google Analytics zerbitzuaren bitartez.

Ebaluazioa

- Sare-sozialen kudeaketaren ebaluazioa egiteko hainbat tresna erabili dira, horien artean *Metricool* edo plataforma bakoitzak eskaintzen duen metriken tresna.
- Instagramen argitalpen bakoitzak duen irismena begiratu da, ikustaldiez gain zer nolako interakzioa egon den aztertzeko. Era berean, egindako *storyak* izandako bilakaera eta tarteka jarraitzaile kopuruan izandako aldaketak kontuan izan dira.
- Twitter profilarekin sare sozialak eskaintzen baliabide analitikoak erabili dira, interakzioa, irismena eta bestelako datu esanguratsuak lortzeko.
- Facebook orrialdearekin sare sozialak berak ematen dituen baliabideak erabili dira. Hauei esker argitalpen bakoitza zenbat pertsonen atsegin duten jakin izan da, zenbatek elkarbanatu eta zer nolako irismena izan duen, hau da, zenbateko inpaktua izan duen.
- You Tube plataforman publikatutako bideo bakoitza izan duen ikuskizun kopurua neurtu da eta berdina Linkedinen publikatutako post bakoitzarekin.

- 2026rako helburua hauetan sakontzen jarraitzea da, erabiltzaileek EGK-ko sareekin duten harremanari buruz ahalik eta informazio gehien ateratzeko.

8.3 Diseinatzaile Gazteen Lan Poltsa

Aurten, berriro ere [gazte](#) diseinatzaileen laguntza jaso da, EGK-ko grafismo desberdinak egiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k egunerokoan egiten duen lana zabaltzeko beharrezkoak dituen euskarrien diseinuak garatzea: kartelak, liburuxkak, txostenak, bideoak, etab.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko ezagutzera eman da ikus-entzunezkoen eta diseinuaren bitartez.
- EGKren marka indartu da.
- Euskadiko diseinatzaile gazteei lan aukera bat eskaini zaie.


Garapena

Teknikari bakoitza proiektu baten iruditegia egin baino lehen gazte diseinatzaileekin harremanetan ipini da. Diseinatzailearekin aurrekontu bat adostu du eta ondoren diseinu mota bat. Diseinu guztiak EGK-ko komunikazio hedabide desberdinetan publikatu dira. 2026ari begira deialdi berria egingo da abenduan eta CV eta portfolio berriak jasoko dira.

Ebaluazioa

- Teknikari bakoitzak diseinatzaile batekin lan egin ostean ebaluazioa egin du. Urte amaieran, diseinatzaile bakoitzaren ebaluazio orokorra egin da (baliteke behin baino gehiagotan lan egin izana diseinatzaile berdinarekin) eta orduan erabaki da 2026ko lan-poltsan nork jarraituko duen eta nork ez.
- Teknikari bakoitzak lan egin duen diseinatzaile guztien [erregistroa](#) egin du.

8.4 Lan Arloak



EGK-k jarduera ugari egin ditu urtean zehar. Komunikazio lan-arloarekin zerikusi zuzena ez badute ere, teknikariaren ardura da hauen zabalpenean laguntzea eta gainerako lan-arloekin (Etxebizitza, Enplegua, Hezkuntza, Partaidetza, Astialdia, Bakea eta Bizikidetza, Berdintasuna, Administrazioa eta Presidentzia) elkarlanean aritzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k, bakarrik edo beste administrazio edo elkarterekin batera, antolatzen dituen proiektuak gizarteratzea eta gazte erakundeen artean komunikazioa, harremana eta trukaketa sustatu da.

HELBURU ZEHATZAK:

- Aurrera eramandako proiektuek oihartzuna izan dute hedabideetan.
- Hedabideek egindako erreportajeetan gure ahotsa kontuan izan da.
- Kanpaina espezifikoek bidez argitalpenarekin zerikusia duen oro zentralizatu da.
- Jorratutako gaiak eta gazteok hauei buruz dugun iritzia gizarteratu da.
- Prentsaurrekoak antolatu dira.

Etxebizitza

- Gazteak eta emantzipazioa. Emantzipa zer?
- [Nork-nori-zer. Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean](#)
- Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa

- GazteFoku: etxebizitza eta enpleguaren gazte behatokia

Enplegua

- Gazteak eta emantzipazioa
- GAZTELABEL zigilua
- Gazteak eta lehen sektorea
- [Nazioarteko egunak](#)
- [Gazte Ekintzaileak](#)
- Gazte Foku: etxebizitza eta enplegua

Hezkuntza

- Gelatik At – Hezkuntza Komunitatea
- Gazte Boluntarioak
- Hezkuntzako Nazioarteko Egunak
- [Hausnarketa Lab](#)
- [Euskadiko Gazteak Lankidetzan](#)

Astialdi

- [Udako ekintzen kanpaina](#)
- [Gipuzkoako Astialdi Mapa](#)
- [Tratu onen txostena](#)
- [Astialdiko Formakuntzak](#)

Partaidetza

- 2024-2030 Plan Estrategikoa eta Urteko Ekintza Plana
- [EGK-ko Formakuntza Plana](#)
- [Gazteak eta Ongizate Emozionala](#)

Bakea eta Bizikidetzatza

- [Etikasi Polonia eta Ipar Irlanda](#)
- [Nazioarteko Egunak](#)
- [Nork-nori-zer. Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean](#)
- [Bakearen Memoriaren Ibilbidea](#)

- EHU Uda Ikastaroa
- Eskola Segregazioa

Berdintasuna

- EGK-ko III. Berdintasun Plana
- Hilerokoa eta menopausia
- Sexu- eta ugalketa-osasuna
- [Etxea ez da beti etxe](#)
- [Nazioarteko egunak](#)

Gai administratiboak

- Urteko balantze ekonomikoa

Garapena

EGK-k, bakarrik edo beste administrazio edo elkarterekin batera, antolatzen dituen proiektuak gizarteratu dira eta gazte erakundeen artean komunikazioa, harremana eta trukaketa sustatu da.


Ebaluazioa

- Sare-sozialen kudeaketaren ebaluazioa egiteko hainbat tresna erabili dira, horien artean *Metricool* edo plataforma bakoitza eskaintzen duen metriken tresna.
- Instagramen argitalpen bakoitzak duen irismena begiratu da, ikustaldiez gain zer nolako interakzioa egon den aztertu da. Era berean, egindako *storyak* izandako bilakaera eta tarteka jarraitzaile kopuruan izandako aldaketak kontuan izan dira.
- Twitter profilarekin sare sozialak eskaintzen duen *Twitter Analytics* erabili da, interakzioa, irismena eta bestelako datu esanguratsuak lortzeko.
- Facebook orrialdearekin sare sozialak berak ematen dituen baliabideak erabili dira. Hauei esker argitalpen bakoitza zenbat pertsonen atsegin duten jakin izan da, zenbatek elkarbanatu eta zer nolako irismena izan duen, hau da, zenbateko inpaktua izan duen.
- You Tube plataforman publikatutako bideo bakoitza izan duen ikuskizun kopurua neurtu da eta berdina Linkedinen publikatutako post bakoitzarekin.

- 2026rako helburua hauetan sakontzen jarraitzea da, erabiltzaileek EGK-ko sareekin duten harremanari buruz ahalik eta informazio gehien ateratzeko.

Metrikool plataformak eskaini dituen metriken grafikoak:

Aplikazioaren bertsio aurreratua ez dugunez, azken 3 hilabete hauetan lortutakoa baino ezin izan da aztertu. Jarraian, lortutako jarraitzaileen grafikoak erantsi da.



Jarraitzaile gehiengoa emakumeak dira 24 eta 35 urte bitartekoak




Leku desberdinetako jarraitzaileak ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere sare sozialetan, baina gehiengoa Euskaldunak dira. Bizkaitarra gehiago daude, Gipuzkoar baino eta Arabar gehiago Gipuzkoar baino.




Azken hiru hilabete hauetan hau da lortu den eduki organikoaren irismena eta engagement rate-a.


Crecimiento




Balance de seguidores




Perfil



Resumen orgánico




Interacciones orgánicas




Kanpainak

KRISTALEZKOAK



Público



ETXEAREN ERRAIK



ETIKASI:

Rendimiento ⓘ

Total ▼

€88,47 gastados en 10 días.

Clicks en el enlace ⓘ 555

Costo por: Clic en el enlace ⓘ €0,16

Reproducciones ⓘ 39.962

Alcance ⓘ 19.140

Actividad

Interacciones con la publicación



Clicks en el enlace



Seguimientos



Reacciones a publicaciones



GAZTE AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Rendimiento ⓘ

Total ▼

€39,95 gastados en 20 días.

Clicks en el enlace ⓘ 201

Costo por: Clic en el enlace ⓘ €0,20

Reproducciones ⓘ 24.225

Alcance ⓘ 13.663

Actividad

Clicks en el enlace



Interacciones con la publicación



Público

GIPUZKOAKO ASTIALDI TALDEEN MAPA BERRIA

Rendimiento ⓘ

Total ▼

€15,62 gastados en 17 días.

Visitas al perfil de
Instagram

102

Costo por: Visita al
perfil de Instagram

€0,15

Reproducciones ⓘ

6.228

Espectadores ⓘ

3.860

Actividad


Interacciones con la publicación



Clics en el enlace



Reproducciones de video de 3 segundos



Seguidores de Instagram



9. PRESIDENTZIA



Aurten, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) presidentziaren plangintzaren formatua berritzea erabaki da, lanaren antolaketa optimizatzeko. Ikusi da eraginkorragoa izango dela presidentziaren erantzukizunak hiru funtzio nagusitan banatzea, eta horien barruan presidentziak 2025ean garatuko dituen zeregin guztiak zehaztea. Funtzio nagusi horiek hauek izango dira:

1. Barneko koordinazioa: EGKren antolaketa barnekoa eta eguneroko funtzionamendua bermatzea, bai Batzorde Iraunkorrarekin bai talde teknikoarekin koordinatuz.
2. Harreman instituzionalak: EGKren kanpoko ordezkaritza kudeatzea, finantzatzaileekin, erakundeekin, alderdi politikoekin eta beste eragile batzuekin harremanak sustatuz.
3. Eragin politikoa: EGKren estrategia politikoa garatzea eta defendatzea, gazteriaren eskubideak bermatzeko eta haien parte-hartzea sustatzeko.

Gainera, aurten, presidentziak bere funtzioetatik kanpo proiektu bakarra izango du: EGKren 40. urteurrenaren sorrera eta koordinazioa, 2026an ospatuko den ekitaldi berezia. Proiektu hau estrategikoa izango da, gazte parte-hartzearen eta EGKren ibilbidearen aitortza sustatzeko.

Bestalde, 2025ean Iraunkortasuna eta 2030 Agendaren arloa presidentziaren esku egongo da. Horrek esan nahi du arlo honetako diskurtsoak eta proiektuak presidentziaz aterako direla, baina helburu nagusia presidentziak arlo hau ikuspegi transbertsaletik lantzea izango da, EGKren jarduera guztietan integratuz.

9.1 Barne Kordinazioa

Barneko koordinazioa da **presidentziaren** funtzio nagusietako bat, eta EGKren eguneroko funtzionamendu egokia bermatzeko ezinbestekoa da. Horretarako, **presidentziak** bi esparru nagusitan lan egingo du: **Batzorde Iraunkorra** eta **talde teknikoa**.

- **Batzorde Iraunkorrarekin koordinazioa:** EGKren gobernu-organo nagusia denez, **presidentziak** bere jardura koordinatuko du batzordeko kideekin. Honen baitan sartzen dira **Asanblada Orokorraren antolaketa, urteko Plan Estrategikoa eta Ekintza Plana, eragin politikorako estrategia, Policy Programaren garapena eta batzorde ekonomikoaren jarraipena**. Era berean, Batzorde Iraunkorreko kideen arteko lan-dinamika sendotzea bilatuko da.
- **Talde teknikoarekin koordinazioa:** **Presidentzia** da talde teknikoarekin harreman zuzenena duen Batzorde Iraunkorreko kidea, eta, beraz, **antolakuntza mekanismoak eta barne-kudeaketako dinamikak** koordinatzeko ardura du. Horrek esan nahi du **presidentziak** egunero egingo duela lan talde teknikoarekin, **EGKren proiektuen jarraipena egiteko, instituzioekin harremanak kudeatzeko eta arlo bakoitzaren erronkak bideratzeko**.

Honen bidez, barneko koordinazioaren helburua da EGKren **lanaren efizientzia eta eraginkortasuna bermatzea**, bai erabaki estrategikoetan, bai eguneroko kudeaketan.

9.1.1 Batzorde Iraunkorra

Batzorde Iraunkorra da EGKren gobernu-organo nagusia, eta bertan hartzen dira erakundearen norabidea eta estrategia definitzen dituzten erabaki nagusiak. **Presidentziak** Batzorde Iraunkorraren koordinazioan zeregin garrantzitsua betetzen du, bai eguneroko jardunean, bai epe luzeko plangintzan.

HELBURU OROKORRA:

- EGKren misioa eta estrategiak betetzen direla bermatzea, plan estrategikoaren eta urteko planaren garapena gidatuz.
- Erakundearen kohesioa eta eraginkortasuna indartzea, barneko funtzionamendua koordinatuz eta talde-lana bultzatuz.

- Gazteriaren eskubideen eta interesen defentsa sendotzea, erakunde publiko eta sozialekin harremanak kudeatuz eta politika publikoetan eragiteko estrategiak definituz.
- Erabaki garden eta parte-hartzaileak bermatzea, EGK osatzen duten entitateekin etengabeko komunikazioa mantenduz.
- EGKren ekonomia eta baliabideak modu jasangarrian kudeatzea, finantza-kudeaketa egokia bermatzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2025eko Plan Estrategikoaren eta Plan Operatiboaren garapena eta jarraipena egitea, proiektu nagusiak bermatuz.
- Gazte-politiketan eragiteko estrategiak finkatzea, erakunde publikoekin eta alderdi politikoekin harreman instituzionala indartuz.
- Batzorde Iraunkorreko kideen ardura-esparruak argi definitzea, bakoitzak bere funtzioak eraginkortasunez bete ditzan.
- Barne-antolaketa hobetzea, koordinazio mekanismoak sendotuz (adib. idazkaritza, barne batzordeak, parte-hartze mekanismo berriak).
- EGKren 40. urteurrenaren antolaketan lidergoa hartzea, 2026rako ospakizunak ondo planifikatzeko.
- Erakunde harremanak eta finantzaketa-iturrien bilaketa indartzea, EGKren iraupena eta independentzia bermatzeko.
- Komunikazio eta ikusgarritasuna hobetzea, gazteengana eta gizartera gehiago iristeko estrategiak garatuz.

Garapena

EGKren Batzar Orokorraren antolaketa:

Batzar Orokorra EGKren organo gorenena da, eta bertan hartzen dira erakundearen ildo nagusiak. Urtean behin egiten da eta erakundeko entitate guztiek parte hartzen dute. Presidentziak batzar honen antolaketa koordinatuko du, Batzorde Iraunkorreko eta talde teknikoko gainerako kideekin lankidetzan.

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko entitate guztiek parte-hartze aktiboa izatea Batzar Orokorrean.

- Erakundearen estrategiak eta ekintza-plana onartu eta eztabaidatzeko espazio eraginkorra bermatzea.
- EGK-ko aurrekontuaren onarpena.
- Kanpoko auditoritzaren informarearen aurkezpena.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2025eko Batzar Orokorraren antolaketa eta metodologia diseinatzea.
- Parte-hartzea sustatzeko mekanismoak garatzea.
- Ondorio eta erabakien jarraipena bermatzeko prozedura bat ezartzea.
- 2025eko aurrekontuaren exekuzioaren jarraipena.
- 2025eko aurrekontuaren onarpena.

Ebaluazioa

2025ean zehar, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) bere Batzorde Iraunkorrean aldaketa garrantzitsu bat izan du. Urte hasieran, batzordea berritu da eta kide berriak sartu dira, esperientziadun kideekin batera.

Presidentzian, Iratxe Uriarte Eigurenek jarraituko du gidatzen, Bizkaiko Gaztetxo Koordinakundeko ordezkari gisa. Iratxerekin batera, Antonio Dual eta Mikel Arrue ere Batzorde Iraunkorreko kide izan dira, biak Kontseiluko bokalak izanik. Hiru hauek dira Batzorde Iraunkorreko kide esperientziadunenak, urteetako ibilbidea eta ezagutza ekarri dituztelarik taldearen lanera eta egonkortasunera.

Bestalde, Batzorde Iraunkorraren bigarren erdia kide berriek osatu dute. Euzko Gaztediren ordezkari gisa Aitor Ferreño sartu da, Gurutze Gorria Gaztediko izenean Itziar Moreno, eta Uzturreren izenean Ainhize San Andrés. Hiru kide hauek lehen aldiz arituko dira Batzorde Iraunkorrean, eta euren erakundeetako ikuspegia eta motibazioa ekarri dute lan-taldetik egindako jardueretara.

Talde berritu honek, esperientzia eta berrikuntza uztartuz, aurrera eramaten ditu EGKren 2025eko erronkak eta egitasmo nagusiak.

Presidentzia:

- Iratxe Uriarte Eiguren – Bizkaiko Gaztetxo Koordinakundea

Diruzaintza:

- Ainhize San Andrés – Uzturre

Bokaliak:

- Antonio Dual – Kaledor Kayiko
- Mikel Arrue – Lurgorri
- Aitor Ferreño – Euzko Gaztedi
- Itziar Moreno – Gurutze Gorria Gaztedia (Cruz Roja Juventud Euskadi)

Batzorde Iraunkorreko kideen ardura-esparruak argi definitu dira, eta horrek funtzioen banaketa orekatuagoa eta eraginkorragoa ekarri du. Antolaketa-eredu berri honek lidergo partekatua sustatu du, lan-kargak hobeto banatuz eta erabakiak hartzeko prozesuak arinduz.

9.1.2 EGK-ko 2025eko Ekintza Plana

Ekintza Plana urteko plangintza nagusia da, eta bertan jasotzen dira EGKk 2025ean landuko dituen proiektu eta ekimen nagusiak. **Presidentziak** plana koordinatuko du, talde teknikoarekin eta Batzorde Iraunkorrarekin batera.

HELBURU OROKORRAK:

- Urteko jarduera guztiak modu planifikatuan garatzea.
- Erakundearen ildo estrategikoak eta arlo ezberdinen lana bateratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2025eko ekintza-plana diseinatzea eta onartzea.
- Ekintza-plana aurrera eramateko beharrezko baliabideak bermatzea.
- Planean jasotako ekintzen jarraipena egitea eta ebaluazioa gauzatzea.

Ebaluazioa

2025ean zehar, EGKk modu sendo eta koherentean gauzatu du Ekintza Plana, Plan Estrategikoan eta Plan Operatiboan ezarritako lehentasunekin bat etorritik. Urtearen lehen seihilekoan egindako jarraipen positiboak berretsi egin dira urte osoan zehar, eta aurreikusitako norabidea uneoro mantendu da, ezarritako hito nagusiak modu egokian betez.

Jarraipen sistematikoari esker, proiektu nagusien exekuzioa bermatu da, egutegiak eta helburu estrategikoak errespetatuz. Proiektuen martxa egokia izan da urte osoan zehar, eta lan-dinamika nabarmen sendotu da, bai barne-antolakuntzaren ikuspegitik, bai erakunde publikoekin eta bestelako eragileekin garatutako harremanei dagokienez. Antolaketa-mailan egindako doikuntzek eraginkortasuna handitu dute, eta plangintza EGKren eguneroko jardunerako tresna erabilgarri eta funtzional bihurtu da.

2025a urte anbiziotsua izan da EGKrentzat, helburu estrategiko argiak eta erronka handiak planteatu baitira hasieratik. Testuinguru horretan, bereziki positiboa da aurreikusitako helburuak betetzeko gaitasuna izan dela azpimarratzea, erakundearen antolaketa-sendotasuna, taldearen inplikazioa eta lan egiteko moduen heldutasuna agerian utziz.

Horrenbestez, urte osoaren balorazioa oso baikorra da. Egindako lanak oinarri sendoa ezarri du etorkizuneko erronkei aurre egiteko, eta 2026ari begira, EGKk sendotuta ekingo dio bere estrategiaren garapenari, gazteen eskubideen defentsan eta gazte-politikan eragiteko duen eginkizuna indartzen jarraituz.

9.1.3 Batzorde Ekonomikoa

Batzorde Ekonomikoa EGKren finantza-kudeaketaz arduratzen den organoa da, eta bere zeregina erakundearen egonkortasun ekonomikoa bermatzea da. Batzorde hau EGK-ko administrariak, diruzainak eta presidenteak osatzen dute, eta bere ardura nagusiak honakoak dira:

- Aurrekontua prestatzea eta kudeatzea: urteko aurrekontuaren kontrola egitea, diru-sarrerak eta gastuak egoki bideratuz.
- Finantzaketa-iturrien bilaketa: hitzarmenen eta diru-laguntzen negoziazioa administrazioarekin, baita EGKren autonomia ekonomikoa bermatzeko bestelako baliabideak bilatzea ere.

- Kontu-emate eta gastu-kontrol prozesuak bermatzea: aurrekontuaren exekuzioa behar bezala garatzen dela ziurtatzea eta gastuaren justifikazioa eguneratuta edukitzea.
- Gardentasuna eta kontrol ekonomikoa sustatzea: EGKren egoera ekonomikoaren berri ematea Batzar Orokorrean eta finantza-kudeaketari buruzko informazio argia eskaintzea.

Batzorde honetan, 2025eko aurrekontuaren kudeaketa egingo da, eta 2025eko aurrekontuaren diseinua eta negoziazioa abiatuko da. Horretarako, Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, administrazioarekin hitzarmenak negoziatuko dira, eta aurrekontuaren aurreikuspen bat osatuko da. Era berean, 2018an hasitako auditoretzari jarraipena emango zaio, eta informazio guztia prestatuko da Batzar Orokorrean aurkezteko.

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren egonkortasun ekonomikoa bermatzea, aurrekontuaren kontrol eta kudeaketa eraginkorraren bidez.
- Finantza-kudeaketa garden eta arduratsua sustatzea, erakundearen baliabideen erabilera optimizatuz.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatzea, EGKren finantza-autonomia indartzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2025eko aurrekontua prestatzea eta onartzea, gastu-beharrak eta diru-sarrera posibleak aintzat hartuta.
- Diru-laguntzen eta finantzaketa-iturri berrien bilaketa sustatzea, EGKren egonkortasun ekonomikoa sendotzeko.
- Kontu-emate eta gastu-kontrol prozesuak hobetzea, erakundearen ekonomia arduratsu eta gardena izan dadin.

Ebaluazioa

2025ean zehar, lehen hilabeteetan hasitako lan-ildoak modu egonkorrean garatu dira Batzorde Ekonomikoaren baitan. Diruzaintza karguan sartu den pertsona berriak egokitzapen-prozesu egokia izan du, eta urtearen poderioz lan-erritmoa eta kudeaketa-prozesuak guztiz barneratu ditu. Horri esker, eguneroko funtzionamendua normaltasunez eta eraginkortasunez garatu da, arlo ekonomikoaren jarduna egonkortuz.

Bestalde, 2025eko ekitaldiko gastuen justifikazio-lanek urtean zehar jarraipena izan dute, beharrezko dokumentazioa bildu eta eguneratuta mantenduz. Prozesu horrek EGKren gardentasuna eta kontrol ekonomikoa sendotu ditu, kudeaketa arduratsuen aldeko apustu argia erakutsiz.

Aurrekontuen kudeaketa izan da 2025eko ardatz nagusietako bat. Urte osoan zehar 2025eko aurrekontuaren exekuzio egokia bermatu da, proiektuen garapena eta gastuen kudeaketa arduratsua uztartuz. Aldi berean, 2026ko aurrekontuaren diseinua landu da, eta administrazioekin negoziazio-prozesuak aktibatu dira, EGKren egonkortasun ekonomikoa eta autonomia instituzionala indartzeko helburuarekin.

Lan horiek guztiak Batzorde Iraunkorarekin etengabeko koordinazioan eta administrazioekin elkarriketa estuan gauzatu dira, plangintza partekatua eta informazioaren gardentasuna bermatuz. Halaber, 2018an hasitako auditoretzaren jarraipena egiten jarraitu da, eta Batzar Orokorrean aurkeztuko den dokumentazio ekonomikoa prestatzen ari da, kontu-ematea eta gardentasuna lehentasun nagusi gisa kokatuz.

Azkenik, 2026ko Batzar Nagusian dagokion informazioa onartzeko kanpo-auditoretzaren lanarekin hasi dela azpimarratu behar da. Urrats horrek are gehiago indartzen ditu EGKren kontrol ekonomikoa, sinesgarritasuna eta kudeaketa onaren kultura.

9.1.4 Policy Program

Policy Program EGKren lan politikoaren filosofia eta ildo estrategikoak jasotzen dituen dokumentu nagusia da. Dokumentu honek erakundeak gazteriaren eskubideak defendatzeko duen ikuspegia argitzen du, eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko oinarriak ezartzen ditu.

EGKk urteetan zehar hainbat posizionamendu politiko garatu ditu, baina dokumentu hauek maiz sakabanatuta egon dira, eta ez dute beti koherentzia orokor bat izan. Policy Program-en helburua, hain zuzen, EGKren jarrera politikoa bateratzea eta sendotzea da, gazteen eskubideen aldeko lan guztia marko argi batean kokatzeko.

Dokumentu honek hurrengo urteetan EGKk izango duen norabidea zehaztuko du, eta erakundearen eguneroko eragin politikorako lanaren oinarri izango da. Horregatik, presidentziak ardura zuzena izango du programaren diseinua eta garapena bideratzeko, eta prozesua modu

parte-hartzailean gauzatzea bermatuko du. Horretarako, EGKren entitateei eta gazteei ahotsa emango zaie, beraien ekarpenak jasoz.

Policy Program-en bidez, honako hauek lortu nahi dira:

- **EGKren posizio politikoak zehaztu eta indartu:** Erakundeak defendatzen dituen printzipioak argi eta finko izatea, gazteriaren aldeko lana sendoa eta bateratua izan dadin.
- **Gazteriaren eskubideak eta etorkizuneko belaunaldien babesa ardatz izango duen programa bat garatzea:** EGKk duen misioa eta ikuspegia jaso, eta politika publikoetan duen papera sendotzea.
- **Eragin politikorako estrategia bateratu bat finkatzea:** Dokumentu hau izango da EGKk erakunde eta instituzioen aurrean izango duen diskurtsoaren oinarri nagusia, koherentzia handiagoz jardun ahal izateko.

Dokumentua **2025ean amaitzea eta aurkeztea aurreikusten da**, baina ez da dokumentu itxi bat izango. Aldiz, eguneratzen joango den dokumentu bizi bat izango da, testuinguru sozial eta politikoaren arabera moldatuko dena eta gazteen aldarrikapen berriak txertatzeko aukera emango duena.

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren **posizio politiko guztiak dokumentu bakar batean bildu eta sendotzea.**
- Gazteriaren eskubideak eta **etorkizuneko belaunaldien babesa ardatz izango duen programa bat garatzea.**
- EGKren eragin politikoa koherentea eta eraginkorra izatea, erakundearen *diskurtso bateratua eraikiz*.

HELBURU ZEHATZAK:

- **2025ean Policy Program dokumentua osatzea eta aurkeztea**, prozesu parte-hartzaile baten bidez.
- Dokumentua **etengabe eguneratzeko mekanismoak ezartzea**, egungo testuinguru politiko eta sozialera egokitzeko.
- **EGKren entitateen eta gazteen ekarpenak txertatzeko espazioak sortzea**, eztabaida eta proposamenen bidez.

Policy Program-ekin, EGKren lan politikoaren ildo nagusiak finkatu eta gazteriaren eskubideen defentsarako estrategia bateratu bat sortuko dugu, erakundearen eragina sendotuz.

Ebaluazioa

Policy Program-a EGKren lan politikoaren oinarri nagusia izango da datozen urteetarako, eta, ildo horretan, 2025ean zehar prozesuaren kalitatea lehentasun estrategikotzat hartu da. Dokumentuaren lanketa aurreikusitakoa baino erritmo motelagoan garatu bada ere, hori egungo testuinguru sozial eta politikoak eskatzen duen posizionamendu politikoen eguneratze sakonaren ondorio zuzena izan da, eta ez prozesuaren ahultasunaren seinale.

Urte osoan zehar, arlo guztietako diskurtso politikoak berrikusten eta eguneratzen aritu gara, gaur egungo erronka sozial, politiko eta instituzionaletara egokituz. Prozesu honek hausnarketa estrategiko sakona eta edukien berregituraketa ekarri ditu, bai eta EGK osatzen duten entitateekin adostasunak eta kontsentsuak eraikitzeke lan garrantzitsua ere. Ildo horretan, Policy Program-aren lanketa prozesu parte-hartzaile eta kolektibo gisa ulertu da, edukia ez ezik, EGKren posizionamendu politikoa bera sendotzeko baliagarria izan dena.

Horrez gain, antolaketa- eta lan-dinamikarako mekanismo berriak ezarri dira, prozesuaren eraginkortasuna eta parte-hartzea bermatzeko helburuarekin. Mekanismo horiek 2025eko bigarren seihilekoan modu operatiboagoan aktibatu dira, entitateekin kontraste-saioak eginez eta proposamenak egituratuz, gazteen eskubideen defentsarako marko sendo, eguneratu eta bateratu bat eraikitzeke asmoz.

Azpimarratzekoa da Policy Program-a ez dela indarrean jarriko 2026ko Batzar Orokorrean onartu arte. Beraz, 2025ean egindako lanketa guztia prestaketa-, kontraste- eta adostasun-fasean kokatzen da, dokumentuaren legitimazioa eta sendotasuna bermatzeko ezinbesteko urrats gisa. Batzar Orokorreko onarpenak emango dio Policy Program-ari balio politiko osoa, eta une horretatik aurrera bihurtuko da EGKren jardun politikoa gidatuko duen erreferentziazko markoa.

Ondorioz, urte osoko balorazioa positiboa da: 2025a oinarriak finkatzeko eta adostasun zabalak eraikitzeke urtea izan da, 2026an Policy Program sendo, partekatua eta egungo erronkei erantzuteke gai dena onartu eta martxan jartzeko helburu argiarekin.

9.1.5 Barne Antolaketa Mekanismoak

2025ean, EGKren barne-antolaketa hobetzeko mekanismo berri bat ezarriko da, erakundearen eguneroko funtzionamendua optimizatzeko eta koordinazioa eraginkorragoa izateko. Urte hauetan egindako diagnostikoaren ondorioz, eguneroko antolakuntzan egitura argiago bat behar dela identifikatu da, batez ere arlo tekniko, estrategiko eta politikoen arteko lotura indartzeko.

Horretarako, Parte-hartzea, Idazkaritzak eta Presidentzia Koordinazioa batzordea antolatuko da, EGKren barne-funtzionamendua egonkortu eta hobetzeko espazio bezala. Batzorde hau erabakiak modu koordinatuan hartzeko, informazio-fluxua hobetzeko eta egunero sortzen diren erronkei aurre egiteko mekanismo bat izango da.

Funtzio nagusiak hauek dira:

- Barne-komunikazioa hobetzea: Talde teknikoaren, Batzorde Iraunkorraren eta Presidentziaren arteko informazio-fluxua arintzea eta dokumentuen trukea egituratzea.
- Koordinazio-espazio finkoak ezartzea: Astean behin edo bi astean behin bilera espezifikoak egitea, eguneroko funtzionamendua eta lehentasunak adosteko.
- Erabakiak hartzeko prozesuak erraztea: Erabaki estrategikoak eta operatiboak modu efiziente eta parte-hartzailean hartzeko metodologia garatzea.
- Antolaketa-plan bat ezartzea: Urteko egutegia, barneko protokoloak eta erantzukizun-banaketa garatzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren eguneroko funtzionamendua argiagoa eta eraginkorragoa izatea, koordinazio mekanismo sendo baten bidez.
- Barne-egitura sendotzea, talde teknikoaren eta zuzendaritzaren arteko lan-dinamika hobetuz.
- Erabakiak hartzeko eta informazioa partekatzeko prozesuak hobetzea, gardentasuna eta parte-hartzea indartzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Parte-hartzea, Idazkaritzak eta Presidentzia Koordinazioa batzordea eratzeko prozesua gauzatzea eta bere dinamika finkatzea.
- Koordinazio-bilera erregularrak antolatzea, gutxienez astean behin edo bi astean behin.
- Barne-komunikaziorako tresna berriak ezartzea, dokumentuen kudeaketa eta informazioaren partekatzea errazteko.
- Barne-protokoloak eta antolakuntza-plana eguneratzea, 2025eko erronkei egokituta.

Ebaluazioa

2025ean abiatutako barne-koordinaziorako egitura berriek emaitza oso positiboak izan dituzte urte osoan zehar. Bereziki, Parte-hartzea, Idazkaritza eta Presidentzia Koordinazioa batzordearen sorrera funtsezkoa izan da EGKren eguneroko lanaren antolaketa eta koordinazioa hobetzeko, barne-funtzionamenduan jauzi kualitatiboa ekarriz.

Urtean zehar, barne-koordinazioa nabarmen sendotu da, eta lan-dinamikak gero eta argiagoak, partekatuagoak eta eraginkorragoak bihurtu dira. Koordinazio-batzorde berriak lanaren antolaketa ordenatuagoa ahalbidetu du, ardurak eta jarraipenak hobeto definituz, eta eguneroko erronkei modu egituratu eta azkarrean erantzuteko tresna eraginkor gisa finkatu da.

Hilero egiten diren koordinazio-bilerak eta astero finkatutako lan-bilerak funtsezkoak izan dira etengabeko jarraipena bermatzeko, erabakiak hartzeko prozesuak bizkortzeko eta informazioaren zirkulazioa argitzeko. Dinamika horri esker, koordinazio-maila handiagoa lortu da Batzorde Iraunkorraren eta arloen artean, eta lan-ildoen arteko koherentzia indartu da.

Horrez gain, hitzarmen eta erronka estrategiko nagusien inguruko egutegi partekatu bat ezarri da, plangintza hobetuz eta epeen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetuz. Kasu askotan, aurreikusitako epeak baino azkarrago ari gara lanean, aurreko urteekin alderatuta lan-erritmo sendoagoa eta egonkorragoa lortuz.

Laburbilduz, 2025ean ezarritako barne-koordinaziorako egitura berriek lanaren eguneroko antolaketan kalitate-salto nabarmena ekarri dute. Barne-komunikazioa, gardentasuna eta erabakiak hartzeko prozesuak indartu dira, eta egitura horiek EGKren funtzionamendu eraginkorra eta jasangarria bermatzeko oinarri sendo gisa finkatu dira etorkizunera begira.

9.2 Harreman Instituzionalak

EGKren jardueraren ardatz nagusietako bat da erakundeekin harremanak izatea, gazteriaren eskubideak eta beharrak defendatzeko. Erakundeen aurrean gazteen ahotsa izateko eta eragina izateko lan egiten dugu, erakunde publikoekin, alderdi politikoekin eta gizarte-eragileekin elkarlanean. 2025ean, harreman estrategiko eta egonkor bat bermatu nahi dugu, erakunde bakoitzarekin helburu argiak zehaztuz eta EGKren posizio politikoa indartuz.

Horretarako, hainbat eragileekin harremanak kudeatuko dira, haien artean finantzaketa-iturria diren erakundeak, erakunde publikoak, alderdi politikoak eta gizarte-eragileak. Harreman horiek modu planifikatuan egingo dira, aliantzak sendotzeko eta eragina areagotzeko estrategia baten barruan.

Garapena

Finantzaketa erakunde publikoak:

EGKren jarduera finantzatzeko hainbat erakunderekin lan egiten da, horien artean Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, udal handiak eta bestelako finantzaketa-iturria eskaintzen duten erakunde publiko eta pribatuak. Helburua da EGKren iraunkortasun ekonomikoa bermatzea eta finantzaketa-esparru egonkor bat ezartzea.

Finantzaketa erakundeekin harremanak mantentzeko honako lanak egingo dira:

- Diru-laguntzen jarraipena eta justifikazioa egitea.
- Hitzarmen eta akordio ekonomikoak negoziatzea eta kudeatzea.
- Finantzaketa-iturri berriak bilatzea, EGKren autonomia ekonomikoa handitzeko.
- Aurrekontuaren eta finantzaketaren jarraipen hurbila egitea, Batzorde Ekonomikoarekin koordinatuta.

Helburuak

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren **finantza-egonkortasuna bermatzea**, erakunde finantzatzaileekin harreman aktiboa izanik.

- Diru-laguntzak eta hitzarmenak **negoziatzea eta berritzea**, finantzaketa-iturri berriak bilatuz.
- Baliabide ekonomikoen erabilera efizientea ziurtatzea, erakunde finantzatzaileei **kontuak emateko mekanismoak hobetuz**.

Erakunde publikoak

EGKk harreman zuzena du erakunde publikoekin, gazteriaren eskubideak defendatzeko eta politika publikoetan eragina izateko. Erakunde publiko nagusien artean honako hauek daude:

- Eusko Jaurlaritza (Gazteria, Enplegua, Hezkuntza, Etxebizitza, Berdintasuna, etab...)
 - Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak partekatzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantzaketa-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik dator.
- Legebiltzarra
 - Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGK-k agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean Gazteria Batzordearekin bilduaz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordura arte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Horrez gain, EGK-k zenbait proiektu eta horien ondorioak plazaratzeko agerraldi eskaerak egin ohi ditu.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen gainean erantzuna emateko, bertaratu eta hala egingo da. 2014ean Gazteen Lantaldea abian jarri zenez, parte-hartze aktibo bat izateko ahalegina egin da, baina taldearen aurrera pausoen arabera izango da.

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren gaineko kezka nagusiei buruz hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuetarako.

Agerraldiez haratago aurtengo helburua izango da gazteek eta entitateek Legebiltzarra ezagutzeko ekintzak burutzea.

- **Foru Aldundiak (gazteria-politikekin lotutako departamentuak)**

- Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere gazteen egoera, behar eta interesen inguruan lan egiten da. Horretarako, 2025an lurralde historiko bakoitzeko foru administrazioarekin harremana mantentzeko ahalegina egingo da.

- **Batzar Nagusiak**

- Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Lurralde Historiko bakoitzeko gazteria politiken inguruko hausnarketa eta gazteen egoeraren inguruko datu eta informazioa Batzar Nagusietan plazaratzeko ahalegina egiten da agerraldien bitartez.

Horretaz gain, hitzarmena sinatu aurretik, aurrekontu garaian, EGK-k bere jardunaren berri ematen saiatzen da alderdi ezberdinekin bilduz.

- **Udalak (gazteria-zerbitzuak eta politika lokalak)**

- Bere izaera juridikoa eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak instituzioekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Oro har, EGKren ekarpena gazteria politikei egiten zaie Gazte Planen edo bestelako proiektuen bitartez. Horietarako, eratuta dauden estrukturetan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela ere, harremana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea... presidentziaren bitartez burutzen da.

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren eta erakunde publikoen arteko elkarlana sendotzea, gazte-politikak indartzeko.
- Gazteen beharrak eta eskaerak erakunde publikoen politika eta estrategietan txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Eusko Jaurlaritzarekin gazte-politiken inguruko bilerak mantentzea eta akordioak lortzea.
- Foru Aldundiekin eta udalekin gazteentzako politikak koordinatzea.
- EGKren parte-hartzea bermatzea Euskal Autonomia Erkidegoko politika publikoetan.

Alderdi politikoak

Alderdi politikoek gazteriaren etorkizunean duten eragina kontuan hartuta, haiekin harreman egonkor eta ordenatu bat izatea beharrezkoa da. EGKk alderdiekin harreman zuzenak mantenduko ditu, haien politika-proposamenetan gazteek dituzten interesak eta eskubideak txertatu ahal izateko.

Lana honako ardatzetan oinarrituko da:

- Alderdi politiko guztiekin bilerak egitea, gazte-politikak nola lantzen dituzten jakiteko.
- Gazteen eskaera nagusiak alderdien lan-agendetan sartzea.
- Hauteskunde-garaian gazte-politikak mahai gainean jartzea, proposamenak kontrastatzeko.
- EGKren ikuspegia eta proposamenak alderdiei helaraztea, gazteak erdigunean jartzeko.

HELBURU OROKORRAK:

- Alderdi politiko guztiekin harreman egonkor bat bermatzea.
- Gazte-politikak alderdien agenda politikoetan txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Alderdi politikoekin bilera erregularrak egitea (gutxienez urtean behin alderdi bakoitzarekin).
- 2025eko hauteskunde-prozesuetan gazteen eskubideak agenda politikoetan txertatzeko ekimenak egitea.

- EGKren proposamenak alderdien lan-agendetan sartzea.

Entitateak eta agente Sozialak

EGK gazte-erakunde eta gizarte-eragile ezberdinekin harremanetan dago, gazteen eskubideak defendatzeko eta gizarte-eraldaketan laguntzeko. Harreman hauek elkarlanerako eta sare-lanerako bidea eskaintzen dute, gazteen ahalduntzea sustatzeko eta aldarrikapen kolektiboak lantzeko.

Urtean zehar Gazteria politiketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragile eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraitua edukitzen da

Presidentziatik, hala nola: Espainiako Gazte Kontseilua, Kataluniako Gazteriaren Kontseilu Nazionala, Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Eskola Kontseilua, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua...

Horiez gain, EGK-k hainbat elkarterekin (EGKren barruko eta kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, EHU/UPV, Deustuko Unibertsitatea, Kooperatiben Kontseilua, Bai Euskarari...

Entitate eta gizarte-eragileekin harremanak honako lan-lerroetan oinarrituko dira:

- Gazte-erakundeekin lankidetza sendotzea, EGKren parte-hartzea indartuz.
- Mugimendu sozial eta sindikatuarekin harremanak lantzea, gazteriaren interesak babesteko.
- Gizarte-eragileekin elkarlana sustatzea, gazte-politikak hobeto garatzeko.
- Aliantzak eraikitzea eta ekintza bateratuak egitea.

HELBURU OROKORRAK:

- Gazte-erakunde eta gizarte-eragileen arteko lankidetza sustatzea.
- Gazteen eskubideak eta interesak maila sozialean indartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte-erakundeekin elkarlanerako espazioak indartzea (sare-lan iraunkorra sortzea).

- Mugimendu sozial eta sindikatuarekin harremanak lantzea, gazteen eskubideen aldeko borrokan parte hartzeko.
- Aliantza estrategiko berriak ezartzea, gazte-politiken eragina zabaltzeko.
- Sare-lana sustatzea, gazteriaren egoeraren inguruko **diagnosi partekatuak** egiteko.
- Beste sektore batzuetako entitateekin lankidetzak sustatzea (**hezkuntza, enpresa-mundua, gizarte-ekintza, kultura...**) gazteentzako aukera berriak sortzeko.

Ebaluazioa

EGKren lanaren ardatz nagusietako bat erakundeekin harremanak sendotzea izan da 2025ean, gazteriaren eskubideak defendatzeko eta gazteen ikuspegia politika publikoetan txertatzeko helburuarekin. Urte hau, gainera, bereziki erronka handikoa izan da, instituzio ezberdinetan aldaketa esanguratsuak gertatu direlako (zuzendaritza-aldaketak, sailen berrantolaketak eta lehentasunen egokitzapenak), eta horrek harremanak berreraikitze eta egokitzeko ahalegin berezia eskatu du.

Testuinguru horretan, 2025ean zehar harreman instituzionalen arloan emandako aurrerapausoak oso positiboki baloratzen ditugu. Aldaketek ziurgabetasuna sor zezaketen arren, EGKk egokitze gaitasuna eta posizionamendu politiko sendoa erakutsi ditu, eta harreman estrategiko eta egonkorrak sendotzen ari gara erakunde ugariarekin.

Eusko Jaurlaritzarekin, eta bereziki hainbat sail zehatzekin, izandako harremana oso positiboa izan da. Nabarmendu behar da Etxebizitza Sailarekin garatzen ari den lankidetzak estua: topaketak erregularrak bihurtu dira, elkarriketa egituratua finkatu da, eta EGKren ekarpenek gero eta eragin handiagoa dute gazteen emantzipazioari lotutako politiketan.

Era berean, Lehendakariarekin izandako harremanak bilakaera oso esanguratsua izan du, bereziki Komunikazioaren arloan. Gazteen ahotsa komunikabideetan eta diskurtso instituzionaletan presente egotea lortu dugu, eta elkar ulertzeko eta elkarlanean aritzeko bideak sendotu dira.

Gazteria Zuzendaritzan izandako aldaketek ere eragin positiboa izan dute: zuzendaritza berriarekin harreman sendoa, irekia eta erregularra ezarri da, eta EGKren iritziak eta proposamenak kontuan hartzen direla nabarmen da. Elkarlan horrek gazte-politikak hobetzeko helburu partekatua indartu du.

Testuinguru horretan, Kriztalezkoak bezalako proiektu estrategikoek berebiziko garrantzia izan dute. Proiektu honek EGKri ikusgarritasun handiagoa eta ekintza-gaitasun handiagoa eman dio instituzioen barruan, eta gure posizionamendu politikoa indartu du solaskide legitimo eta erreferentzial gisa. Horrelako ekimenek erakutsi dute EGKk ez duela soilik diskurtsoa, baizik eta proposamen zehatzak eta eragin errealerako gaitasuna ere baduela.

Horrez gain, gizarte-eragileekin eta gazteentzako lanean ari diren entitateekin dugun harremana ere nabarmen zabaltu eta sakondu da. Aliantza berriak sortu dira, lankidetzak-esparru berriak ireki dira, eta horrek EGKren eragina eta ikusgarritasuna handitu ditu, bai instituzioetan bai gizarte-esparruan.

Laburbilduz, 2025eko balorazioa oso positiboa da harreman instituzionalen arloan, bereziki kontuan hartuta urteak ekarri dituen aldaketa eta erronkak. 2026ari begira, EGKren asmoa argia da: aliantza estrategikoak indartzen jarraitzea, eragin politikoa sakontzea bai alderdi politikoekin, bai instituzioekin, bai bestelako agentzia eta entitateekin, gazteen eskubideak eta interesak agenda politikoaren erdigunean kokatzen jarraitzeko.

9.3 Eragin Politikoa

Eragin politikorako estrategia EGKren lanaren ardatz nagusietako bat da, eta azken urteotan gazteriaren eskubideen defentsa eraginkorragoa izan dadin, strategiaren beharrezkotasuna nabarmendu dugu. **Presidentziak** ardura izango du estrategia hau egituratu eta garatzeko, EGKren posizionamendu politikoa argia, koherentea eta eraginkorra izan dadin.

Azken urteotan ikusi dugu EGKk egiten duen eragin politikoa askotan egoeren eta premien araberakoa izan dela, baina ez duela beti ikuspegi estrategiko oso bat izan. Hau da, erantzun azkarrak eman ditugu hainbat gairen aurrean, baina askotan ez da estrategia bat egon atzean, eta horrek ahuldu egin dezake gure mezua edo eragin instituzionala. Gainera, politika publikoen eraginkortasuna hobetzeko, beharrezkoa da EGKren posizioak eta aldarrikapenak modu ordenatuan eta jarraituan lantzea.

Horregatik, **beharrezkoa ikusten dugu eragin politikorako estrategia bat eraikitzea, helburu argiak definituko dituenak, diskurtso bateratua sortuko duena eta eragin hori modu koordinatuan bideratuko duena.** Estrategia hau ez da soilik egoera puntualei erantzuteko tresna izango, baizik

eta EGKren lan politikoa gidatuko duen marko bat izango da, gazteriaren eskubideen aldeko aldarrikapenak modu iraunkorrean defendatzeko.

Estrategia honen bidez, **presidentziak** ziurtatuko du erakundearen posizionamenduak eta aldarrikapenak ez direla isolatuak izango, baizik eta ikuspegi estrategiko orokor batean kokatuko direla, instituzioen aurrean koherentziaz eta etengabeko jarraipenarekin defendatzeko. Horretarako, ezinbestekoa izango da honako hauek lantzea:

1. **EGKren posizionamendu politikoen egituraketa eta koherentzia:** EGKk duen diskurtsoa argi eta bateratua izatea, gazteriaren interesak modu sendoan defendatzeko.
2. **Eragin politikorako tresnak garatzea:** Adibidez, txostenak, proposamenak eta bestelako materialak prestatzea, erakundearen eta gizartearen aurrean gure aldarrikapenak indartzeko.
3. **Harreman instituzionalen sendotzea:** EGKren harremanetan sakontzea Eusko Jaurlaritzarekin, Legebiltzarrarekin, foru-aldundiekin, udalekin, entitate eta agenteekin gazteen politikak modu koordinatuan lantzeko.
4. **Jarraipena eta ebaluazioa:** Eragin politikorako ekintzen emaitzak neurtzea eta estrategia etengabe egokitzea, eraginkortasuna bermatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren eragin politikoa modu ordenatu eta planifikatuan garatzea.
- Gazteen ahotsa instituzioetan eta gizartearen entzunaraztea, eragiteko gaitasuna handituz.
- Gazteriaren eskubideak eta interesak modu bateratuan defendatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2025eko eragin politikorako estrategia diseinatzea eta ezartzea.
- Erakunde publikoekin eta gizarte-eragileekin harreman estrategikoak indartzea.
- Eragin politikorako tresna eraginkorrak garatzea, hala nola dokumentuak, kanpainak eta posizionamendu publikoak.
- Aldarrikapen politikoen jarraipena egiteko mekanismoak sortzea.

Garapena

2025ean, EGK-k hainbat erronka nagusi identifikatu ditu eragin politikoa handitzeko:

1. **Gazte-politikak erdigunean jartzea**
 - Gazteen bizi-baldintzak hobetzeko, politika publikoetan eragina izatea.
 - Emantzipazioa, lana, etxebizitza, hezkuntza eta berdintasuna bezalako gaiak lehenestea.
2. **Gazteen parte-hartzea handitzea**
 - Gazteen ahotsa jasotzeko mekanismoak sortzea eta parte-hartze prozesuak bultzatzea.
 - Gazteak aktiboki inplikatzeko espazio gehiago sortzea.
3. **Erakunde publikoekin harremanak sendotzea**
 - Eusko Jaurlaritzarekin, foru aldundiekin eta udalekin bilerak egituratzea.
 - Politikak gazteekin batera diseinatzeko espazioak bultzatzea.
4. **Aldarrikapenak eta proposamenak lantzea**
 - Gazteen beharrak identifikatu eta horien gaineko proposamen politikoak egitea.
 - Hitzarmen eta proposamen konkrituak negoziatzea erakundeekin.
5. **Gazteen eskubideen defentsa**
 - Gazteen eskubideak urratzen diren kasuetan erantzun publikoa ematea.
 - Eztabaida publikoetan EGKren ahotsa presente egotea.

Ebaluazioa

Eragin politikoa EGKren lanaren ardatz nagusietako bat izan da 2025ean, eta urte osoan zehar estrategia sendo eta egituratu bat garatzeko lana egin da, EGKren posizionamendu politikoa koherenteagoa, ikusgarriagoa eta eraginkorragoa izan dadin. Urtearen lehen seihilekoan strategiaren diseinuaren azken fasean egon gara, eta bigarren seihilekoan dokumentu estrategikoa amaitu eta kontrastatzeko urratsak eman dira, helburu argiak, metodologia eta lehentasunezko eremuak jasoz.

Estrategia honen garapena ikuspegi integral baten baitan egin da, eta horren adibide esanguratsua izan da Batzorde Sozioekonomikoaren sorrera. Batzorde hau eragin politikorako espazio iraunkor eta kolektibo gisa finkatu da, EGKren jarrera sozial eta ekonomikoak lantzeko, diskurtso partekatu bat eraikitzeko eta posizionamendu politikoak modu koordinatuan garatzeko.

Bestalde, urtean zehar martxan jarritako hainbat kanpainak balorazio oso positiboa merezi dute. Bereziki, irailean abiatutako **ongizate emozionalaren inguruko kontzientziazio-kanpaina** estrategiaren barruko lehen ekimen handietako bat izan da. Kanpaina honek gazteen osasun mentala eta ongizatea erdigunean jarri ditu, eta eragin sozial eta instituzional nabarmena izan du, gaiaren garrantziagatik eta aktibatutako lankidetzaren zabalagatik.

Oro har, 2025ean egindako kanpaina eta ekimenek EGKren ikusgarritasuna handitu dute, diskurtso politikoa gizarteratzeko eta instituzioetan kokatzeko gaitasuna indartuz. Hala ere, balorazio positiboa egin arren, argi dago eragin politikoa etengabe landu beharreko eremua dela, eta estrategiaren garapenean sakontzen jarraitu behar dugula, jarraipena, ebaluazioa eta egokitzapena bermatzeko.

Laburbilduz, 2025eko balorazioa oso positiboa da eragin politikoaren arloan: oinarriak sendo jarri dira, kanpaina eraginkorrak abiarazi dira eta lan egiteko egitura kolektiboak indartu dira. Aldi berean, 2026ari begira erronka nagusia izango da estrategia hau sendotzen jarraitzea, EGKren posizio politikoak are gehiago indartzeko eta gazteen eskubideen defentsan eragin handiagoa lortzeko.

9.4 EGKren 40. Urteurrena

2025ean Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) **bere 40. urteurrena ospatuko du**, eta horretarako, urteurrenaren antolaketa eta ospakizunak diseinatzen eta prestatzen hasiko gara. **Prozesua zuzenean lideratuko da presidentziazatik**, eta koordinazio estua izango du batzorde ekonomikoarekin, erakunde harremanen taldearekin eta komunikazio arloarekin.

40. urteurrenaren ospakizuna **aukera estrategikoa da EGKren eragina eta papera sendotzeko**, bai gazteriaren artean, bai gizartean eta erakundeetan. Horregatik, **ekitaldiak eta ekimenak arlo ezberdinetako eragileekin koordinatuko dira**, gazteriaren parte-hartzea sustatuz eta EGKren ibilbidea eta lorpenak aldarrikatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren ibilbidea eta gazteriaren aldeko eragina aldarrikatzea.
- Euskadiko gizarte-eraldaketan gazteriaren papera nabarmentzea.

- Gazte parte-hartzearen etorkizunaz hausnarketa egiteko espazioak sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 40 urteko lanaren errekonozimendua egitea eta bere ekarpena azpimarratzea.
- Gazteen parte-hartzea gizarte- eta politika-eremuan bultzatu duen motorra erakustea.
- Gazte-politiken bilakaerari buruzko gogoeta kolektiboa sustatzea.

Garapena

40. urteurrena **proiektu estrategiko bat izango da, eta bere antolaketa eta diseinua zuzenean presidentziaz lideratuko da.** Honako mekanismoak ezarriko dira:

- **EGKren barruan lan-talde espezifiko bat sortzea:**
 - Talde honek ospakizunen diseinua eta garapena koordinatuko du.
- **Finantzaketa eta babes instituzionalen bilaketa:**
 - Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak inplikatzeko.
 - Babesle potentzialak identifikatzeko eta hitzarmenak lantzeko.
- **Gazte-entitateekin eta komunikabideekin aliantzak indartzea:**
 - Gazteen parte-hartzea sustatzeko lankidetzako espazioak sortzea.
 - Komunikabideen bidez ekitaldiaren hedapena bermatzea.

Ebaluazioa

2026an, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) bere 40. urteurrena ospatuko du, eta urte hau baliatu dugu prozesua aurretik prestatzen, 2026ko ospakizunari begira ahalik eta gehien aurreratuz. Une historiko honen kudeaketa presidentziaz zuzenean lideratzen ari da, eta koordinazio estua dago Batzorde Ekonomikoarekin, erakunde-harremanen taldearekin eta komunikazio arloarekin, lanean modu integralean eta estrategikoan aurrera egiteko.

Balorazioa oso positiboa da: barne-prozesu parte-hartzaile bat jarri dugu martxan, EGKren baitako entitateek urteurrenaren diseinuan eta edukiaren eraikuntzan parte har dezaten. Prozesu horrek aukera ematen du ospakizunak ahalik eta esanguratsu eta kolektiboenak izan daitezen, EGKren nortasuna eta pluralitatea islatuz.

Horrez gain, finantzaketa bilatzeko eta negoziatzeko lan aktiboa egin dugu, hainbat erakunderekin elkarriketak ireki eta lankidetzak aukera berriak aztertuz, urteurrena ez dadin soilik oroimen-ariketa bat, baizik eta gazte-politiken inguruko gogoeta estrategikorako espazio bat izan dadin.

Urte honetako lanak 2026ko jardueren diseinuan ere eragin nabarmena izan du. Prozesuaren helburua ez da ospakizun puntual bat soilik, baizik eta urte osoko programa oso bat garatzea, gazteriaren parte-hartzea eta EGKren misioaren zabalkundea erdigunean jarritz. Aurre-lan hauek aukera eman digute jardura guztiak modu egituratu eta koherentean planifikatzeko, eta 2026eko ospakizuna ahalik eta eraginkorrena eta esanguratsuenak izatea bermatzeko.

Laburbilduz, 2025eko balorazioa oso positiboa da: urte osoan zehar lanean aritu gara 2026ko urteurrena aurretik prestatzen, prozesu parte-hartzaile, estrategiko eta koordinatu baten bidez. Honek EGKren papera sendotzeko, egindako lana aitortzeko eta datozen hamarkadak irudikatzeko oinarri sendoa ezarri du.

9.5 2030 Agenda

9.5.1 Gazteak etorkizunaren Ardatz (GEA)

Gizartearen eta jasangarritasunaren aldaketan momentu garrantzitsuan, Nazio Batuen Agenda 2030a da politikaren oinarria, etorkizun justuago, berdino eta ingurumenarekiko errespetuzko bat lortzeko helburuekin. Bilboko Local2030 bulegoa berriki irekita eta Etorkizunaren Paktua Onartzearen onarpenak indartzen dute tokiko gobernuen konpromisoa 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) aplikazioan, bereziki belaunaldi berrien parte-hartzea bultzatuz. Testuinguru honetan, "Etorkizuneko Belaunaldiak" izango dira aldaketa beharrezkoak bizkortzeko potentziala dutenak, beren energia eta berrikuntza ahalmena erabiliz.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, UNetxea-rekin eta Bilboko Local2030 bulegoa eta Gazteria Sailarekin elkarlanean, espazio berezi bat sortzea proposatzen du, gazteek ez bakarrik eztabaidan parte hartzeko, baizik eta 2030 Agendaren inguruko praktika berritzaileak gidatzeko Espazio honek gazteen papera indartuko du aldaketa agentetzat eta Euskadin GIH-en konpromisoari buruzko ezagutza zabaltzeko aukera emango du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazte adituen espazio bat garatzea, 2030 Agendaren inguruko praktika onak sustatzeko eta gazteen lidergoa lokal-mailan GIH-en aplikazioan nabarmentzeko, UNetxea, Bilboko Local2030 bulegoa eta Gazteria Sailarekin elkarlanean.
- Institutioek etorkizuneko belaunaldien politika jasotzea eta aintzat hartzea, haien beharrei eta eskubideei erantzuteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen lidergoa sustatzea: 2030 Agendarekin lotutako ekintzak diseinatu eta gauzatzen dituzten gazte adituen talde bat sortzea, politiketan eragin zuzena izango duten ekintza praktikoak abian jartzea.
- Erakunde arteko lankidetzak sustatzea: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, UNetxeak, Bilboko Local2030 bulegoak eta Gazteria Sailak elkarlanean, gazteen parte-hartzea sustatzeko eta GIH-en aplikazioari buruzko ekintza zehatzak bultzatzea.
- Praktika onen truke espazioa sortzea: GIH-en inguruan gazteek garatutako esperientzia eta proiektu arrakastatsuak partekatzeko ekitaldiak, tailerrak eta bilera desberdinak antolatzea.
- Gazteen papera ikusgai egitea GIH-en inguruan: Gazteen proiektuak eta horien eragina GIH-en inguruko publikoen eta erakundeen artean zabaltzea, gazteen parte-hartzea politiketan integratuz.
- Institutioen kontzientziazioa: Erakundeei etorkizuneko belaunaldiak aintzat hartzeko beharra transmititzea, politika publikoetan gazteen beharrak eta eskubideak jasotzeko.

Garapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren hasierako proiektuak, UNetxearekin eta Bilboko Local2030 komisionatuarekin lankidetzan, gazteen partaidetzarako eta lidergorako gune bat sortzea planteatzen zuen, 2030 Agendaren inguruan jardunbide egokiak sustatzeko eta tokiko erakundeen inplikazioa indartzeko GJHak lortzeko, bereziki gazteen protagonismoaren bidez.

Hala ere, Lehendakaritzan egin berri diren barne-aldaketen eta koordinazio-bilera batzuen ondoren, egiaztatu da proiektua ezartzeko erritmoa ez dela espero zena izan. Egoera hori

erakundeen lehentasunak berrantolatze eta doitzeko testuinguru batean kokatzen da, eta horrek hasieran ezarritako epeetan aurreikusitako ekintza guztiak gauzatzeko gaitasuna mugatu du.

1. Alternatiba: proiektua OGP 2025-2027 Lan Planean sartzea eta "Youth Test" aren garapena.

"Etorkizuneko Belaunaldiak" proiektua ezartzeko erritmoa ebaluatu ondoren, eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko zuzendaritzarekin zuzenean harremanetan jarrita, proiektuaren funtsari eta helburu estrategikoei eustea ahalbidetuko duten alternatibak planteatzea erabaki da, erakunde-esparru zabalago eta jasangarriago batean benetan gauzatzen dela ziurtatuz.

Lehenengo aukera OGPre (Open Government Partnership) 2025-2027 Lan Planaren barruan dago. Plan horretan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, zuzendaritza arduradunarekin lankidetzan, "Bere etorkizuna diseinatzeko aktiboki parte hartzen duen gazteria" izeneko konpromisoa aurkeztu du. Konpromiso horren helburu nagusia da euskal gazteek jardura publiko-instituzionalean duten parte-hartzea bultzatu eta ebaluatuko duen esparru metodologiko bat zehaztea, Europako Batzordeak politika eta erabaki publikoek gazteen beharrak eta ikuspegiak modu eraginkorrean integratuko dituztela bermatzeko erabiltzen duen "Youth Test" mekanismoaren baliokidea txertatuz.

Mekanismo hori behar bezala landu eta egokitzeko, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko ordezkariak Espainiako Gazteriaren Kontseiluak Madrilen emandako prestakuntza espezializatu batean parte hartu zuten, gazteen partaidetzarako metodologietan, politikak ebaluatze eta jardunbide egokietan eta jarraipen-tresnetan (Youth Test, esaterako) sakontzeko. Prestakuntza hori funtsezkoa izan da gaitasun tekniko, metodologiko eta estrategikoak eskuratzeko, tresna sendo, erreplikagarri eta euskal testuingurura egokitua diseinatu ahal izateko, gazteak erabaki publikoetan benetan inplikatzeko direla ziurtatuz.

Esparru horretan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak aktiboki parte hartu du OGP 2025-2027 Ekintza Planaren aurkezpenean, María Ubarretxea sailburuarekin eta Eusko Jaurlaritzaren bozeramailearekin batera, eta Kontseiluak gazteak inplikatuko dituzten partaidetza-politikak ezartzeko funtsezko eragile gisa duen konpromisoa erakutsi du. Parte-hartze horri esker, gazteen ahotsak erabaki instituzionalak hartzean duen garrantzia ikusarazi da, eta aliantza estrategikoak finkatu dira erakundeetako eta gizarteko hainbat eragilarekin.

Halaber, Kontseiluak OGPk Euskadin egindako Munduko Goi-bileran parte hartu du. Goi-bilera horretan, gazteen parte-hartzearen eta politika publikoen ebaluazioaren arloko nazioarteko jardunbide egoki gisa aurkeztu zen proiektua. Nazioarteko onarpen horrek Youth Test bezalako mekanismoak sartzearen egokitasuna eta balio estrategikoa indartzen ditu, ez bakarrik tokiko politika publikoen kalitatea hobetzeko, baita Euskadi gobernantza parte-hartzailean eta gazte-konpromisoan erreferente gisa kokatzeko ere.

Oro har, proiektua OGP Lan Planaren barruan sartzek eta Youth Testa sartzek ziurtatzen du euskal gazteek funtsezko zeregina dutela politika publikoen diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan, eta modu nabarmenean laguntzen dutela toki-eremuan eta autonomia-erkidegoan gardentasuna, inklusioa eta berrikuntza instituzionala sustatzen.

2. Alternatiba: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua zabaltzea, modernizatzea eta indartzea, bideo dokumental baten bidez.

Bigarren aukera gisa, eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ikusgarritasuna, modernizazioa eta indartze instituzionala indartzeko helburuarekin, gazteek bizitza publikoan duten parte-hartzearen garrantzia eta Kontseiluak parte-hartze horren bitarteko gisa duen zeregin nagusia islatuko duen bideo dokumental bat egitea planteatzen da.

Dokumentalak funtsezko hainbat eragileren testigantzak bilduko ditu, besteak beste, Kontseiluaren proiektu eta jardueretan parte hartu duten gazteenak, garapen instituzionalean lagundu duten langile ohienak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan aritu diren erakundeetako eta pertsonenak. Ahots horien konbinazioari esker, ikuspegi zabala, sakona eta benetakoa emango zaio Kontseiluak euskal gazterian eta politika inklusibo eta parte-hartzaileen eraikuntzan duen eraginari.

Ekimen honen helburu nagusia Kontseiluaren nortasuna eta irudia indartzea da, berrikuntzarako gaitasuna, gazteen partaidetzarako plataforma gisa egiten duen lana eta belaunaldi berrien ahotsa txertatzen duten politika publikoen inplementazioan betetzen duen zeregin estrategikoa erakutsiz. Ikus-entzunezko material hori, halaber, erakunde-, hezkuntza- eta sentsibilizazio-komunikaziorako tresna izango da, gazteen inplikazioa sustatuz eta erakunde publikoekin eta erakunde laguntzaileekin aliantzak sendotuz.

Laburbilduz, gazteen parte-hartzearen garrantzia zabaltzeaz gain, aukera ematen du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren irudi moderno, dinamikoa eta hurbila proiektatzeko, aldaketarako eragile gisa duen garrantzia indartuz eta Euskadiko ekosistema instituzional eta sozialaren barruan duen posizionamendua indartuz.

Ebaluazioa

“Etorkizuneko Belaunaldiak” proiektuaren ebaluazio-puntuak

1. OGP konpromisoa ezartzea eta finkatzea:
 - o “Beren etorkizunaren diseinuan aktiboki parte hartzen duten gazteak” konpromisoa jarri da abian, OGP 2025-2027 Lan Planaren barruan, euskal gazteek jardura publiko-instituzionalean duten parte-hartzea sustatzeko eta ebaluatzeko esparru metodologiko bat definituz, Youth Testaren pareko mekanismo batxertatuz.
 - o Ekimena oso positiboki baloratu dute zuzendaritzak eta inplikaturako eragile instituzionalek, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren lidergoa sendotuz gazteen parte-hartzearen sustapenean.
2. Prestakuntza eta gaitasunak sendotzea:
 - o EGK-ko ordezkariak Espainiako Gazteriaren Kontseiluak Madrilen emandako prestakuntza espezializatuan parte hartu dute, eta gaitasun tekniko eta metodologikoak eskuratu dituzte Youth Testa ezartzeko eta politika publikoak gazte-ikuspegitik ebaluatzeko.
 - o Ikasketa horrek indartu egin du Kontseiluak erakundeei politika publikoen diseinuan gazteriaren ahotsa benetan txertatzen laguntzeko duen gaitasuna.
3. Erakundeen ikusgarritasuna eta posizionamendu estrategikoa:
 - o OGPren Ekintza Planaren aurkezpenean aktiboki parte hartzea, María Ubarretxea Eusko Jaurlaritzako bozeramailearekin, eta Euskadiko OGPren Munduko Gailurrean, non proiektua nazioarteko jardunbide egoki gisa aurkeztu zen.
 - o Ekintza horiek Kontseiluaren onarpen instituzionala eta posizionamendu estrategikoa areagotu dute, gazteen parte-hartzean eta gobernantza irekian funtsezko eragile gisa.
4. Dokumental instituzionalaren garapena:

- Entitatearekin lan egin duten gazteen, Kontseiluko langile ohien eta erakundeetako eragileen testigantzak biltzen dituen bideo dokumental bat ekoiztea abian da.
 - Kontseiluaren ikusgarritasuna indartu nahi da, gazteen parte-hartzean duen eginkizuna nabarmendu, eta komunikaziorako, hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako tresna gisa balio izan, Kontseiluak gazteengandik hurbil dagoen plataforma berritzaile gisa duen irudia sendotuz.
5. Gizarte-eragina eta komunikazioa:
- Bi ekimen horiek (OGP eta dokumentala) Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren gizarte-inpaktua handitzen laguntzen dute, gazteen inplikazio aktiboa sustatuz eta politika publiko inklusiboen eraikuntzan duten zeregina ikusaraziz.
 - Youth Testaren eta dokumentalaren emaitzak erakundeetan, hezkuntzan eta komunikabideetan zabaltzea aurreikusten da, Kontseiluak gizartean duen presentzia eta gazteen parte-hartzearen garrantziaren kontzientzia indartuz.

9.5.2 2030 Agenda 170 ekintza Bilbo eraldatzeko

Proiektu hau Nazio Batuek maila globalean garatu zuten antzeko ekimen batean inspiratzen da, *"170 ekintza egunerokoan gure mundua eraldatzeko"* izenekoan. Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GJH) lokalizatzearen garrantziaz jabetuta, Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik (EGK) Bilboko lehen agenda lokala diseinatu eta aurkeztu nahi izan dugu, Bilbotar orok *Bilbo eraldatzeko burutu ditzazkeen 170 ekintzaz osatua*.

Agenda honen helburua Bilbo hiri jasangarriagoa bihurtzea da, gizarte zibila osotasunean inplikaturik. Eguneroko errutinatan aldaketa txikiak eginez, herritarrek modu errazean baina esanguratsuan lagundu ahal izango dute ingurumenaren hobekuntzan eta, bereziki, klima-aldaketaren aurkako borrokan. Ikuspegi honek indartzen du tokiko ekintzek funtsezkoak direla Agenda 2030eko helburu globalak lortzeko.

Programa ikaskuntza aktibo eta kolaboratiboaren metodologian oinarritzen da; bertan, parte-hartzaileek ez dituzte GJHen inguruko ezagutza teorikoak bakarrik jaso, baizik eta jarduera interaktibo baten bidez, erronkak eta haien konponbideak praktikan bildu dira. Gainera, ko-

sorkuntzako tailerrekin gazteen inplikazio zuzena lortu da, Bilborako benetako proposamenak sortuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Bilboko gazteek 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) ezagutzeko eta Bilbo jasangarriago baterako 170 ekintza zehatz ezartzeko gogoeta eta ekintzarako espazio bat sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteria sentsibilizatzea GJHen garrantziaz eta Bilboren testuinguruan duten eraginaz.
- Gazteen parte-hartzea sustatzea GJHein lerrokatutako tokiko proposamenak sortzeko.
- Bilbon garapen jasangarria sustatzeko 2030 Agendak eskaintzen dituen tresnen ezagutza eta erabilera erraztea.
- Bilboko gazteentzako material digital eskuragarri bat sortzea, mugikorretatik partekatu eta kontsultatu ahal izateko 170 ekintzak biltzen dituen.

Garapena

Scape Room Proiektua: 2024ko Esperientzia eta 2025eko Eginkizunak

2024an, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta gazteekin lan egiten dugun beste eragile batzuek metodologia berritzaile bat jarri zuen martxan, **Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GJH)** gazteen artean modu praktiko eta interaktiboan lantzeko. Helburua ez zen soilik informazioa transmititzea, baizik eta gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea, euren ezagutzak eta proposamenak mahai gainean jartzeko espazio bat sortuz. Horretarako, **scape room esperientzien bidez ikaskuntza dinamiko eta kolaboratiboa** sustatu dugu, gazteak erronken bidez pentsatzera eta erabakiak hartzera bultzatuz.

2024ko esperientziaren arrakasta eta inpaktua

Proiektuaren berezitasunetako bat izan da **esperientzia guztiak Bilboko Alde Zaharrean, La Esperanza eraikinean, gauzatzea**. Kokapen estrategiko honek aukera paregabea eskaini du **gazteak erakartzeko**, ez bakarrik talde antolatuen bidez, baizik eta **kalean pasatzen ari ziren gazteek ere parte hartu ahal izateko**. Ingurune ireki eta dinamiko honek esperientzia aberastu du, **gazte gehiago inplikatzeko eta GJH-en inguruko kontzientzia zabaltzeko** aukera eskainiz.

Parte-hartzaileen aniztasunak **bilketa-prozesua aberastu du**, ikuspegi desberdinak jasotzea ahalbidetuz. Honen ondorioz, **Bilborako jasangarritasun-ekintzak era anitzago eta aberatsago batean formulatu ahal izan dira**. Gazteek proposatutako ekintzak ikuspegi praktiko eta errealista batetik sortu dituzte, euren eguneroko errealitateetatik abiatuta.

2025: Amaitzeko falta dena eta hurrengo urratsak

2024an egindako scape room-en arrakasta eta jasotako ekarpen kopuru handia ikusita, **Bilbon azken saio bat egin du EGKk datu-bilketa hobetzeko eta 170 ekintza jasangarriak Bilbo hiriri egokitu eta proposamen anitzak jasotzeko**.

Hori dela eta, **2025ean proiektuaren azken fasea burutu da**, bi lan-ildo nagusirekin:

1. **Azken scape room saioa:**
 - Saio gehigarri bat egin da **Bilbon**, datu-bilketa osatzeko eta parte-hartze gehiagori aukera emateko.
 - Saio honen helburua izan da **ekintza jasangarri berriak gehitzea**, proposamenak hobeto sistematizatzea eta emaitzak biribiltzea.
2. **170 ekintzen bilduma eta maketazioa:**
 - Bildutako ekintzak **antolatu, egituratu eta azken formatua ematea**.
 - Proposamen guztiak jasoko dituen dokumentu bat sortzea, **modu argi eta bisualean aurkezteko**.
 - Emaiza hau zabaltzea eta sustatzea, **gazteekin, erakundeekin eta instituzioekin partekatuz**.

Ebaluazioa

- **Parte-hartzea eta Inplikazioa:**

Gazteen aktibitatea eta interesaren neurria, proiektuan parte hartu duten gazteen kopurua eta euren inplikazioa.

- **Ingurune eta Kokapena:**

La Esperanza eraikinaren kokapen estrategikoa, gazteen erantzuna eta espazioaren inklusibitatea.

- **Ekintzen Proposamenen Kalitatea:**

Jasotako ekintza jasangarrien berritasuna, egokitasuna eta praktikoak izatea, Bilbo hiriaren beharrak asetzeko.

- **Datuen Bilketa eta Maketazioa:**

Ekintzen sistematizazioa, proposamenen maketazioa eta azken emaitzen zabalkundea, gazteekin eta erakundeekin partekatzea.